

# Zu hemen zaude. goiena




## HERRIEN ARTEKO MUGIKORTASUNA, BAIMENAREKIN

Ertzainak eta udaltzainak udalerrietako mugak –errepideak eta bidegorriak– zaintzen ibili dira aste osoan / 2

Ertzain bat auto gidari baten ziurtagiria egiaztatzen, atzo, Eskoriatzako sarreran.

JAGOBA DOMINGO



**Lau debagoiendar, Alaves futbol klubaren mendeurrenerako argitaratu dituzten eskuko kartetan / 38**

**Epeleko zabortegian hondakin ez-arriskutsuak jaso nahi ditu Eusko Jaurlaritzak / 5**

**Angiozar Toki Entitate Txiki izendatzeko prozesua abiarazi du Angiozar Bailarako Batzarrak / 26**

**SINADURAK**

	AMAIÁ RAMÍREZ DE OKARIZ / 31
	IMANOL GALDOS IRAZABAL / 8
	JOSU ZUBIA / 36
	ITSASO ERRETOLATZA / 12
	AINTZANE OIARBIDE / 48

**puntuak**

+

Hizkuntza aniztasuna, gako elkarbizitzarako


Joseba Azkarraga soziologoari elkarriketa

**SEAT ATECA**

**DISFRUTATU TEKNOLOGIAZ!**

**Udalaitz**

Gipuzkoa etorbidea, 30 • ARRASATE • 943 71 18 70



Ertzaintza herriko muga kontrolatzen, atzo, Eskoriatzako sarreran. JAGOBA DOMINGO

# Udaltzainak eta ertzainak ari dira udalerrien mugen arteko kontrolak egiten

Astelehenean indarrean jarritako neurriei lotuta "ausazko kontrolak" egiten ari dira Ertzaintza eta herrietako udaltzainak, eta, herritarren jarrera oro har "ona" den arren, bost salaketa jarri dituzte; bestetik, positibo berriek gora egin dute azken astean

**Maialen Santos** ARRASATE

COVID-19aren hedapena saihesteko helburuarekin, Eusko Jaurlaritzak bi neurri zorrotzeko erabakia hartu zuen joan den egubakoitzean, LABI teknikoan egindako proposamenak jarraituz, eta neurriok astelehenez geroztik daude indarrean. Hala, gehienez ere lau lagun elkartzeko muga ezarri dute –erabilera publikoko nahiz pribatuko espazioetan–, eta baita erkidegoko udalerrri guztietan itxiera perimetrala ezartzeko agindua ere –intzidentzia-tasa edozein dela ere eta udalerrri mugakiderako igarobidea salbuetsi gabe–.

Aurretik zeuden gainontzeko neurriak bere horretan mantenduko direla azpimarratu zuen Gotzone Sagardui Osasun sailburuak. Bestetik, adierazi zuen "mugikortasuna mugatzeko" eta

bizikidetzaburubuletatik kanpoko pertsonekin "harremana mugatzeko" hartu direla erabakia. "Egoera zaila da, eta prebentzio neurriak mantendu behar ditugu", gehitu zuen.


Udalerrien itxiera perimetralak ibarreko herri txikietan izan du eraginik handiena, inguruko herriek eskaintzen dituzten zerbitzuak erabiltzen dituzten bizilagunen kalterako. Esaterako, mugikortasunaren esparruan Osasun Sailak osatutako galdera-erantzunen oharrean zehazten da aurreikusitako salbuespenetako batengatik atera daitekeela udalerritik, behar bezala justifikatuta. Hala, elikagaiak edo baimendutako beste produktu batzuk erosteko joan-etorriak bizileku duten udalerriko merkataritza-establezimenduetan egin behar dira. Salbuespen gisa,

bizileku den herrian ez dauden zerbitzuetarako eta horniduretarako bizileku den udalerritik hurbilago dagoen azalera handi batera lekualdatu ahal izango dela jasotzen du dokumentuak.

Era berean, ezin daiteke udalerritik irten beste udalerririk batereko ostalaritza-establezimendu batera joateko, nahiz eta intzidentzia-tasa baxua izan herri bietan. Hori horrela, Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxeko arduradunek GOIENARI azaldu diote astelehenez geroztik jatetxea itxita dutela. "Herrikoak bertakoak soilik etor daitezke gurera, eta, herri txikian bizi garenaz, irekita mantenduta irabaziak baino gehiago dira gastuak", aitortu dute bertako arduradunek. Are gehiago, diote "erabat nekatuta" eta "etsita" sentitzen direla, eta ez dakitela

## Positibo kopuruaren bilakaera

DATUEN ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA



egoera zenbat luzatu daitekeen: "Oso desanimatuta gaude, denbora luzea daramagulako ziurgabetasun egoeran, eta halaxe jarraitzen dugu". Aramaioko Iturrieta sagardotegiko arduradunen sentazioak ere antzekoak dira. Otsailaren 5ean hasiko dute aurtengo sagardo denboraldia, eta egun berean irekiko dituzte Iturrieta sagardotegiko atekak, Aramaioko herritarrek soilik hartu ahal izango dituzten arren. Diote azken asteetan protokoloak zehazten eta atekak irekitzeko "prestatzen" aritu direla, eta orain, "ilusioa" galdu egin dutela.

**ARAU-HAUSTEAK**

### BOST SALAKETA PROPOSAMEN JARRI DITU ERTZAINZAK AZKEN EGUNETAN

Bergarako ertzain-etxetik adierazi dute herritarrek, oro har, ari direla "errespetatzen" astelehenean indarrean sartu ziren neurriak: "Bizi diren udalerrietan mantentzen ari dira, eta, gehienez, lau pertsonaz osatutako taldeetan. Hala ere, beti dago neurriak errespetatzen ez dituen kasu isolaturren bat". Hain zuzen, atzora arte, bost salaketa-proposamen jarri ditu Ertzaintzak Debagoienera: horietako hiru bizikideak izan gabe baimendutako pertsona kopurua baino gehiago etxebizitza batean

egoteagatik, bat maskara gabe eta etxeratze-agindua errespetatu gabe txakurra paseatzen egoteagatik eta azken bat bizilekua ezarrita ez duen herrian justifikatutako arrazoirik gabe egoteagatik. Gauzak horrela, egunotan, "ausazko kontrolak" egiten ari dira Ertzaintza eta herrietako udaltzainak; batik bat, bidegorri eta errepideetan.

**POSITIBO BERRIAK**

### AZKEN ASTEETAKO JOERA HAUTSIZ, POSITIBOEN GORA EGIN DUTE

Joan den egunetik eguzten honetara, 99 debagoiendar kutsatu ditu COVID-19 gaitzak, joan den astean baino 32 gehiago –67 izan ziren–. Arrasaten (45) eta Bergaran (24) izan dira kutsatu gehien, eta aurreko astearekin alderatuta dezente igo dira positibo berriak herri horietan. Leintz Gatzaga izan da kasu berririk hauteman ez duen ibarreko herri bakarra –hirugarren astez jarraian–. Gauzak horrela, pandemia hasi zenetik, 4.971 debagoiendar kutsatu ditu gaitzak. Horren harira, azpimarratzeko da Osasun Sailak herrietako datu eguneratuak eman zituela atzo asteko buletinean, eta hortaz, positibo metatuak nabarmen aldatu direla hainbat herritan. Horretaz gain, 143 lagun hil dira martxotik

## Positibo kasuak


	Positiboak aste honetan	Positiboak aurreko astean	Positibo metatuak	Positiboak mila biztanleko
Arrasate	45	32	2.205	99,86
Bergara	24	6	1.100	73,16
Aretxabaleta	13	15	486	68,64
Aramaio	6	1	83	56,08
Oñati	5	8	631	55,02
Antzuola	4	1	153	70,22
Eskoriatza	1	4	254	61,91
Elgeta	1	0	51	45,09
Gatzaga	0	0	8	32,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>99</b>	<b>67</b>	<b>4.971</b>	<b>76,70</b>

OHARRA: EGUAZTENERA ARTEKO DATUAK

ITURRIA: OSASUN SAILA

## Bailarako herrien intzidentzia tasa

DATUEN ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA



eskualdean. Urtarrilaren 17az geroztik, zehazki, bi pertsona hil dira Aretxabaletan eta beste bi Arrasaten.

Bestalde, aipatzekoa da azken asteetan datuek erakutsi duten joera hautsi egin dela. Grafikoan ikusten denez, abenduaren 23tik hasita lau astez jarraian behar-raka egin zuten erregistratutako kutsatu berriek, azken astean joerak apaltzera egin bazuen ere. Aste honetan, ordea, kontrako joera hartu dute, eta kutsatu berriek goraka egin. Osasun

Sailaren semaforoaren sistemari erreparatuta, 5.000 biztanleko gorako herrietan Arrasate eta Aretxabaleta laranja margotuta ageri dira, atzora arte, eta Bergara eta Oñati, aldiz, horiz. Hala, 500etik beherako intzidentzia-tasa dute bailarako herri guztiek, baina mugatik gertuago daude batzuk: batez ere, Aramaio (472,97). Bestetik, Oñatik eta Bergarak 200etik beherako intzidentzia-tasa dute; Erkidegoko herri handien artean tasa baxuenak dituzte, hala.

Debagoieneko Ospitaleari dagokionez, atzora arte, bi lagun daude birusarekin ingresatuta.

### BIRUSAREN AURKAKO TXERTOAK

## MIZPIRUALDE ZAHAR ETXEAN ATZO HARTU ZUTEN TXERTOAREN BIGARREN DOSIA

Begarako Mizpirualde adinekoen egoitzan atzo, eguena, hartu zuten koronabirusaren aurkako txertoaren bigarren dosia, 82

egoiliarrek eta 50 langilek. Urtarrilaren 7an hartu zuten lehen dosia 79 egoiliarrek eta 46 langilek, baina atzo, hiru egoiliar eta lau langile gehiago animatu ziren txertoa hartzera; horiei lehen dosia jarri zieten. Lehen ziztada hartzeko orduan lanean ari ez ziren langileak -50-aste-bete geroago ziztatu zituzten, eta, horrenbestez, 21 egunen baitan, datorren astean, hartuko dute beste dosia.

Bailarako gainontzeko egoitzei dagokionez, Oñatiko San Marti-

nen eta Aretxabaletako GSRn joan den astean hasi ziren lehen dosiak jartzen. Hori horrela, oraindik itxaron egin beharko dute bigarren dosia hartzeko. Arrasateko Iturbide egoitzan eta Eskoriatzako Jose Aranan, aldiz, dagoeneko hartu dituzte bi dosiak, eta azken egoitza horretako mediku Leire Sanzek GOIENARI azaldu dio egoiliarrek "pozik" hartu dutela txertoa, eta horrek eragindako "albo-efekturik" ez dutela izan, besoko mina bakarrik. "Datozen egunetan egingo ditugu probak, antigorputzak zenbateraino garatu dituzten neurtzeko", gaineratu du medikuak.

### KUTSATUAK ADINEKOEN EGOITZETAN

## HEMEZORTZI KASU AKTIBO DITUZTE DEBAGOIENeko ZAHAR ETXEETAN

Atzora arte, hemezortzi pertsona zeuden kutsatuta eskualdeko adinekoen egoitzetan: hamazazpi Aretxabaletako GSR Debagoiena egoitzan eta bat Oñatiko San Martinen.

Azpiarratzekoa da kutsatuta egon diren egoiliarretako asko sendatzen ari direla azken asteetan; hain zuzen, Gipuzkoako Foru Aldundiak aditzera emandako datuen arabera, Aretxabaletako zahar etxean bederatzi egoiliarrek gainditu dute birusa joan den eguena ezker, eta Oñatikoan, aldiz, batek.

## "Txertoa hartuta, hasieran genuen presioa jaitsi egin da"

IRATXE ARRILLAGA JOSE ARANA ADINEKOEN EGOITZAKO PSIKOLOGOA

Eskoriatzako Jose Arana adinekoen egoitza izan zen Debagoieneko txertoa hartzen lehena. Dagoeneko bi dosiak hartu dituzte bertan bizi diren egoiliarrek eta langileek.

### Noiz hartu duzue txertoa?

Abenduaren 31n hartu genuen lehen dosia langileetako batzuek eta baita egoitzako egoiliar guztiek ere: 26k. Bigarren dosia urtarrilaren 21ean hartu genuen.

### Nola hartu duzu?

Egia esan, gogo handiz hartu dut txertoa. Alde batetik, birusak kutsatuz gero sintomarik izan ez dezadan erabaki dut hartzea. Eta, bestetik, ospitaleetako egoera ikusita ez nuke gura

oherik okupatu; are gutxiago, ZIUetakoak. Beharrezkoa iruditu zait txertoa hartzea.

### Beldur punturik sumatu duzu?

Ez, uste dudalako egin beharrekoa egin dudala. Egoiliarrek urtebete darimate egoitzatik irten gabe, eta langileak gara kanpotik gatozenak eta, horrenbestez, gaixotasuna egoitzara sartu genezakeenak. Lanera etortzeko presio hori izatea nahiko gogorra da, eta, alde horretatik, lasaiago nago orain.

### Albo-efekturik eragin duzu?

Ez dut albo-efektu gogorrik sumatu: ez dut izan sukarrik ez



I.A.

eta ez tulik edo buruko minik ere. Hala ere, esan behar dut lehen dosia hartu eta hurrengo egunean besoko mina igarri nuela, soilik egun bat iraun bazuen ere. Bigarren dosiarekin,

aldiz, ez dut hainbesteko minik izan besoan.

### Zein harrera egin diote txertoari egoiliarrek?

Oso pozik eta ilusioz. Gogotsu hartu dute. Eurak dira pandemia gehien sufritzen ari direnak; ezin dira egoitzatik irten eta bisitak oso mugatuta dituzte.

### Albo-efekturik eragin die?

Nik bezala, besoko mina izan dute batzuek. Baina, bestelakoan, ezer ez.

### Zer ekarri du txertoak Jose Aranara?

Lasaitasuna. Neurriak hartzen jarraitu behar dugu, baina askoz ere lasaiago gaude, hasierako presioa nabarmen jaitsi dela igarri dut. Are gehiago, bigarren dosia hartu genuenetik astebete pasa da eta horrek esan gura du, ziur aski, immuneak garela jada.

### OSTALARIK PROTESTAN

## ARRASATEKOEK AUTO-KARABANA ZARATATSUA EGIN DUTE ASTEON

Egungo neurriekin aurrera egi-tea "ezinezkoa" dela salatu zuten martitzenean Arrasateko Ostalariak taldekoek, eta sektorearendako erreskatea eskatu.

Horretarako, auto-karabana egin zuten, lehenengo, Arrasateko kaleetan; eta gero, elkarretaratzea Herriko Plazan. Gune gorrian egon edo ez negoziario zabaldu edo itxi behar izatearekin ere kritiko agertu ziren oso, azaldu zuten, modu horretan ezin dutelako "duintasunez" lan egin. Era berean, adierazi zuten herrian dagoeneko badagoela atek itxi behar izan dituen negozioirik.

# Automozioaren iraultzak emakumeak behar ditu

Automozioiko Emakume Ikasleen Bigarren Topaketa egin du Aretxabaletako Lanbide Eskolak; oraingo honetan, birtualki. Sektoreko hiru emakume erreferentek parte hartu dute eta euren presentzia handitzearen onurak azpimarratu dituzte



Automozioiko ikasle batzuk Aretxabaletako Lanbide Eskolan, artxiboko irudi batean. GOIENA

## Xabi Gorostidi ARRASATE

"Zorionez, gero eta gehiago gara automozioan gabiltzan emakumeak, baina asko dago egiteko berdintasunera bidean". Don Bosco Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratuko irakasle Enara Arratibelen hitzak dira, asteazkenean birtualki egindako topaketan adierazitakoak. Lanbide Heziketako Automozioiko

Emakume Ikasle Emakumeen Euskadiko Bigarren Topaketan parte hartu zuen, beste bi "emakume erreferentekin" batera: Edertek enpresako Itsaso Erretolatza eta FEV multinazionalako Ainhoa Irureta. Duela urtebete antolatu zuten Aretxabaletako Lanbide Eskolak eta Emakundek topaketa horren lehen aldia, "eta, edukitako arra-

kasta ikusita", aurten nola edo ahala errepikatze ahalegina egin dute, "birtualki bada ere".

## Esperientzia pertsonalak

Saioaren lehen zatian, automozioan zein bide jarraitu duten azaldu zuten hiru hizlariak. Aurrez, ordea, Emakundeko zuzendari Izaskun Landaidaren hitz-hartze bat entzun zuten.

Landaidak jardunaldi horren garrantzia azpimarratu zuen, "beharrezkoa delako sektore horretan diharduten emakumeen lana ikustarazteko" eta baita ikasketak aukeratzeko dauen genero inertiak hausteko.

Presentziarekin lotuta, hizlarien esperientziak argi utzi zuten emakumeak gutxiengo izan direla automozioan, "nahiz eta gero eta gehiago diren. 300-400 inguruko nazioarteko konferentzia batera joan nintzen, eta ni eta nire lankidea ginen emakumezko bakarrak; bide batez, gazteenak ere. Harridura sortu zidan, baina harrotasuna ere bai. Gauzak aldatzen ari dira, eta hor geunden gu, aldaketa horren ordezkari. Japoniako Gobernuako ordezkari batzuegan harridura sortu genuen, ez baitzuten sekula esperoko era horretako konferentzia batean emakumeak ikusterik", azaldu zuen Ainhoa Iruretak.

"Nire departamentuan 30 irakasle inguru gaude eta ni naiz emakumezko bakarra", azaldu zuen, horren harira, Enara Arratibelek. "Gutxiago izatea ez da txarra, inondik inora. Norbaitek izaten du beti lehena izatearen ardura, eta guri tokatu bazaigu; bada, pozgarria da", adierazi zuen Itsaso Erretolatza.

## Aldatzeko "funtsezko begirada"

Automozioa eraldatzen fase bete-betean sartuta dago, batez ere, erregai mota berrien erroka dela eta. Alde horretatik, Erretolatza argi adierazi zuen etorkizunean emakumeak "inoiz baino beharrezkoagoak" izango direla. "Automozioa ez da soilik tailerreko lana. Berrikuntza eta diseinu arloek gero eta garrantzi estrategikoagoa daukate, eta hor asko dugu emateko, emaku-

meok beste begirada bat gehitu dezakegulako. Berritzeko beharrezkoa da aurreko guztia apurtzea, eta hor funtsezko izango gara; batez ere, aurreko horretan guztian emakumeek erabakita-kotxi dagoelako".

## Zailtasun errealak

Emakumeek bizitako eta egun bizitzen jarraitzen duten egoera errealak ere izan zituzten hizpide. "Ikasketa dualen kasuan, enpresa askok eragozpenak jartzen dituzte emakume bat tailerrean hartzeko; baina gero, egia esan, gehienak oso gustura geratzen dira. Tailerrera sartzen den emakume horrek aurreiritzi horiek gainditzeko erronka du. Horrek bere onena ematera eramaten du, eta gero, emaitzetan igarri egiten da. Egoera horiek gainditzen dituzten ikasleak erreferente bihurtzen dira, eta bidea errazten diete atzetik etor daitezkeenei".

Youtube bidez egin zen emaldia. Txat bidez ikusleek parte hartzeko aukera izan zuten, eta testigantza latz batzuk azaldu ziren: "Lanbide Heziketan bi emakume bakarrik geunden gelan eta jarrera eta komentario matxistak jasaten genituen ikasleen eta baita irakasleen partetik. Praktikak egitean ere, antzera. Bezeroak etortzean ezkatutako eskatzen zidaten, eta ia beti garbiketa lanak ematen zizkidaten", aitortu zuen Haizea Ortiz izeneko ikusleak.

**"TAILER BATZUEK TRABAK JARTZEN DITUZTE PRAKTIKAK EGITEKO EMAKUMEAK HARTZEKO ORDUAN"**

## Urkuluko urtegiak gainezka egin du: %99,85 dago beteta

Mendietako elurra urtu izanak eta azken egunetan pilatutako euriteek eragin dute betetze-maila handia

## X.G. ARETXABALETA

Urte hasieran, bailarako mendiak elurrez bete ziren, ondo bete, gainera, eta, behin elur hori urtuta, urtegiak ur kopuru handia batu du. Hala, martitzenean, %99,85eko betetze-maila pilatu

zuen, eta urak gainezka egin zuen. "Aurreikusten genuen maila altua izango genuela, batez ere, elurteengatik. Baina guretzako egoera normala da urteko sasoi honetan", azaldu du urtegiako langile Imanol Za-

baletak. Ekintza berezirik aurreikusten duten galdetuta, haxe erantzun du: "Ez dugu ezer berezirik egingo, hasiera batean. Urtegien zeregina erreken emari maila erregulatzea da, eta une honetan emari maila ez da oso altua".

2016tik hona urtarriletan pilatutako zifrarik altuena da. 2019an eta 2020an, %90eko langa gaintu zuen -%93,31 eta %94,30, hurrenez hurren-, eta 2018an eta 2016an, aldiz, ez zen %75era heldu.



Urkuluko urtegiaren ura gainezka egiten, martitzenean. MIRARI ALTUBE



Epeleko hondakindegia, 2020ko otsailean ateratako argazkian. IMANOL BELOKI

# Epele berriz erabiltzeko asmoa du Jaurlaritzak

Hondakinen Prebentziorako eta Kudeaketarako Planaren zirriborroaren berri eman du Ingurumeneko sailburu Arantza Tapiak. Ez dute planta berririk egiteko asmorik; bai, ordea, eginda daudenak handitzeko edo berregokitzeko; horien artean dago Epele

## Xabi Gorostidi BERGARA

Hondakinen kudeaketari dago-kionez 2030era bitartean Jaur-laritzak dituen asmoen berri eman zuen astelehenean Arantza Tapiak, Ingurumen sailburuak. Etxetik egin zuen, modu telematikoa, berriki positibo eman duelako COVID-19an. 2030erako Euskadiko Hondakinen Prebentziorako eta Kudeaketarako Planaren zirriborroaren gako nagusiak azaldu zituen, helburu nagusi hauek dituenak: %30 murriztea hondakinak sortzearekin lotutako tasa; hiri-hondakinen gaikako bilketa %85era heltzea; hondakin ez-arriskutsuen %85 berrerabiltzea eta bigarren mailako material bilakatzea; eta %15etik behera murriztea hondakindegietan amaitzen duten hondakinen kopurua. Hori dena gauzatzeko 97 milioi euroko inbertsioa egitea aurreikusten du Jaurlaritzak, eta helburu horiek betetzeko hainbat ekintzaren berri eman zuen Ingurumen sailburuak.

## Planta berririk ez

Hondakinen Prebentziorako eta Kudeaketarako Planaren zirriborroak EAEko ekonomiari 2030era bitartean beharko duen hondakin ez-arriskutsuen isurketa estimazioa jasotzen du. Zaldibarko Zabortegia ixteko aurreikuspenarekin, eta Mutiloako eta Larrabetzuko hondakindegia itxi ondoren, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan hamar hondakindegia erabilgarri geratuko lirakeke, gutxi gorabehera 4.000.000 metro kubikoko edukiera gaitasunarekin. Baina, zirriborroak jasotzen duenaren arabera, EAEko industriari 7.500.000 metro kubiko isurtzeko beharra edukiko du 2030era bitartean. Hala, falta diren 3.500.000

## HONDAKIN EZ-ARRISKUTSUAK JASOTZEKO ERABILIKO LUKETE EPELEKO HONDAKINDEGIA

metro kubiko horiek jasotzeko zer egingo duten galdetuta, haxe erantzun zuen Tapiak: "Ez dugu aurreikusten zabortegi berririk irekitzea. Egingo duguna da handitzeko aukera duten zabortegi publikoak handitu, une honetan hondakin geldoak hartzen dituztenak hondakin ez-arriskutsuko hondakindegia bilakatu eta handitzeko gaitasuna duten hondakindegia pribatuak handitu". Bigarrenez galdetu zioten zeintzuk izan zitezkeen edukiera handitu zezaketen hondakindegia publikoak, eta orduan aipatu zituen Gasteizko Gardelgi eta Bergarako Epele.

**Mankomunitateak, berririk ez** Epeleko hondakindegia une honetan itxita dago, eta Debagoieneko Mankomunitatearen eskumena da. Jaurlaritzaren asmoak buruz galdetuta, adierazi dute ez dutela "ezer jaso modu ofizialean", eta "prentsaren bidez" jakin dutela asmo horien berri. "Ez dugu ezer esateko, oraingoz".


## Haurren esperimentazioaren gaineko liburua egin dute Huhez

Larraitz Esnaola eta Alex Barandiaran irakasleek idatzi dute eta 'Esperimentazioan sakonduz biziberritu' du izena

### X.G. ESKORIATZA

Hik Hasi argitaletxeak kalera-tutako liburuak aztertzen ditu, besteak beste, zer-nolako onurak ekartzen dituen hezkuntzan eta garapen-prozesuan askotariko materialekin esperimentatzeko aukera izateak. Horrez gain, eta pausoz pauso dokumentatuta, esperimentaziorako hainbat ideia, estrategia eta proposamen bildu dituzte egileek, liburuak dituen 161 orrialdeetan.

Egileen ustetan, hezkuntzan, umea erdigunean jarrita, esku-liburuak alboratuta eta proposamen berriak lantzen hasita, galdera berriak sortzen dira: "Zeren arabera proposatzen dugu espazio jakin bat, eta espazio horretan material bat edo bestea? Zer ekarpen egiten dio material bakoitzak umearen garapenari edo garapenaren esparru bati edo besteari?".



Esnaola eta Barandiaran. HUHEZI

Egileen iritziz, espazioek eta materialek esperimentatzeko, manipulatzeko, esploratzeko, sortzeko eta jolasteko ateak irekitzen dizkiote haurrari. Prozesu horretan bidelagun den hezitzaileari laguntzeko idatzi dute liburua.



ARANZADI ikastola  
Kalitatezko Euskal Heziketa

## T. DE ARANZADI IKASTOLA KOOP. ELK.aren OHIKO BATZAR NAGUSIRAKO DEIALDIA

Gure kooperatibaren Baitzuarren estatutuen 25 artikuluan ezarritakoaren arabera, Aranzadi Ikastola Kontseiluak T. DE ARANZADI IKASTOLA, KOOP. ELK.aren Ohiko Batzar Nagusira del egiten du. Batzarra 2021ko otsailaren 24an egingo da, arratsaldeko seietan lehen delaldian eta, hala balegokio, sei eta erdietan bigarren delaldian, Bergara herriko Herrilagunak kaleko Aranzadi Ikastolan.

### GAI-ZERRENDA

- Akta onartzeko kideak izendatzea
- Aurreko bilkurako aktaren onarpen-bostena irakurtzea
- 2019/20 ikasturteko memoria
- 2020/21 ikasturteko egitasmoa
- 2020ko —abuztura arteko— urteko kontuan kudeaketa aztertu eta, hala balegokio, onestea
- Galdu-irabazien banaketa
- Aranzadi Ikastola Kontseiluko kide berriak hautatzea
- Galde-erantzunak

Bazkideek gai-zerrendan dauden gaien inguruko dokumentazioa Aranzadi Ikastolan aurrez aztertzeko aukera dute.

Bergaran, 2021eko urtarrilaren 26an

Lehendakaria  
Ariane Karaga Irzabañeta

# Zubillagako hiltegia, "bide onean eta gogoz"

lazko datuak eskuetan, 2020a "modu onean" gainditu dutela adierazi dute Zubillaga SLko arduradunek: "Pandemiak eragindakora egokitu eta zerbitzuak modu jarraituan funtzionatzen iraun du"; egokitzapenak eginda, baikor begiratzen diote 2021ari

## Hasier Larrea OÑATI

Zubillaga-Oñati Hiltegi eta Zaitze Zerbitzuak enpresak iazko urtearen balorazioa egin du asteon, eta emaitza "positiboak" lortu dituela baieztatu. Okelaren kontsumoaren gorakadarekin lotu du emaitza horren jatorria, hein handi batean, Iraia Sola hiltegiko kudeatzaile nagusiak dioenez: "Harategien eskaerak eta baserriarren salmenta zuzenak hazi egin ziren iaz; horren ondorioz, 2019ko fakturazioa %8 igo dugu 2020an".

Guztira, 918 ustiatagiri eskaini zien zerbitzua joan den urtean Zubillagako enpresak, eta horietatik 439 Bizkaikoak dira. "Bitxia badirudi ere, lurralde historiko horretan ez dago hiltegiarik, eta Arabara eta Gipuzkoara jotzen dute bertako baserriar eta harakinek", zehaztu du Solak. Beste erabiltzaileen artean, 365 gipuzkoar jatorrikoak izan ziren, 94 Arabakoak, eta inguruko erkidegoetakoak, berriaz, gainontzekoak.

## Ekoizpen ekologikoa, bogan

Orotara, 1.450 tona kanalean ekoiztu zituen iaz Zubillagako hiltegiak, eta egunero "60 eta 80 abelburu inguru" prozesatzeko gai izan zen. Horietatik 55 tona ekoizpen ekologikoarekin lotu-



Zubillaga-Oñati Hiltegiko langile bat, zaitze gelan, haragia ebakitzen. ZUBILLAGA SL

takoak izan ziren, 2019an ateratakoaren bikoitza. Enpresako kudeatzaileak nabarmendu duenez, "igartzen da bezeroek lehen-gai ekologikoa gero eta gehiago apreziatzen dutela".

Prozesu hori nola gauzatzen den galdetuta, "ordena eta trazabilitatea" kontuan hartzen dituen sistema erabiltzen dutela azaldu du Solak: "Prozesu konbentzionalarekin alderatuta, zaitze geletan gertatzen da aldaketa nagusia, bertan dagoelako okela kontaminatzeko eta nahasteko arrisku handiena;

hala, ekoizpen ekologikoko produktuak arreta handiagoz zain-tzen ditugu zaitze geletan".

## Aldaketak instalazioetan

Pandemia iritsi aurretik zehaztu zituzten obrak egiten dabilta orain Zubillagako hiltegian. Bulegoan eta aldageletan egingo dituzte aldaketarik handienak, eta COVID-19ari aurre egiteko ere "baliagarriak" egingo zaizkie instalazio berriak bertako langileei: "Lehen, aldagela bakarra geneukan, eta, hemendik aurrera, bi izango ditugu, banatzaileak

## Ibarreko 183 baserriri zerbitzu

Gipuzkoan animalia espezie handien lau hiltegi daude, guztira, Donostian, Zestean, Tolosan eta Oñatin kokatuta. Azken hori bakarrik da %100 publikoa; bertan, Debagoieneko udal guztiez gainera, Zumarragako, Urretxuko eta Legazpiko udalek ere hartzen dute parte.



ZUBILLAGA-OÑATI HILTEGIA

Bezeroei dagokienez, harakinak dira Zubillagako zerbitzura jotzen duten erabiltzaileen %70. Gainontzeko ustiatzaileen artean daude, batez ere, autokontsumora eta zuzeneko salmentara dedikatzen diren baserriarrek, eta, modu apalagoan, jatetxeak.

Hain zuzen, Debagoieneko 183 baserriek jotzen dute Oñatin kokatuta dagoen hiltegiko zerbitzuak kontratatuz.

Guztira, 24 pertsonak egiten dute lan enpresa horretan, zaitze geletan, hiltze prozesuan, bulegoan eta banaketan sailkatuta.

beste langileekin ez nahasteko; izan ere, haiek dira birusa hartzeko arrisku handien dutenak, enpresatik kanpo aritzen direlako, gehienbat".

## Banaketaren subrogazioa

Urtebete igaro da Oñatiko Zubillaga auzoko enpresak banaketa zerbitzuaren azpikontratazioa amaitu zuenetik. Erabaki hori hartu izana "albiste ona" izan zela uste du Solak: "Orain, zerbitzu hobe eta malguagoa eskaintzen diegu harakinei eta baserriarrei, egun gehiagotan toki gehiagotara heltzeko gaitasuna irabazi dugulako".

Horregatik, kudeatzaileak eskerrak eman nahi izan dizkie enpresarekin parte hartzen duten udalei, euren esker haragia banatzeko "enpresa barruko langileak eta kamioi propioak" dituztelako orain.

**Ekoizpena mantentzea helburu**  
COVID-19aren aurrean enpresak "ondo" erreakzionatu duela ondorioztatu dute Zubillagako hiltegiko arduradunek, eta aurtengo urteari begira "ekoizpena mantentzea eta, ahal bada, %1 igozea" jarri dute erronka gisa.

Hiltegia martxan izateko "ahaztu ezin den" helburu bat, bestalde, "hemengo herrietako baserriak osasuntsu mantentzea" dela aipatu du Solak: "Ingurugiroa eta paisaia mantentzen ditugu horrela, eta, hala, kalitatezko okela heltzen da gure harategietara".

## 2019AN BAINO %8 GEHIAGO FAKTURATU ZUEN IAZ HILTEGIAK, ETA 918 USTIATEGIRI EMAN ZIEN ZERBITZU

## Haurreskolak Partzuergoak greba egin du bi egunetan

%65eko eta %70eko jarraipena izan dute astelehenean eta asteazkenean, ELaren, LABen eta Steillasen esanetan

## H.L. ARRASATE

Abenduan hasitako protestekin jarraituz, "zerbitzua Hezkuntza Sailean integratzea eta doakoa izatea" aintzat hartzeko, lanuzteak egin zituzten hilaren 25ean eta 26an Haurreskolak Partzuer-

goko langileek Euskal Herrian. Debagoienari dagokionez, Oñatin ez zuten grebarekin bat egin, eta Bergaran hezitzaile bat gutxiagorekin aritu ziren asteazkenean. Arrasateko bi hezkuntza zentroek egin zuten bat

deialdiarekin, baina Eskoriatzan, Antzuolan eta Elgetan Partzuer-goko hezitzaile guztiek joan behar izan zuten lanera, zerbitzu minimoak bi hezitzailekoak izan direlako. Elgetan, berriz, ez zen ume bakar bat ere joan eskolara asteazkenean. Eta horixe izan da sindikatuek salatu dutena: zerbitzu minimoak gehiegizkoak izan direla.

Aldarrikapenen artean, 2018an lortutako akordioak betetzea, 2009koa ordezkatzeko duen lan hitzarmen berriaren negoziazioa

abiatzea, langileen behin-behinekotasun tasa amaitzea eta lanpostuak egonkortzea zerrendatu dituzte sindikatuek, baita Haurreskolak Partzuer-goko norbera babesteko ekipamenduak Osakidetza bere gain hartzea eta aurrekontua handitzea ere.

Salatzen dutenez, 2020ko urtarrian elkarte horretan izan zen kudeatzaile aldaketak joera aldaketa ekarri zuen.

Abenduaren 22an batu ziren azken aldiz mahai negoziatzaileen sindikatuek eta Hezkuntza Sai-

leko hainbat ordezkari. Hiart Cabrerak dioenez, bileran Hezkuntza Sailetik "zalantzan" jarri zuten 2009az geroztik lortutako akordioaren zilegitasun juridikoa, eta sindikatuetakordezkariak "sartu zirenean baino kezka gehiagorekin" irten ziren bileratik. Jokin Bildarratz Hezkuntza sailburuari haurreskolen etorkizunaz garbi hitz egiteko eskatu diote sindikatuek, eta egoera aldatu ezean otsailaren 22rako, 23rako eta 24rako greba deituko dutela iragarri dute.

## Elgetako frontoia

### IRATXE BRAVO

ELGETA

Hamar bat urte dira Elgetara bizitzera etorri nintzela. Erraz egokitu nintzen, eta astean hiru edo lau egunez frontenisean aritzeko talde bat ere osatu genuen. Umeak eskolan zeuden bitartean joaten ginen frontoira. Eskolak urtean pare bat hilabetez erabiltzen zuen soinketa klaseetarako, eta frontoiko jarduerak egiteko izaten zen.

Duela lau urte, maisu berria etorri zen eta klase gehienak frontoian ematen hasi zen. Askotan, frontoiko zati txiki bat besterik ez zuen erabiltzen –gimnasioa nahikoa zen–, eta frontoiko jolasekin zerikusirik ez zuten jarduerak egiteko –armiarma jolasa, patinak...–. Eguraldi ona aprobeztatuz, kanpoko kantxa ere erabil zezakeen. Kexa jarri genuen Udalean, eta esan ziguten ordenantzetan jartzen zuela eskolak zuela lehentasuna. Idatziz ez zen inon agertzen, eta bilera askoren ostean adostu zen astean bi egunez frontoia herritarren erabilera librerako izango zela. Eskatu

genuen, baita ere, erabilera libreko orduetan argia eskatuz gero argia bakarrik ordaintzea, ez erreserba osoa, baina ez zen onartu.

Pandemia egoeragatik frontoia itxita egon da. Gerora, zabalik baina erabilera baldintza berriekin. Hala, nahiz eta ordu libreetan eta argi barik, ordaindu egin behar zen. Ordainduta, antza, birusa ez da sartzen. Esan ziguten erreserbak egitea zela kontrolatzeko modu bakarra, eta, azkenean, erreserba egitea erabaki genuen, asteazkenetarako, 15:00etatik 16:00etara.

Zabalik da frontoia berriz. Maskarekin jokatu behar da, eta ordainduta, noski, baina erreserba konfirmatzera joan garenean sorpresaz jakin dugu eskolak duela lehentasuna, eta gerta dakigukeela jolastera joan eta okupatuta aurkitzea. Ez dakigu non dagoen jasota eskolak duela lehentasuna asteko egun guztietan.

Talde bat osatzea eta ordu bat adostea zaila da. Eskolak ezin du egutegi bat egin? Bestetik, itxiera perimetrala egonda ere kanpoko jendearen erreserbak onartzen jarraituko da?

Pena da herriak halako frontoi ederra edukita erabiltzaile ezberdinei zerbitzu egokia ez ematea. Badakit askorendako hau tontakeria bat dela, baina niretako ez. Talde txikia garenez, ez zaio garrantzirik ematen.

Ez dakit intentzioa zein den, baina badirudi ez dela nahi frontoia erabiltzea.

## Bergara herri hezitzailea izango bada

### LANDER JUARISTI LASA

BERGARA HERRI HEZITZAILEA TALDEAREN IZENEAN  
BERGARA

Hego Euskal Herriko herrietan 2021eko ekainerako 30 km/h mugikortasun abiadura muga jarriko da. Bergaran neurri hau martxan jartzeko erabakia aurreratu egin da, eta Debagoienean martxan jarriko duen lehen herria izango da. Bergara Herri Hezitzailea taldetik erabaki hau poztasunez hartu genuen. Neurriaren lehenengo helburua bide segurtasuna handitzea da, eta gutxiago kutsatzea ere eragingo du; herri hezitzailearen ikuspegitik era honetako neurriek onura handiak

dakartzatela uste dugu. Guk amesten dugun Bergara horretarantz urrats moduan ikusten dugu.

Azken hamarkadetan, ordura arte horren ohikoa zena arraro bihurtu da: haurrek beraien herriak oinez zeharkatzea jolasteko, ikasteko edo lagunekin elkartzeko guneetara iristeko. Poligonotik plazara joatea edo Martokotik igerilekura. Azken urteetan, gure herri eta auzoetan, oinezkoen mugikortasuna baino gehiago, kotxeen mugikortasuna lehenetsi da. Herriak kotxeek hartu dituzte, baita Bergara ere, eta beraientzat pentsatuta moldatu dira; hau guztiau, helduen mugikortasun behar edo nahie erantzunez, noski. Helduaren mesedetara diseinatutako mugikortasun eredu honek, baina, zuzenez zuzenean eragin du haurren, nerabeen eta zaharren mugikortasun autonomorako aukerak gutxitzea. Herrietako kaleak, puntu batetik bestera mugitzeko trantsiturako bide izateaz gain, jolaserako eta bizitza sozialerako espazio ere izan behar direla uste dugu.

Azken finean, abiadura mugatzearekin batera mugikortasun atseginagorako bidea egin nahi da, herritar guztientzat –adina edo egoera fisikoa edozein dela ere– irisgarria eta eroso den espazio publikorantz; erabilera anitzak eskainiko dituen; kutsadura atmosferikoa eta zaratak gutxituko dituen; kale lasaigoak eta seguruagoak lortuko dituen; arlo sozialean eta merkataritzan gertuko harremanak sustatuko dituen. Bergara herri hezitzailea izango bada, herritar guztien bizitza barne-hartzen duen herria izan behar dela uste dugu. Herri hezitzaileak guztiontzako, herritar ororentzako –izan haur, aitona-amona, migratu, emakume, anitzasun funtzionala duen pertsona, gazte...–, herri hobeagoa du helburu, hezkuntza prozesu gisa ulertzen du eta berau ardatz hartuta egiten du lan.

## Kaxa esne txar (II)

### IÑAKI IDIGORAS IGARTUA

OÑATI

Burua nahasturik daukagula adierazten dute, ez bakarrik Eroskiren esne kaxek; baita gure hizketan egiteko erak berak ere, kanpo erreferentziatik ia beti. Gu separatistak garela esatea, adibidez, euskaldunon berriz batzea helburu dukegunean. Edo beraiek unionistak direla esatea, gu zatikatu gaituztenean. Beren ikuspuntutik guk egindako pentsamolde eta esamoldeak dira. Beren moldean eginak, gure kalterako: ez dugu errealitatea geure ikuspuntutik interpretatzen. Inor gara.

Menpean hartuta gaituenak ikusi nahi gaituen bezala ikusten dugu geure burua, horren kontzientziarik izan gabe. Gogoz kontra baina kontzienteki egingo zuten men arbasoek konkista garaian, *sorgin* ehizatan berriro ez erortzeko, bizirauteko, Asiskoren *Sugarren mende* irakurrita ulertuko duzun moduan. Orain eta hemen ehizak jarraitu egiten badu ere, nago gehiengoak, beldurragatik baino gehiago, kontzientziarik ezagatik egiten dugula men, inertziatz, otzantasun ikasiaz. Inoren moldera moldatuta.

Abenduaren 3a dugu egun esanguratsua, gure euskal/nafar zatiketa gaintzeko sinbolo aproposa: Euskararen Eguna, Nafarroarena. Nortasunari, kulturari eutsi nahi badiogu, instituzio nazionalak berreskuratu behar ditugula iradokitzen diguna.

Zatiketak mina eragiten digu, baina anestesiatuta gaude jada, beren moldean preso. Pentsamoldeari arreta eskainita sentituko dugu moldearen bortxa, erreprimitutako emozio indartsua askatuz. Esne txarra batasunera bideratzen asmatuko al dugu!

Euskara alditik euskal arora pausoa emateko garai aproposa dugu datorkigun negua.

## Salaketa-gutuna Eskertza-gutuna Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali  
[gutunak@goiena.eus](mailto:gutunak@goiena.eus) helbidera!

## Erantzun-gutuna Aldarrikapen-gutuna Kexa-gutuna



ZABALIK

IMANOL GALDOS IRAZABAL

## Sendotasuna eta arima

Pandemiak etxeratzen behartu gaituen arte, azkeneko hamarkadetan arrakastatsu eraiki dugun ereduaz azalpen ugari eman dut munduan barrena. Bizitoki dudun Donostiaren aitzakiaz inoiz ez da Debagoienaren aipamenik falta izan. Unibertitate, Seminarioa, kooperatibak, euskara batua, Arantzazu... zerrenda amaiezina. Abiapuntua zein zen jakinda, mirakuluaren parekoa izan da lortutakoa, eta halaxe aitortzen digute. Arrakastarako bidea zein den galdetzerakoan, sofistikaiziotik eta liluratik urruti daudenak aipatzen ditut entegabe: lana sendo, sistematizazioa eta azalgeria gutxi.

Egoera aldatzearekin bat, XX. mendeko 60ko hamarkadan genituen pareko erronkak ditugu berriro ere aurrez aurre. Gauzak horrela, hurrengo hamarkadetarako narratiba berri bat ezinbestekoa zaigu.

### LOALDIAK LUZE JOKO BALU, ESNATZE ORDURAKO BERANDU IZATEAREN ARRISKUA ERE HORTXE DAUKAGU

Erantzunean asmatzea da gakoa, ordea.

Han eta hemen ezarrita dauden parametroak oinarri, zuzentasunaren esparruan adostutako erantzuna da egun gailentzen ari dena. Bi hitzetan laburbilduz,


hauxe da: zehaztasun urriko hitz potolo ugari, berrikuntza, kohesioa, gardentasuna, aniztasuna, kobernantea, jasangarritasuna eta enparauen formulazio estandarra, arima gutxiak eta izaera burokratikoak duena.

Bien bitartean, zelaia estutu egin zaigu, zahartu, inon ez bezala; baina, horren aurrean eta beharko lukeen erantzun sendoaren ordeko, kaltegarri den isiltasuna ezarri da, etorkizunari egin dakioken ekarpenik ahulena.

Berpizkunde errepikaezinaren ostean, loaldia nagusitu da eta bidean arima ere moteldu zaigu. Loaldia luze joko balu, ordea, esnatze ordurako berandu izatearen arriskua ere hortxe daukagu. Gehiegizko fedea eta ardura jarria dugu burokraten esku. Ez baita gauza bera plangintza baten kudeaketa eta etorkizuna sendo eta eraginkor eraikitze behar dugun lidergoa.

## MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



## HANDIK ETA HEMENDIK

### Gazteentzako lan duina?

F. JAVIER ARRIETA IDIAKEZ  
'TTAP'-EN ARGITARATUA

Gazteak dira etorkizuna. Izan beharko dute, halaberharrez. Zahartua dugu gizartea. Gazte gehienak berandu laneraten dira; asko, erdipurdiko baldintzekin. Horren aurrean zer egin?

Duela urte batzuk, Eusko Jaurlaritzak apustu garrantzitsua egin zuen, unibertsiteetan ere formakuntza duala ahalbidetuz. Estatuan Euskadi izan zen aitzindari.

Horrenbestez, unibertsiteko azken bi urteetako ikasleek irakasgai

batzuk enpresetan lan egiten gauza ditzakete. Bada, unibertsiteen eta enpresen arteko lankidetzak-hitzarmenak ugaritzen doaz.

Ezbairik gabe, unibertsiteetako formakuntza dualak gazteak lehenago laneratzeko ahalbidera dezake. Gainera, Jaurlaritzak hala aginduta, enpresek ikasleei ordaindu behar dizkiete, gutxienez, lanbide arteko gutxieneko alokairua (950 euro) eta bidaia-sarien kostua.

Hori guztiori bideratzeko, estatuko 2021erako aurrekontu orokorreari buruzko legeak ezarri du prestakuntzarako eta ikaskuntzarako lan-kontratu

baliatu beharko dela. Horrekin orain arte zegoen lege-hutsunea bete da. Bestela esanda, lan-kontratu izango dute ikasleek eta hitzarmen kolektiboetan xedatutakoa aplikagarri izango da. Langabezia-prestazioa kobratzeko eskubidea ere izango dute.

Alabaina, gazteek lan duina izateko zerbait gehiago behar da. Gazteek aukera ezin hobe bezala hartu behar dute hori, eta euren esfortzua ezinbestekoa da. Behin formakuntza duala eta ikasketak bukatuta, helburua ezin da izan langabezia-prestazioa kobratzea, ezpada lan-kontratu egonkor eta bidezkoak izatea.

goiena<sup>™</sup>  
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

**Argitaratzailea**  
Goiena Komunikazio Taldea  
Kooperatiba Elkarte  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

**Lehendakaria**  
Monika Belastegi.  
**Zuzendari nagusia**  
Iban Arantzabal.  
**Eduki zuzendaria**  
Eneko Azkarate.

**Erredakzio batzordea**  
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

**Zuzendari komertziala**  
Mireia Larrañaga.  
**Administrazio zuzendaria**  
Agurtzane Gaintzarain.

**Diseinu arduraduna**  
Iñaki Iturbe.  
**Hizkuntza arduraduna**  
Sergio Azkarate.  
**Harpidetza eta banaketa arduraduna**  
Igone Osinaga.

**Sailtetako arduradunak**  
Xabi Urtzelai (Kirola),  
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).  
**Maketazioa**  
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,  
Amaia Martínez de Arenaza.  
**Publizitatea**  
Mireia Larrañaga,  
Ziortza Martín,  
Amaia Mundiñano.

**Administrazioa**  
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,  
Nerea Artola.

**HARPIDETZA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
harpidetza@goiena.eus

**PUBLIZITATEA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
publi@goiena.eus  
**EGOITZA NAGUSIA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05  
Telegram eta WhatsApp:  
688 69 00 07  
berriak@goiena.eus

**Lege Gordailua:** SS-965/2014  
**ISSN:** 2174-369X  
**Tirada:** 19.000 ale  
**Difusioa:** 18.723 ale

**Inprimategia:**  
Zero Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldikari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

**Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua**



**EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA**



## BERBAGAI

# "Zaldibarren gertatukoa ezin da ahanzturan gelditu"

JANIRE LAZKANO ZALDIBAR ARGITU PLATAFORMA

Xabi Gorostidi ELGETA

Otsailaren 6an, urtebete beteko da Zaldibarko zabortegia amildu zela eta bi langile lurpean geratu zirela. Urteurrenaren atarian, plataformako kideen atea jo du GOIENAK, euren asmoen berri jakiteko.

**la urtebete pasa da Zaldibarko zabortegiko ezbeharretik, eta ordutik hona ez zarete geldi egon...**

Iluntasunaren erdian jaio zen plataforma. Hasieran, herriz herri hasi ziren erreakzio solteak, eta, handik gutxira, ekintzak koordinatzeko beharra ikusi genuen. Lehen ekintzen ostean, konfinamendua heldu zen, baina gure ekimenek ez zuten etenik izan: argazki solidarioak, balkoi apainketak, burrunbak... Uztailaren berriz ekin genien kale mobilizazioei, manifestazio jendetsua egin genuen Eibarren... Eta bai, ez gara geldi egon. Hiru ildo nagusitan antolatu gara:



Janire Lazkano, Elgetako frontoi zaharrean. XABI GOROSTIDI

langileak, osasuna eta erantzukizunak. Eta hala jarraituko dugu.

**Urri aldean erabaki zenuten Eskubide Sozialen Kartarekin batera herri akusazio gisa aurkeztea zabortegiaren**

**erortzearen harira egingo den epaiketan. Zergatik?**

Ba, aurretik aipatu ditudan mobilizazio eta aldarrikapenez gain, beste urrats egin behar genuela uste genuelako. Oso gertakari larria izan zela uste

dugu, eta, ia urtebete pasa arren, horren erantzukizunik ez da argitu. Gertatukoari buruzko egia falta zaigu, erabateko desinformazio egoeran eduki baikaituzte arduradun politikoei. Hala, horrek guztiorrek eraginda, herritarren ahotsak epaiketan egon behar zuela erabaki genuen.

**Zein lehentasun dituzue une honetan?**

Gai hau sozializatzen jarraitzea da horietako bat; ez dadin ahanzturan gelditu, eta benetako egia jakitea merezi dugulako. Bi langileak oroitzen jarraitzea eta euren senideei elkartasuna adieraztea da beste bat. Beste bat, nola ez, Joaquin lehenbailehen lurpetik ateratzea. Jada urtebete pasa da lanera joan zela eta etxera itzuli ez zela. Egia eta justizia eskatzen jarraituko dugu, eta baita era horretako beste ezbehar bat ez errepikatze bermeak ere. Hau ez errepikatze beharrezkotzat jotzen dugu zabortegiaren kudeaketa eta hauen kontrol lanak erabat publikoak izatea. Eta, azkenik, erantzukizunak argitzea: bai arlo pribatukoak, eta baita arlo publikoak ere. Azken finean, enpresa pribatu batek kudeatzen zuen Zaldibarko zabortegia,

erakunde publikoek hala nahi izan dutelako. Hasieratik eskatu genuen Arriola sailburuaren dimisioa. Orain, beste kargu publiko bat eman diote, baina uste dugu hau guztiau argitu arte ez lukeela herria ordezkatzeko kargurik izan behar.

**Berriki egin duzue Lagundu Argitzen jaialdi solidarioa, kultur arloko ikur askoren babesarekin...**

Ekimen polita izan zen, eta argi utzi zuen Zaldibar Argitu plataformak duen indarra eta babesa. Oso eskertuta gaude kultur arloko sortzaileek eman diguten babesarekin, baita aurrez zientzia arloko ikerlariek eman digutenarekin ere.

**Diru bilketa kanpaina bat ere abiatu duzue, lehen aipatu dugun epaiketako gastuak ordaintzeko. Ze bide daude ekarpena egiteko?**

*Itxulapikoa.eus* atarian sartu eta hiru ekarpen egin daitezke: 10 eurokoa egiten duenak pina izango du opari; 20 eurokoa egiten duenak, banderatoa; eta 50 eurokoa egiten duenak, pina eta banderatoa.

**Urteurrenari begira ekintzarik?**

Osasun egoera ikusita, A, B eta Z plana ere beharko dugu. Herriz herri antolatu beharko ditugu ekintzak, eta horretan ari gara buru-belarri.

## ITURRI ONETIK

## Websail berria estreinatuko du 'Ttap' aldizkariak

*Ttap* aldizkari digital multimediala websaila estreinatuko du apirilean – Internet bidez kontsumitzeko sortutako ikus-entzunezko saila-. Sei kapitulu osatutako umorezko websaila da, lau minutu ingurukoa bakoitza, eta IXA taldeak egin du; hau da, izen bereko websail saritua egin zuen lantaldeak. *Hau ez da niretzat* du izenburua eta etxer etxeko banatzaile baten gorabeherak ditu ardatz. *Ttap* aldizkaria eskuko telefonoetan eta tabletetan kontsumitzeko deskarga daiteke.

## ALBISTE IZAN ZEN

2006-01-27

## Debagoienar bi sarituak Argia sarietan

Fermin Etxegoien oñatiarrak eta Unai Loidi aretxabaletarrak jaso zuten 2006ko Argia sari bana. Lehenak, *Berria* egunkariko *Ekografia* iritzi zutabearengatik –telebistari buruzkoa–; bigarrenak, ETB1eko *Postdata* saioarengatik. Etxegoieni dagokionez, epaimahaiak nabarmendu zuen, besteak beste, "komunikatzaile ona" izanagatik eman ziotela saria; eta "elegantzia handiko kazetaritza" egitea, berriz, *Postdata*-ri dagokionez.



ARGIA

## HAU BE BADOGU!

## Zaintza greba, hizpide sare sozialetan

Martitzenean manifestazioa egin ostean traol erabiliaren artean izan da *#zaintzagreba*:

*@suah\_sua*: "Gaur Hego Euskal Herrian *#ZaintzaGreba!* Donostiako kaleetan berotasunak hotza urtzen du!".

*@mrafun*: "Atzo bigarren *#ZaintzaGreba* egin genuen Hego Euskal Herrian (bai, Nafarroan ere). Martxoaren 4an hirugarrena dator. Uholde hau gerezina da".

*@iskra81*: "Zaintzak giza eskubideak dira, ez negozio bat".

*@uonederra*: "Gaurkoa bigarrena izan da, indartsua hau ere".



Zuaz proiektuko talde eragilea osatzen duten hainbat erakundetako ordezkariak, eguazteneko bileraren ostean, gazteak aktibatzeako gonbidapenak eskuetan dituztela. E.A.

# Gizarte kohesioa jomugan hartuta

Txatxilipurdi Elkarteak eta Emun kooperatibak Zuaz proiektua jarri dute martxan. "Kulturartekotasuna oinarri hartuta, eta aniztasuna aberastasun moduan ulertuta, gazteekin eta gazteentzat egiten ari garen proiektu experimentalak da", adierazi dute

**Eneko Azurmendi** ARRASATE

Arrasateko nerabe migratzaileen inklusioan eta sozializazioan laguntzeko egitasmoa diseinatzeko behar bat antzeman ostean iritsi da proiektu hori. "Erronka horiei modu esperimentalean erantzun nahi diegu, eskualdeko hainbat eragileekin elkarlanean", azaldu du Iker Agirre Txatxilipurdi kideak. "Horrela, proiektu honetan modu berriarekin lotu nahi ditugu hiru esparruak, kulturartekotasuna oinarri izanik, nerabeak subjektu aktibo bihurtuz eta euskararen erabilera areagotzeko elkarrekin lan eginez".

Gipuzkoako Foru Aldundiaren *Etorbizuna eraikiz* dinamikaren baitan kokatzen da proiektua eta kulturartekotasuna, kohesioa eta gizarteratzea dituzte jomugan, nahiz eta oraindik hasiera fasean dauden, lehen urratsak egiten.

Aisialdi hezitzailean oinarrituko da egitasmoa eta nerabeak erdigunean jarriko dituzte, "aktore nagusi" izanez. Era horretan, bizi dituzten egoerekiko "ikuspegi kritikoa eta enpatia" lantzeaz gain, "helburu eta proiektu komun erakargarri baten bueltan", nerabeen inklusioa eta euskararekiko pertzepzioa hobetu eta erabilera handitzea gura dute sustatzaileek.

## Gazteekin eta gazteentzat

Zuaz proiektuaren berezitasunetako bat da gazteentzako eta gazteekin gauzatuko dela, "haien begiradatik eta haientzat", hain zuzen. "Proiektuaren parte inplikatu eta aktibo senti daitezen gura dugu. Hala, haien esku utziko dugu proiektuaren diseinua eta norabidea. Haien erabakiko dute mamia zein izango den, egin gura dutenaren ara-

bera", azaldu du Amaia Rodriguez Emun kooperatibako teknikariak.

## 10 eta 16 urte arteko gazteak

Dagoeneko egin dituzte lehenengo urratsak, Arizmendi Ikastolako eta Arrasateko Institututuko 10 eta 16 urte arteko ikasleekin hainbat saio eginda. Agirrek adierazi duenez, saioen ardatz nagusia aniztasuna izan da eta lau esparru edo alorretan banatu dute aniztasun hori: jatorri kulturala, sentimendua, genero identitatea eta hizkuntza.

Aniztasunaren baitan, alde batetik, aztertu gura izan dute gazteen senideen eta haiek dituzten erreferenteen jatorri kulturala zein den, esaterako. "Ondorioztatu dugun gauzetako bat da familia askotan migrazio mugimendu bat egon dela eta gaur egun ere badagoela". Bestetik, sentimendua ere landu

dute. "Jaioterria eta bizitokia gauza bat da, baina norbera nongoa sentitzen den ere inportantea da, eta sentitze hori izan daiteke askotarikoa, leku batekoa baino gehiagokoa, alegia". Azkenik, ikasleen genero identitatea eta hizkuntzen ulermena ere jorratu dituzte saio horietan.

Nerabeen erantzuna "oso positiboa" izan dela nabarmendu du Agirrek, eta "gustura" jardun dutela gai hauen inguruan berbetan. "Azken batean, errealitate zabal batean bizi dira eta egunerokoan bizi duten askotariko errealitate hori haien parte da. Ikusten da badutela sentsibilitate bat", gaineratu du.

## Jarraipena egin; ekarpenak jaso

Egitasmoak duen beste ertz garrantzitsuetako bat da talde eragilearena da (Ikus goiko zerrenda). Haien zeregina izango da, batetik, prozesuaren urratsak ezagutu eta jarraipena egitea, eta, bestetik, sustatzaileek planteatzen dituzten ideiak kontrastatzeaz gain, ideia berriak proposatzea. "Gainera, zeharka lantzen den beste arlo bat harremanena da, askotan oso harreman monogamoak ditugu eta. Harreman horietatik lankidetzako proiektu asko sortzeko aukera dago", azaldu du Agirrek.

## "Begi onez" ikusi dute

Bi ikastetxeek ere "begi onez" ikusten dute gorpuzten ari den proiektua. Gaztelupeko orientatzaile Maite Agirianok, esate-

## Talde eragilea sortu dute

Txatxilipurdiarekin eta Emunekin batera, talde eragileak jarraipena egingo dio proiektuari, ekarpenak egin eta jasotzeaz gain.

## Talde eragileko kideak:

- Liga de Mujeres de Sahara.
- SOS Arrazakeria.
- IMME.
- Activos por un Mundo Solidario (AMS).
- Ekin Emakumeak.
- Kale hezitzaileak.
- Udaleko Gazteria eta Aniztasun sailak.
- Arizmendi Ikastola.
- Arrasateko Institutua.

rako, halako proiektuak "oso beharrezkoak" direla azpimarratu du. "Batez ere, gazteei aukera emateko gai sozialen inguruan hausnartzeko, parte hartzeko eta subjektu aktibo izateko. Aniztasuna lehen planoan dago gaur egun eta inportantea da gai hau gazteekin eta gazteentzako lantzea".

Arrasate Institututuko ikasle-taburu Imanol Garmendiak, halaber, adierazi du "oso interesgarria" iruditu zaiela, aniztasunari ikuspuntu positibo eta eraikitzailea ematen diolako. "Arrasaten eta Euskal Herrian beharrezkoak dira halako proiektuak. Gainera, gure hezkuntza proiektuaren oinarrietako bat ere badenez, pozik hartu dugu".

## Gazteak aktibatzeako pausoa

Hurrengo urratsa gazteak aktibatzea izango da. Horretarako, gonbidapenak banatuko dituzte ikastetxeetan, eta otsailaren 7an, domeka, elkartuko dira, 11:00etatik 13:00etara –lekua zehazteke–. "Etortzen diren gazteak izango dira protagonistak eta haiek egin gura dutenari forma ematen joango gara; betiere, kulturartekotasuna oinarri hartuta", zehaztu du Rodriguezek.

**HURRENGO PAUSOAK ZEHAZTEN JOATEKO, OTSAILAREN 7AN SAIO BAT EGINGO DUTE NERABEEKIN**



E.A.

## "Aberasgarria da proiektua, beharrezkoa"

ISABEL MEDINA  
AMS-KO KOORDINATZAILEA

### Zer iruditzen zaizue proiektua?

Gazteen artean jatorri ezberdinak daude, eta, hori aintzat hartuta, ekimen aberasgarria bezain beharrezkoa da Arrasaten. Inportantea da gazteek euren artean elkartzeko inizatiba edukitzea. Proiektu honek ireki duen espazioak ahalbidetuko du gehiago elkar ezagutzea eta herria aberastea.

**Zein izango da zuen funtzioa proiektuan?**

Elkarte moduan, kulturartekotasunaren eta aniztasunaren alor guztiak jorratzen ditugu, eta gure esperientziaren bitartez laguntzen saiatuko gara. Gainera, pertsonalki ere laguntzeko prest nago. Izan ere, nikaraguar jatorriko seme bat daukat eta badakit zer den jatorri ezberdina edukita herri berean elkarrekin bizitzea.



E.A.

## "Gizarte gisa asko daukagu hobetzeko"

NORA UGARTEBURU  
SOS ARRAZAKERIAKO KIDEA

### Parte hartzeko aukera daukazue zuek ere.

Gustura onartu dugu parte hartzeko proposamena. Gaia modu positiboan lantzerantz bideratuta dagoen guztia begi onez ikusten dugu. Beti dago gai hauek lantzeko eta mahai gainean jartzeko beharra, gazteekin zein helduekin. **Beharra dago, beraz?** Bai. Gizarte moduan asko dugu hobetzeko oraindik. Ez daukagu lehengo uniformetasunik, baina hori gauza positibo moduan ikusi behar dugu. Askok oraindik ez dute onartu gura gizartea aldatzen ari dela eta are gehiago aldatuko dela. Alor horretan, gazteak pauso batzuk aurrerago daude helduak baino. Modu askoz naturalagoan ikusten dute kulturartekotasuna, eta, etorkizunari begira, uste dut gauza ona dela hori.



E.A.

## "Bide luzea eduki dezala proiektuak"

DJAMILA ZEREIBY  
IMME ELKARTEKO KIDEA

### Zer espero duzu lortzeko proiektu honekin?

Gazteak animatzeko behar handia dago, ekintza guztietan parte hartu dezaten eta haien artean sozializatu daitezten. Espero dut proiektu honek bide luzea izatea, eta askotariko estereotipo eta estigmak apurtzeko balio izatea, kulturartekotasuna beste begi batzuekin ikusi ahal izateko, aberastasun gisa. Uste dut hemen ondo lantzen ari direla gaia, oinarri sendoa dago.

### Parte hartzeko beharra duzue, elkarrekin gisa?

Bai. Guztiok elkar ulertuko dugun elkarte-puntu bat aurkitzea da gizarteratzea, eta egitasmo honek bide emango du, fisikoki zein birtualki izanda ere, elkar ulertzeko eta elkarrekin egoteko. Elkarrekin moduan, gure betebeharra da proiektuaren parte izatea.

## Otsail hasieran zabalduko dute berriro Musakolako igerilekua

Asteon hasi dira beiratea konpontzen, eta aurreikusten dute zortzi bat egun beharko dituztela lanak bukatzeko

E.A. ARRASATE

Martitzenean hasi ziren Musakolako igerilekuko beiratea konpontzen, urriaren 21ean haizeteak apurtu zuena, hain zuzen. Hiru Thermik enpresa hasi da lanok egiten, eta, haien aurreikuspenen arabera, zortzi egun beharko dituzte beirate osoa jartzeko. "Guztia prest daukagu haiek amaitu eta hurrengo egunean igerilekua ireki ahal izateko. Beraz, otsaileko lehen astearen bukaerarako edo bigarrenaren hasierarako zabaldu ahal izango dugu", adierazi du Ander Garayk, Kirol zinegotziak.



Langileak, martitzenean. E.A.

esleituta zegoen. Gero, atzeratzen joan da guztia".

### Konponketa, atzerapenarekin

Gaineratu du pandemia dela eta hornitzaileek arazoak izan dituztela materiala ekartzeko. "Apurtu eta hurrengo egunean guztia martxan jarri genuen eta azaro erdi ingururako kontratua

**Urtarrileko kuota, kobratu barik**  
Udalak itzuli ditu dagoeneko azaroko eta abenduko kuotak, eta urtarrileko gune hezeko kuota ez die kobratuko bazkideei.

## Emakumeen jabetze pertsonal eta kolektiboa sustatzea helburu

Emakume Txokoak 18 ikastaro antolatu ditu otsailetik maiatzera, eta hilaren 1ean irekiko dute izen-ematea

E.A. ARRASATE

Udalak adierazi duenez, "errealitatearen inguruan ikuspegi feministatik hausnartu eta eragiteko", prestakuntza da Jabetze Eskolaren ardatz nagusietakoa. "Horretarako, lanketa pertsonal zein kolektiboa uztartzen dituen jarduera sorta antolatu du Emakume Txokoak".

Hiru lan-ildo nagusi jorratuko dituzte ikastaro berrietan: osasuna eta gorputza; aisialdia, kultura eta sormena, eta feminismoa(k).

Lehenengoari dagokionez, bo-xeo, zoru pelbikoa indartzeko ikastaroa, *chi kung* eta bestelako saioak egingo dituzte.

Aisialdiaren, kulturaren eta sormenaren arloan, berriz, antzerki tailerra, sare eta teknologia berrietan trebatzeko ikastaroa eta eguneroko finantzak kudeatzeko ikastaroa.

Feminismoa(k) lan ildoaren baitan, azkenik, genero ondoezak eta emakumeen aurkako indarkeria, irakurketa feministen txokoa eta emakume migratuentzako topalekua egongo dira, eta Bidez Bide elkartearen bidez aholkularitza eskainiko zaie emakume atzeritarrei, "titulu homologazioari buruz".

### Izena emateko hiru bide daude

Otsailaren 1etik 5era eman ahal izango da izena ikastaroetan. Batetik, Emakume Txokoan aurrez aurre, astelehenetik eguenera 10:30etik 13:30era eta 15:00etatik 18:00etara eta egubakoitzetan 10:00etatik 14:00etara. Bestetik, 943 79 41 39 telefono zenbakira deituta edo 618 20 62 33ra *whatsapp* bat bidaliz. "Otsailaren 8tik 12ra bitarte jakinarazi beharko da ikastaroetan parte hartuko den ala ez".

## Ikasleekin hainbat saio egin dituzte

Arizmendi Ikastolako eta Arrasate Institutuko 10 eta 16 urte arteko gazteekin hainbat saio egin dituzte orain arte, ikasgeletan. "Saio horiek, hasiera batean, Arrasateko hainbat espaziotan irudikatzen genituen, guztiak nahastuta, baina, pandemiak eraginda, gelaz gela landu behar izan ditugu gaiak", dio Txatxilipurdiko kide Iker Agirrek.



Arizmendi Ikastolan eta Arrasate Institutuan egin dituzte saioak. ZUAZ PROIEKTUA

# 60 gaztek jaso zuten iaz alokairurako laguntza

Arrasateko Udalak 66.610,06 euroko inbertsioa egin zuen, 2020an, 18 eta 35 urte arteko gazteei alokairua ordaintzen laguntzeko. Aurreko urteekin alderatuta, eskaera kopuruak nabarmen egin du gora 2020an, eta aurten ere mantenduko dira laguntzak

**Eneko Azurmendi** ARRASATE

Alokairua ordaintzeko dirulaguntza jasotzeko 68 eskaera jaso ditu Udalak 2020an, eta 24 eskatzailek aurrez ere laguntza hori jasotzen zuten. Era berean, 36 eskaera berri egon direla azaldu du, eta zortzi eskaera ukatu egin ditu, "onuradun izateko baldintzak ez betetzeagatik". Halaber, eskaera egin dutenetatik 40 dira emakumezkoak eta 28, berriz, gizonezkoak.

Eskaera motaren arabera, 51 norbanakoak dira -%75-; bizikidetzaren unitateak, berriz, 17 dira -%25-. Adinari erreparatu, bestalde, 26-30 urtekoak dira gehienak -%60,29-; 18-25 urte bitartekoak %20,59 dira eta 31-35 urtekoak, %19,12.

2017an hasi zen Arrasateko Udala laguntza horiek herritarren eskura jartzeko, eta urtero 45-55 eskaera artean jaso izan ditu orain arte. Beraz, hazkunde nabarmena izan du 2020an eskaera kopuruak.

## 2021ean ere, jarraipena

Maitane Muñoz Gazteria Saileko zinegotziak nabarmendu du Udalak jarraipena emango diola dirulaguntza lerro horri 2021ean ere, horretarako beharra ikusten duelako eta erantzun ona izaten ari delako: "Udal Gobernuak horrelako laguntzen alde egiten duen apustua irmoa da. Gazteek etxebizitza bat eskuratu ahal izatea ezinbesteko urratsa da euren bizi-proiektua garatzeko. Erraztasunak ematen segitzea dugu helburu, bereziki herri honen etorkizuna direnei, herrian bertan bizi daitezen".

## Hainbat baldintza bete beharra

Hain zuzen, eskatzaileek 18 eta 35 urte bitarteko adina izateaz gain, Arrasaten erroldatuta egon behar dute, "azken hiru urteetan etenik gabe, edo etenekin gutxienez 10 urtetan". Halaber, Muñozek zehaztu du



Arrasateko hainbat etxebizitza. Eskuinean, Otolara Lizentziaduna kalekoak. E.A.

## 2017TIK, ESKAERA KOPURU HANDIENA IZAN DA 2020AN: 68; ORAIN ARTE, BATEZ BESTEKOA 45-55 ZEN

gazte horiek ezin dutela etxebizitzaren jabetzarik izan laguntza jaso gura badute, "ez eskatzaileak ezta bizikidetzaren unitateko kideetako inork".

Bete beharreko beste baldintzetako bat da alokatutako etxebizitzan bizi diren pertsona guztiak bertan erroldatu behar dutela, eta honako hauek izan daitezke eskatzailearen diru sarrerak, gehienez: 29.000 euro gordin urtean, eskatzailea norbanakoa bada; eta 40.000 euro gordin urtean, eskatzailea bizikidetzaren unitate bat bada.

Udalak azpimarratu duenez, gainera, etxebizitza partekatzen duten gazte guztiak jaso ahal izango dute dirulaguntza, "denek sinatzen badute alokairu kontratua eta baldintzak betetzen badituzte". Hori bai, zinegotziak ohartarazi du onuradun guztiak eguneratuta izan beharko dute-

la Arrasateko Udalaren zerga, tasa eta zehapenen ordainketa.

Diru sarrerei dagokionez, onuradunek ezin izango dute urtean 600 eurotik gorakoa izan kapital errentetatik eratorritako errendimendu gordinen zenbatekoa. "Azkenik, ezin izango da familia loturarik izan onuradunen eta errentatzailearen artean", nabarmendu du Muñozek.

## Urtebeteko kontratua, gutxienez

Azkenik, laguntza jaso ahal izateko etxebizitzaren alokairu kontratuak gutxienez hamabi hilabeteko iraupena izan beharko duela jakinarazi du Udalak, eta etxebizitza alokairuaren prezioak gehienez hileko 650 eurokoa izan beharko duela, "eranskinak barne". Halaber, "alokairutik edo diruz lagundu daitezkeen kontzeptutik kanpo geldituko dira garaje, komunitate eta administrazioko gastuei dagozkienak", eta alokairuko hileko kuotatik 30 euroko zenbateko finko bat kenduko zaie gastu horientzat, "alokairu kontratuan sartuta badaude eta ez bada aurkezten horietako bakoitzaren hileko kostuaren berariazko justifikaziorik".

## GORA ETA BEHERA



E.A.

## Eskailera publikoak, eskubandarik gabe



Herritar baten kexa da hau: "Maiatzaren Bata plazako eta Uarkape ondoko eskaileretan zergatik ez dago eskubandarik? Legez horrela beharko luke, eta zentzuzkoa ere bada".

**EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?** [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) edo [688 69 00 07](tel:688690007).



NIRE USTEZ

ITSASO ERRETOLATZA

## Eraldatzen

Irakurria dut Margaret Thatcherrek gizonen rola hartu zituela onartua izan zedin, lehen ministro emakumezko gisa.

Irakurri dut Angela Merkelen janzkera soil eta apainduran urria estimatua dela. Irakurri dut Jacinda Ardenek iruditeria zaintzen duela, zer eta nola esaten duen. Herritarrei maoriz eskertu zaiela, eta haien mantua soinean ere eraman duela protokoloetan.

Irakurri dut Kamala Harrisek oso zaintzen duela zer aditzera eman. Sufragisten traje zuriz, edo langileen antzera zapatiletan. Ozen esan du lehena bai baina bakarria izateko asmorik ez duela.

Beste muturrean ikusten ditugu, ordea, On Kixoteren bizar puntadunarekin. Zein gorbataren korapilo bikoitzaren handitasunarekin. Argazkiei erreparatu eta zenbatu besterik ez da egin behar, kontatu, zenbat halako eta bestelako, oraindik.

Irakurri nahiko nuke emakumezko lehen lehendakariaren izendapena. Irakurri nahiko nuke emakumezko lehen lehendakariaren izendapena.

Izenak dakarrelako izana. Ikusi eta entzun nahi dut, izatetik eraldatzen.

## Martxoaren 8aren bueltako kartel lehiaketa martxan da

24. aldia izango da aurtengoa. Edozeinek parte hartu ahal izango du eta teknika libre izango da. Hori bai, kartelek *MAR-TXOAK 8* testua derrigorrez eduki beharko dute, eta baita esaldi hau ere: *Inor kanpoan geratu ez dadin, feminismoa aurrera!* Informazio gehiagorako, Emakume Txokora deitu: 943 79 41 39 edo 618 20 62 33.

## OHARRAK

### Aratusterik ez aurten

Arrasateko Udalak, jai batzordeak eta SUDCek bat, aurreko astean eman zuten hartutako erabakiaren berri.

### Uribarri: kuota

Uribarriko Erretiratu Etxea hasi da dagoeneko 2021eko kuota kobratzen. Martitzenetan eta eguenetan egongo da ordaintzeko aukera, 18:00etatik 20:00etara.

# Alde zahar osora zuntz optikoa noiz iritsiko zain

Erdigune historikoko bizilagun eta erabiltzaileak "kezkatuta" daude telekomunikazio zerbitzu "duinik" ez daukatelako oraindik, eta bilera egingo dute gaur, Kulturaten, aurrerapausoak emateko asmoz; Udalak adierazi du gaia juridikoki lantzen dabilela

**Hasier Larrea** ARRASATE

Alde zaharrean euren jarduerak garatzen duten Ardatz, AEK, Idiomaster eta Parlance akademiak "antzeko arazoak" partekatzen dituztela eta, irakurketa bateratua egin eta bilkura antolatuta dute gaur arratsalderako, 19:00etan, Kulturaten, erdiguneko bizilagun eta erabiltzaileekin batera "mugimendu egonkor eta zabalago bati testigua emateko". Halaxe azaldu ditu aurrera begirako asmoak Ardatz akademiako irakasle Josu Zugastik, zehaztapen gehiago emanda: "Pandemiak dependentzia digitala areagotu du eta ADSL linea zaharkituekin jarraitzen dugu lan egiten Ferrerriasko, Erdiko kaleko eta Iturriotzeko negoziook; jakin badakigu operadoreek 2024rako ezabatuko dutela zerbitzu hori".

Hain zuzen, Udalak alde zaharren birgaitze plan berrian zuntz optikoa instalatzeko epeak ez zehaztu izana da erabiltzaileak arduratzen dituen kontuetako bat. Hirigintza Sailari horri buruz galdetuta, zuntza legalki bermatzeko ordenantza idazteko "urtebete inguru" behar izango dutela adierazi du Juan Antonio Urdangarin teknikariak.

Auzia uste baino konplexuagoa dela gaineratu du Urdangarin: "Operadore askorekin negoziatu dugu, eta gehienek errentagarri irteten ez zaiela argudiatzen dute". Aitzakia hori indargabatu eta herritarren interesak babesteko helburuarekin, telekomunikazioaren gaineko araudi berria prestatzen ari da Hirigintza Saila, PER planaren barruan: "Alde zaharra eraberritzeko gainontzeko hemeretzi proposamenekin batera tramitatuko da zuntz optikoaren gaineko ordenantza; Udalari tresna juridikoa eskainiko dio telekomunikazio enpresek hortzak erakusten badigute", adierazi du Hirigintzako teknikariak.

**Gestel-en eskaintza**

Gestel operadorea da, hain justu, egungo baldintzak onartzen dituen enpresa bakarra. Dagoeneko jaso ditu 30 erabiltzaile ingururen eskaerak. Hala ere, Zugastiri ez zaio "justua" iruditzen operadorearen eskaintza: "Negozioei begira egina dago, familientzat garesti irteten da, eta Internet zerbitzua baino ez du instalatzen". Izan ere, Ibaiarte eta Udalarengandik irten dako inizatiba izan dela aipatu du Urdangarin: "Araudia betez, antena jartzeko lursail bat alokatu du Gestelek, eta orain, zerbitzua komertzializatzen dabilta".

**Karkabekin zalantzak**

Udalak zuntz optikoa karkabene edo eraikinen artean dauden kalexka estuen bitartez instalatzeko asmoa duela iradoki zuen

**URGENTZIAZKO ERABAKIAK HARTZEA ESKATZEN DUTE HERRITARREK, LINEA HOBETZEKO BIDEAN**



Udaletxeak zuntz optikoa dauka eta beste eraikin gehienek, ADSL linea. GOIENA

joan den astean. Bizilagunek harriduraz hartu zuten baieztapen hori: "Eraikin guztiek ez daukate karkabak; ondorioz, planteamendu hori ez da guztiz egingarria", dio Zugastik. Urdangarinnek erantzun du karkabak ez dauden etxeetan "hodiak txertatu ditzaketela" esanez.

**Udalaren "kontraesanak"**

Alde zaharreko erabiltzaileek salatu dute Udalak gaia "nahastu" egin duela. "Lehenengo, zuntz optikorik jarriko ez zutela esan ziguten; gero, Gestelek jarriko zuela; gero, karkabetatik joango dela... Mezu kontraesankorrek iruditzen zaizkigu, zehaztasun gabekoak; ondorioz, honako galdera hau datorkigu burura: erreala da konexio gabe gelditzearen aukera?", esan du Zugastik, eta hau gaineratu: "Udaletxeak badauka zuntz optikoa; beraz, zeren zain daude gainontzeko eraikinetan instalatzeko?".

Herritarrek "borondate politiko falta dagoela" uste duten bitartean, Udalak "juridikoki gai konplexua dela" aitortzen du. Argi dagoena da konexio digitala inoiz baino beharrezkoagoa dela gaur egun.



Nerea Lazpiur, Tokiko Garapen teknikaria, lokalen jabeen egitasmoa azaltzen. H.L.

## Lokal hutsetan negozio berriak sustatzeko proiektua, martxan

Udalak, negozio-etxe hutsak merkaturatzeko asmoz, "ideiak emateko panelak" jarriko ditu 11 erakuslehotan

**H.L. ARRASATE**

Merkataritzako proiektuak has-teko gogoarekin egon daitezkeen ekintzaileei begira, lokal hutsetan kalearekin osagarriak diren negozio eredu berriak proiektatu ditu Arrasateko Udalak. 11 lokaletako erakuslehotan jarriko dituzte, datozen asteetan hasi eta urtebeteko epean, espazio bakoitzerako diseinatu dituzten negozio proposamenak.

Losada Diseinu-obra SL enpresa arduratu da komertzio eredu berriak dinamizatzeko proiektuaren alderdi teknikoaz: "Komertzio arrunten eredueta-

tik alden du gara, guneetan jendearen parte hartzea bultzatzeko: *coworking* bulegoak, estanzapazio tailerra, artisautza galeria eta argiztapen denda-tailerra iradokitzea izan da gure ekarpena", aipatu du Eli Zubiate Losadako diseinatzaileak.

Udalak 16.700 euro jarri ditu proiektu horretan. Orain arteko prozesuaren berri eman du Nerea Lazpiur teknikariak: "Lehenik, 16 lokal hutsten jabeen eskaerak jaso eta baldintzak betetzen zituztenak onartu genituen; horren ostean joan ginen Losadako diseinatzaileengana".

## Bi liburu aurkeztuko dituzte aste honetan gaztetxean

Asteartean, 'Zaldibar. Zona cero' aurkeztu zuen Ahoztar Zelaietak; bihar, Asisko Urmenetaren txanda izango da

**H.L. ARRASATE**

AGAKOk antolatuta, joan den astearte arratsaldean, Ahoztar Zelaieta ikerketa-kazetariak hartu zuen hitza gaztetxean, Zaldibarko zabortegean iaz jazo-tako istripuaren bueltan osatu duen lanaren nondik norakoak azaltzeko. Gaiak "espero baino interes handiagoa" piztu duela azaldu zuen Zelaietak hitzaldian, "kontuan hartuta toki konkretu batean gertatutako *affaire* bat" deskribatzen duela liburuak.

Testigantzetan oinarritutako kontaketa egin duela azaldu du

idazleak: "Zaldibarko herritarren, zabortegearekin zerikusia daukaten pertsonen eta auzia iker-tzen dabilzan profesionalen hitzak jaso ditut *Zaldibar. Zona cero* liburuan". Zabortege horren jabearen eta bere bazkideen jardueren jarraipena ere egin duela gaineratu du bilbotarrak.

**'Sugarren mende', zapatuan**

Izen hori jarri dio Asisko Urmeneta marrazkigileak sorgin-ehizari buruz ondu duen komikiari. 17:30ean hasiko da iruindarrak egingo duen hitzaldia.

# "Ziklista euskaldunak dira Astanaren oinarria"

**IVAN VELASCO** ASTANA PRO TEAM TALDEKO TXIRRINDULARIA

Benidormen bi astez taldekideekin egonaldia egin berritan, arrasatearrak 'Harmailatik' saioan errepasatu zuen Kazakhstango taldearen egunerokoa

**Xabier Urzelai** ARRASATE

Astana Pro Team taldean ardu-gehiago izango ditu Ivan Velascok denboraldi berrian (Arrasate, 1980), besteak beste, Vinokurov-ek zuzentzen duen taldeko teknikoen arduraduna izango da eta. Bi astez 60 lagunetik gora egon dira Benidormen egonaldia egiten, eta erdiak baino ez dira ziklistak.

**Zer moduz egon zarete Alacant aldean?**

Ondo, normaltasunez ibili gara. Abenduan ezin izan ginen elkartu eta ziklistak euren etxetan ibili dira entrenatzen. Eta bi aste hauetarako pilatu egin zaizkigu lanak: ziklistek osasun azterketak zituzten, errendimendu probak... Baina entrenatzeko eta probak egiteko baldintza egokiak izan ditugu, 10-15 graduko tenperatura... Antolaketa aldetik, baina, osasun neurriengatik, erronka izan da horrenbeste jende batzea.

**Inor etorri al zaizue komeni zena baino turroi gehiago janda?**

Ez, ez... Kar, kar, kar. Nik uste dut gure sasoiaren halako deskuidu gehiago izaten zirela; gaur egun, txirrindulariak oso profesionalak dira eta badakite negu partean ere zaindu egin behar dutela. Akaso, norbait egongo da bizpahiru kilo hartuta, baina gehiago ez.

**2021ean ardura handiagoak izango dituzu taldean. Zein izan da orain arte egin duzun lana?**

Orain arte, erlojupekoak aztertzen ibili naiz, eta baita taldeak erabiltzen zuen materiala ere. Eta, horrekin batera, ziklisten datuak taldeko entrenatzaileekin batera aztertzea izan da nire lana. Hala, aurten, lan horiek egin beharko ditut, baina, horrekin, batera taldeko teknikoen arduraduna ere izango naiz, eta, besteak beste, babesle teknikoe-kin hartu-eman izango dut, produktuak hobetzen joateko. Hobekuntzak taldearendako onak



Ivan Velasco, astelehenean, Goiena telebistako platoon. X.U.

## "VLASOV-EKIN ITALIAKO GIROA IRABAZTEA DA HELBURU NAGUSIETAKO BAT"

izango dira, baina baita babesleendako ere, produktuak hobetzea da-eta asmoa: bizikletak, gurpilak, kaskoak...

**Eta, pozik, Benidormen probatu ahal izan duzun materialarekin?** Bai. Bizikleta etxea ez dugu aldatu; iaz hasi ginen Willier-ekin, eta oso pozik gaude. Egin dugun aldaketa bakarra kubiarta etxean izan da; Vittoria etxeko tubularrak probatu genituen neguan, eta ikusi genuen azkarragoak zirela, eta eurekin hasi gara lanean. Eta, bizikletei dagokionez, erlojupekoko eta errepideko bizikletek koadro berbera izango dute 2021ean, baina aurten hasiko gara 2022ra begira erlojupekoetarako koadro berri bat diseinatzen, eta markarekin elkarlanean egingo dugu lan hori. Hartu-eman zuzena izango dut etxeko ingeniariarekin, eta dagoeneko zehaztuta dugu noiz

egingo diren haize-tuneleko probak, noiz joango garen ziklistekin belodromora...

**Taldeko nagusiak, Vinokurovek, adierazi du hiru asteko itzuli bat irabaztea izango dela taldearen helburuetako bat, eta Giroa duzue begiz jota.**

Izan ere, nik uste dut Italiako Giroan ditugula talde moduan aukera gehien. Vlasov [Aleksandr] izango da gure liderra eta aurrerantzean ere bera izango da hiru asteko lasterketetan izango dugun liderra. Jakob Fuglsang ere hor dugu, baina ikusi dugu hiru asteko lasterketak luze geratzen zaizkiola. Aurten, Tourrera joango da, baina beste rol bat izango du, etapak lehiazera joango da, mendia irabaztera... Eta gainontzekoek ere Tourrean askatasun handiagoa izango dute.

**Horren ona da Vlasov, taldeak halako apustu garbia egiteko?**

Datuei erreparatuta, inoiz ikusi dudan ziklistarik onena da. Podiumaren bueltan ibiltzeko moduko gaitasuna dauka.

**Dena dela, aurten ere taldeko ziklista euskaldunek ekarpen handia egingo dute errepidean eta errepidetik kanpo, seguru.**

Beti esan ohi dut, eta taldeko entrenatzaileekin ere komentatu izan dugu, ziklista euskaldunak direla, neurri handian, Astanaren oinarria markatzen dutenak. Izagirretarrak, Omar Fraile, Alex Aranburu, Oscar Rodriguez... Horiek dira oinarriaren zati handia, Luisle [Luis Leon Sanchez] ere hor dugu... Eta horien ondoan jartzen ditugu ziklista gazteak, ikas dezaten.

**Astana taldea alde batera utzita, oraingo astean Jumbo Vismako Tom Dumoulin izan da albiste. Ziklismoa alde batera utzi gura dela denbora batez, ziklista izaten jarraitu gura duen ala ez ikusteko.** Esan dezakedana da %100 dakidala zer den Dumoulinek sentitzen duena. Izan ere, sarritan komentatu izan dut orain askoz ere zorientsuagoa naizela ziklista nintzenez baino, eta uste dut horrekin dena esaten dudala. Kasu honetan, Dumoulin ausarta izan da bere sentipenen berri eman duelako eta erabaki zaila hartu duelako.

**Horrek erakusten du elitean kirol psikologiak izan dezakeen garrantzia, eta oraindik bide luzea dago hor egiteko.**

Zalantza barik. Beti diot gauza bera: duela hamabost urte inguru hasi ziren entrenatzaileak ekarpen galanta egiten, duela bost urte inguru aerodinamika-ekin txirrindularitzako teknika lantzen hasi ziren, duela hiruzpalau urte nutrizioari dagokionez aurrerapauso handia egon da, eta hurrengo pausoa izango da mentalki ziklistek lan egitea. Izan ere, txirrindulari profesionalak presio galanta izaten du, eta hor ere aurrerapauso handiak eman daitezke. **Amaitzeko: domekan zentimetro gutxigatik egin zion ihes Mikel Aristiri denboraldiko lehen garaipenak...**

Bai, lastima! Whatsapez izan nintzen ondoren Aristirekin hizketan, eta gertu izan zuen garaipena, bai. Harreman estua dut harekin; duela bi urte, bizikletaren neurriekin laguntzeko eskatu zidan, eta aurtengo neguan ere egin dugu lantxoren bat edo beste. Izango ditu aukera gehiago, seguru.

**Bide batez, kolore urdina da zurea, baina laranja hor ikustea...**

Berezia da. Gainera, taldekide askorekin dut harremana; gure garaiko babeslea errekuperatu dute... Pozgarria da Euskaltel ostera ere hor ikustea.



Lorenzo baloiarekin. GOIENA

## SASKIBALOA Easoren kontra amaituko dute lehen itzulia

Joan den astean Errioxan irabazi eta gero (69-81), MUK lehenengo postura egin du salto, Ardoirekin batera; izan ere, nafarrek galdu egin zuten aste bukaeran, Zarautzen kantxan. Hala, oraingo asteburuan, zuri-moreek derbiarekin amaituko dute lehenengo itzulia, Easo talde donostiarra izango da-eta Iturripen. Kontrario arriskutsua da etxekoendako.



Deustoren kontrako partiduan. GOIENA

## ESKUBALOA Lider dagoen Escolapios, Iturripen

Ford Mugarri Arrasate nahi baino zailtasun gehiago izaten dabil Euskadiko Txapelketan, eta jokaturako hiru jardunaldietan oraindik ez dute garaipenik batu. Arrasatekoek joan den astean 31-24 galdu zuten Zarauzko Txikipoliten kantxan. Hala, jokaturako bi partidua irabazita lehenengo postuan dagoen Eskolapiosen bisita izango dute asteburuan etxean.

# "Norbera ezagutzeko oihua da nire ipuina"

NOELIA FERNANDEZ ABOKATUA

Pertsona ororen garapenean sinesten duen emakumeak bere baitan "lozorroan" egon den pasioa berreskuratu, eta haurrentzako eta helduentzako liburua kaleratu du

Hasier Larrea ARRASATE

2020ko Durangoko Azokarako argitaratu zuen Legution bizi den arrasatearrak *Ekhi, mago izatea amesten zuen umea* izeneko ipuina. Hezkuntza zentroen atentzia ere erakarri du lanak.

**Abokatu izanda, nolatan otu zitzaizun ipuina idaztea?**

Gorputzaren Terapia Integrati-boa izeneko ikastaroa egiten nabilela, idazteko ilusioa berpiztu zitzaidan. Formakuntza horrek lagundu zidan ulertzen idaztea nire izatearen zati bat dela. Baita desberdin egiten nauena ere. Berezitasun horiek berreskuratzea da, hain zuzen ere, nire lehen liburuan ezkatutako mezueta bat.

**Nolako izan da sormen prozesua?**

Luzea. 2018an idatzi nuen ipuina, eta nire semeekin, ilobekin eta gertuko lagunekin bakarrik partekatu nuen. Gero, lozorroan egon zen, harik eta konfinamendua iritsi zen arte. Orduan hasi nintzen pentsatzen Ekhi lagundu ziezaikeela haurrei egoera zailei aurre egiten. Halaber, atximur moduko bat izan daiteke helduentzat ere, beren bizitzetara buruz hausnar dezaten.

**Ilustrazioak ere badauzka. Nork egin ditu?**

Julie Rousseau ilustratzaileak. Hasieran aipatu dudana forma-



Noelia Fernandez, etxean, *Ekhi, mago izatea amesten zuen umea* liburuarekin. N.F.

kuntza partekatu nuen lagun frantses bat da bera, oso sentiberatasun berezia duen pertsona. Hori gutxi balitz, azti bat da pintzelekin. Marrazkietan kapitulu bakoitzak ezkatzen dituen emozioak islatzea lortzen du.

**Umeak irakasle txikiak direla esaten duzu. Zer irakatsi dizute zuri?**

Unea sakonki bizitzen. Semeekin jazotako adibide bat jarriko dizut: bihotz formako harri bat aurkitu genuen urtegiaren paseatzen, eta batek maitasuna izateko desioa eskatu eta uretara botatzea proposatu zuen. Harria

bota genuenean, triste jarri zen semeetako bat, desioa alferrik galdu dugula argudiatuz: "Maitasuna bihotzean dago, eta bihotza gure baitan; beraz, inoiz ez zaigu maitasunik faltako. Desioa alferrik galdu dugu. Beste edozer eska genezakeen!". Ez al da lezio ederra?

**Mezu hori helarazten du ipuinak?**

Haur bakoitza den bezala ezagutzeko oihua da nire obra. Mezu hori hezkuntza arruntaren aurka doa, denok gauza berak ikasi behar baititugu, produktu bera bihurtzeko. Hala ere, Arra-

saten zorte handia dugu, hezkuntza-eredu batzuek argi eta garbi egiten dute bide horren aurka. Gero eta garrantzi handiagoa ematen zaio hezkuntza emozionalari eta desberdintasunak garatzeko aukerari. Baina, zoritxarrez, ez da ohikoa. **Irakurleek iritzirik partekatu al dute zurekin?**

Bai, noski! Asko gustatzen zait ume batek deitu eta esaten didanean: "Noelia, izugarri gustatu zait zure ipuina. Ni musikaria izango naiz. Lortuko dut". Helduen artean ere feedbacka positiboa izaten ari da. Duela gutxi, emakume batek idatzi zidan, liburuagatik eskerrak emanez eta ama gisa asko lagundu niola esanez, baina, batez ere, bere bizitzan hartutako erabakiei buruz hausnartzen lagundu niola azalduz. Ez dago ezer atseginagorik. Eta aurkitu berri dudana, irakasle eta psikologoaren arloa da. Hainbat ikastetxetako irakurketa eta etika eskoletarako material didaktiko gisa baloratzen ari dira.

**Ume izatearen bertuteak gorapatzeko dituzu. Zeintzuk dira horiek eta nola bilakatzen dira?**

Haurrek koherentziaz sentitzen eta jokatzeko dute, eta euren emozioak benetakoak dira. Tristuratik barrez lehertzer pasatzen dira segundotan; helduak, ez. Gu emozioei lotuta gaude, haiek perbertitzen ditugu, politikoki zuzena denaren alde eginez. Gainera, barneratu dugu gizarteak onartu egin behar gaituela, eta ez dago ezer gogorragorik ezta irrealagorik ere. Benetan ahazten dugu nor garen, eta okerrera da konturatu ere ez garelako egiten.

**Kosmoipuinak webgunea ere sortu duzu. Diseinua bera deigarria da, unibertso baten antza baitauka.**

Bai, nirea da atariaren diseinua, baina bi kritikari gogor izan ditut alboan laguntzean: nire semeak, hain zuzen.

**Zer dago izarren atzean zuri hain erakargarri egiten zaizuna?**

Carl Sagan-ek esan zuen bezala, izar-hautsa gara. Pertsona bakoitzak bere barnean unibertso eder bat ezkatzen du, gutxi ezagutzen duguna. *Kosmoipuinak*.eus nireari irekitako leihoa da. **Eta webgune horretan ipuina eskuratzeko denda ere badago.** Bai; Izar Kioskoa deitzen da, eta, bertan klik eginda, harremanetarako formulario bat irreteten da, banatzaileei, elkarteei eta ikastetxeei *Ekhi, mago izatea amesten zuen umea* saltzeko aukera eskainiz.

**Izen bitxiko planetak ere agertzen dira Kosmoipuinak-en.**

Nire unibertsoa osatzen duten planeten izenak dira: *Nankurunaisa*, *Kumara* eta *Cariope*. Lehenak japonieraz *ez da gaitzik denborak ez daramana* esan nahi du; bigarrena nire hurrengo liburuari eskainitako planeta da; eta azkena, berriz, oraindik eraikitzen ari den astroa.

**Kosmoikastaroak antolatu nahian zabilta. Ipuinak idazteko tailerra izango da, edo zerbait gehiago?**

Asko gustatzen zait garapen pertsonala, eta espazio hau horretara bideratuta egongo da. Ideia asko eta oso desberdinak ditut buruan, haurrentzako zuzeneko ipuin kontaketa eta helduentzako ikastaro trinkoak, besteak beste.

**"KONTAKETAK NORBERE AMETSAK BETETZEKO INOIZ EZ DELA BERANDU ADIERAZTEN DU"**

## 'Mendian hil, hirian hil' filma, berriro ikusgai Amaia antzokian

Urtarrilaren 12ko proiektioaren "arrakasta" ikusita, beste emanaldi bat egingo dute datorren asteartean

H.L. ARRASATE

Interesa piztu zuen Mendi Film jaialdian saria jaso zuen *Mendian hil, hirian hil* dokumentalak, "herritar asko gelditu baitziren lehen proiektio horretaz gozatzeko irrikaz, aretoan sartu

ezinik", Karmelo Alberdi Kultur teknikariaren arabera. Arrazoi horregatik erabaki dute filma berri ere proiektatzea; gauzak horrela, otsailaren 2an, 19:00etan, hasiko da emanaldia, eta sarre-askura eskura daitezke jada.

Eñaut Elorrietaren kontzertua

Bestalde, mugikortasun-mugak direla eta, arrasatearrek bakarrik izango dute aukera *Beste bat!* dinamikaren baitan antolatu den Eñaut Elorrieta musikariaren kantuez gozatzeko. Ondorioz, herritik kanpo bizi direnek erositateko sarrerak salgai jarriko dituzte berriro asteburu honetan.

Azkenik, azaroaren 13an joko du Toundra taldeak elurratutako atzeratutako kontzertua; sarre-erosi zutenek lehentasuna edukiko dute bertaratzeko.

## Irakurketa errazeko tailerren izen-ematea ireki du Bibliotekak

Ohitura faltagatik edo bestelako zailtasunengatik irakurtzeko erraztasunik ez duten pertsonentzat gaztelarazko *Club de lectura fácil* dinamika antolatu du aurten ere Udal Bibliotekak. Guztira, ordu eta erdiko lau saio garatuko ditu Blanca Mata dinamizatzaileak otsailaren 10ean eta 24an eta martxoaren 10ean eta 24an.

Tailerreko partaideek liburu bat irakurriko dute elkarrekin, "irakurketaz gozatzeko, irakurtzeko trebetasuna lortzeko eta komunikatzeko espazio bat sortzeko" helburuarekin. Antolatatzaileak arduratuko dira partaide guztientzako liburuak lortzeko. Izena eman nahi duenak Bibliotekaren atarira jo dezake, *arrasate.eus* webgunean. Bertan eskura daiteke, gainera, irakurketa errazean ardaztutako materiala, baita Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean ere.



Neska-mutikoak, martitzenean, eskola-kiroleko saioan. IGOÑE OSINAGA

## Osasuntsua izateaz gain, beharrezkoa dute jolasa

Eskolaz kanpoko jarduerak egiteko baimena izan bezain laster berrekin diote Aramaion eskola kiroleko jarduerari. Burbuiletan banatuta eta segurtasun arauak errespetatuz kirola eta jolasa uztartzen dituzte gaztetxoek eskolatik irtendakoan

**Arantzazu Ezkibel Galdos** ARAMAIO Aramaio neska-mutikoek ere berrekin diete eskola-kiroleko jarduerari. Azaroaren 7an, jarduera guztiak bertan behera uzteko agindua jaso zuten, baina urtarrilaren 11n hasi ziren berriro ere kirol eskaintzarekin. San Martin eskolako guraso elkarteak koordinatzen ditu eskolaz kanpoko jarduerak. Mul-

tikirola deitzen dena Leintz eskola-kirolaren bitartez egiten dute. Susana Santor da Leintz eskola-kiroleko koordinatzailea: "Ikastetxeko protokoloa jarraituz eta burbuilak mantenduz egiten ditugu jarduerak". LH-1eko, LH-2ko eta LH-3ko neska-mutikoak elkarrekin entrenatzen dira; LH-4koek beste talde bat osatzen dute; eta LH-5eko eta LH-6koek,

hirugarren bat. Araudia jarraituta, sei laguneko azpitaldeetan banatzen dira jolasak egiteko.

**Kontakturik gabeko jolasak** "Kontakturik gabeko jolasak egin behar ditugu: umeez ezin dute elkar ukitu. Hortaz, partidurik ezin dugu egin, baina egiten ditugu jolasak. Saskibaloiko edo futboleko baloia erabilia, edo

hockeyko makilak, edo erraketak... ariketak eta jolasak egiten ditugu", dio Santorrek. Elkarren artean ezin direnez ukitu, jolasak birpentsatu eta egokitu egin behar izan dituzte: "Adibidez, harrapoharrapoka jolasten gara txurroak erabiliz. Hala, ez dute kontaktu zuzenik izaten".

Segurtasun neurriei dagokienez, eskuak garbitu behar izaten dituzte, distantzia gorde eta maskara erabili: "Horrez gain, materiala desinfektatzen dugu".

### Haurren beharrak

Eskola-kirolak balio du sozializatzeko, ohitura osasuntsuak hartzeko eta balio hezigarriak zabaltzeko, besteak beste. "Gogotsu bueltatu dira eskola-kiroleko jarduerara", dio Santorrek. Bete beharreko segurtasun neurriak dagoeneko barneratuta dituztela dio koordinatzaileak; baina gaztetxoendako zailena dela elkar ezin ukitzea: "Kontaktatu fisiko hori behar dute. Elkar komunikatzeko modua da". Maskararen kasuan, intentsitate handiko ariketaren bat egiten dutenean, distantziak gorde eta maskara jaitsi dezaketela azaldu du.

Pilotalekuan egiten dituzte saioak, eta, eguraldi ona bada, kanpoko pilotalekura ere irteten dira. Hiru taldetan banatuta daude: talde bakoitzak bi orduko saioak egiten ditu.

### Beste kirol batzuk

Eskolaz kanpoko jardueren artean, gimnasia erritmikoa, pilota eta dantza ere badaude Aramaion. Arrasateko Dragoi gimnasia elkarteak Miren Amozarrainek gidatzen ditu gimnasia erritmikoko saioak: "LH-1 eta LH-6 arteko ikasleak ditugu, bi taldetan banatuta; guztira, 17

gaztetxo". Gaineratu du gaztetxoek beharra dutela kirola egiteko, eta ilusioz hasi dutela berriro ere jarduera: "Segurtasun arauak mantendu beharra gogorra egiten da. Umeez betikorra bueltatu nahi dute".

Azaldu du bi taldetan banatuta egiten dituztela entrenamenduak, eta bi talde horiek burbuilak direla. "Elkar ukitzeko aukera badute, baina ezin dute materiala elkarbanatu, ezta aldagelak erabili... Taldekako kirola egiterakoan trabak dira horiek guztiak". Egoera berrira ohitzea zaila dela dio, eta gaztetxoek faltan igartzen dituztela lehen egiten zituzten gauzak.

### Pilotan, iraila ezker

Pilota eskolan sei laguneko hiru talde dituzte. "Eskuak garbitu behar dituzte pilotalekura sartzekoan, tenperatura hartu, maskara erabili eta ahalik eta kontaktu gutxien izaten ahalegindu behar dute", dio Asier del Campok, pilota entrenatzaileak. Bikoteka jarrita pilota bera erabiltzen dute, elkar ukitu gabe.

Irailaz geroztik, araudi berria egin zutenetik dabilta pilota sailekoak entrenamenduekin. Eskola-kiroleko gaztetxoak entrenatu bakarrik egiten dira, baina federatuek, orain, baita jokatu ere. Gaztetxoek jarduera fisikoa egiteko beharra dute: "Asko eskertu dute entrenamenduetara bueltatzea, eta, egia esan, euren aisialdiaz disfrutatzen dabilta momentu honetan".

## SOZIALIZATZEKO ETA BALIO HEZITZAILEAK HARTZEKO BALIO DU, BESTEAK BESTE, KIROLAK

## Galdara aldatzea proposatu dute OSiko ordezkariak, bileran

Aramaio anbulatorioko berogailu sistema zaharkituta dago; hainbat hobekuntza egitea aurreikusten dute

### A.E. ARAMAIO

Eguaztenean izan zuten Aramaio anbulatorioan Osakidetza langileen bisita. Anbulatorioan egin daitezkeen hobekuntzak ikustera etorri ziren, hain zuzen, OSiko finantza zu-

zendaria eta OSiko mantentze-lanen arduraduna. Azkenaldian berogailu sistemarekin izan dituzten arazoak nola konpondu daitezkeen aztertu zuten. Udal ordezkariak aldetik, Cristina Etxenausia eta Iban Herrarte

zinegotziak eta Oier Ezkerra aparejadorea izan ziren bisitan.

"Bilera positiboa izan da. Anbulatorioko galdara zaharkituta dagoela eta hori aldatu beharra dagoela proposatu dute. Gainera, badago gela bat berogailurik ez duena, eta berogailuak jartzeko proposamena ere egin dute. Azkenik, kanpoaldean erroto bat jartzeko beharra ere nabarmendu dute".

Proposamen horiek Udalak aztertu beharko ditu, eta ondoren erabakiak hartu.



Anbulatorioko kanpoaldea. A.E.



# "Berdintasun politikak garatzeko apustua dago"

**JONE UNZAGA** GORBEIALDEKO BERDINTASUN TEKNIKARIA

Gorbeialdeko Kuadrillak Berdintasun zerbitzua martxan jarri zuen orain dela lau bat urte. 2021ari begira galdetegi prestatu dute, beharrak identifikatzeko

**Arantzazu Ezkibel Galdos** ARAMAIO Gorbeialdeko Berdintasun Zerbitzuak berdintasunaren alde borrokatzen diren eragileen iritzia jakin nahi du 2021eko programazioa eta helburuak osatzeko. Horretarako, galdetegi bat prestatu dute; galdetegi Aramaioko Udalaren atarian dago. Berdintasun teknikari Jone Unzagak nabarmendu du atek zabalik dituela, eta herri-tarren parte-hartzea ezinbestekoa dela aurrera egiteko.

**Berdintasun Zerbitzua noiz sortu zen Gorbeialdeko Kuadrillan, eta ze beharri erantzuteko?**

Modu egonkorrean lanean 2017-2018an hasi zen. Aurrez, herri batzuetan bazeuden berdintasun planak; baina ez zegoen langile finkorik edo zerbitzua ez zegoen araututa. Horrez gain, gogoratu behar dugu lege bat dagoela eta lege horren arabera administrazio publikoetan berdintasun sailak egin behar direla. Hala ere, gizartearen badago berdintasunaren aldeko kontzientzia, eta horrek beharrezana sortu du.

**Urte hauetako esperientzia nolako izaten ari da?**

Berdintasun Zerbitzuak ez du beste arlo batzuek izan dezaketen ibilbiderik. Gainera, arlo honen inguruko ezjakintasuna handia da. Ez da zalantzan jar-tzen sailaren beharra, baina sailak zehazki zer egiten duen ez da ezagutzen. Aldi berean, apustu sendoa dago berdintasun politikak garatzeko, aurrekontuak handitu egiten dira urtero, diagnostikoak egiten dira... Nabarmendu nahi dut ez dela kanpora begirako lana bakarrik; barrura begira ere egiten dugu, baina antolaketan administratiboa aldatzea motela izaten da.

**Galdetegi bat zabaldu duzue programazioa eta helburuak osatzeko aldera. Nori zuzenduta dago?**

Herritarrei zuzendutako galdetegi da. Gorbeialdeko udal-errietan banatu dugu, baita



Jone Unzaga, bulegoan lanean. J.U.

## "JARRAITU BEHAR DUGU INDARKERIA MATXISTAREN INGURUAN LANEAN, PREBENTZIOAN"

Whatsapp taldeetan ere... Eta paperean ere banatu nahi dugu; izan ere, modu elektronikoa ez gara mundu guztiarengana heltzen.

**Zeintzuk dira sailak dituen erronkak?**

Asko dira, baina batzuk aipatzearen esango nuke jarraitu behar dugula indarkeria matxistaren inguruan lanean. Ez bakarrik emakumei zuzendutako indarkeria, baita LGTB kolektiboari zuzendutako ere. Prebentzioa landu behar da horretarako. Bestalde, generoaren *mainstreaming*-a administrazioan txertatu behar dugu: kontratazio pleguetan, datuak sexuaren arabera, bitarra ez den laukitxo sortu... Azkenik, esango nuke emakumeendako espazioak sortu behar ditugula, emakumeen ikusgarritasuna lantzen jarraitu. Horiekin ez diet beste beharrei garrantzirik kendu nahi.

**Aramaion zein talde edo eragilerekin egiten duzu lan?**

Aramaioko mugimendu feministarekin eta Itur-zuri emakume taldearekin egiten dut lan. Esan nahi dut atek zabalik ditudala eta berdintasunaren alde lan egin nahi duen edonor etor daitekeela bulegora. Herri-tarren parte-hartzea ezinbestekoa da aurrera egiteko.

**luz, kanpaina berezia egin zenuen indarkeria matxisten inguruan. Nolako erantzuna izan zuen?**

Oso erantzun ona izan zuen. Asko ikasi dugu, eta konturatu gara indarkeria matxista uste genuena baino askoz zabalagoa dela. Jendartera atera dugu gaia, eta, azken finean, helburua hori zen. Herri-tarrez gain, udal langileek ere hausnartu dute gaiaren inguruan. Garrantzitsua da barrura begirako lan hori.

**Zeintzuk dira zerbitzuak dituen ahulguneak?**

Nik samur identifikatzen ditut, baina, agian, ez dira beste batek identifikatuko lituzkeenak. Berdintasun Sailak errekonozimendua behar du, baina ez Kuadrillan bakarrik, orokorrean baizik. Feminismoak oraindik ere jaso ez duen errekonozimendu hori.

## Eskolarteko finalik ez, baina bai plazan kantatzeko aukera

'Eskolatik plazara' ekimena proposatu diete hamar finalistei: Aitor Ugartek otsailaren 5ean kantatuko du

**A.E. ARAMAIO**

Euskal Herriko eskolarteko txapelketako finala jokatu barik geratu ostean –ekainean egitekoa zen lehenengo, eta azaroan, ondoren–, finalean parte hartzeokoak ziren bertsolari gazteei beste aukera bat ematea erabaki dute. *Eskolatik plazara* proposamenak bertsolari gazteak plazetan ibiltzen diren bertsolariekin elkartuko ditu.

Ahalegin berriarekin, finale-rako sailkatuta zeuden hamar bertsolariei ikusgarritasuna eman gura zaie. Saioak doan izango dira, baina lekua erre-erbatu beharko da, *bertsozale*. *eus* atarian.

**Aramaioarra, Iruñean**

Hiru saio antolatu dituzte; horietako bat egubakoitzean izango da, Gernika-Lumon. Bigarren saioan Aitor Ugarte aramaioa-



Aitor Ugarte. ARTXIBOA

rrak parte hartuko du. Otsailaren 5ean, Iruñean, 18:00etan. Eukene Los Aires, Aitor Ugarte, Ekhiñe Zapiain, Bittori Elizalde Alaia Martin eta Julio Soto bertsolariak arituko dira kantuan. Hirugarren saioa zehazteke dute oraindik.

## Irakurzaletasuna bultzatzeko gomendioak

Aramaioko liburutegiko arduradunek honako liburu hauek proposatu dituzte: 0 eta 6 urte bitartekoendako, *Begiradazalea*; 6 eta 8 urte bitartekoendako, *Ene itsugidari, ene kapitain*; *Iñurrrategi anaiak-mendiari bihotz emanak* komikia; helduendako, *Arrakastaren aparrrak* nobela beltza; eta *Como Polvo en el viento* helduendako nobela.



Komikiaren azala. SUA EDIZIOAK

## OHARRAK

### Aurten ez dute Santa Ageda batzerik egingo

Aramaioko hainbat elkartek Santa Ageda batzea egin ohi dute. Hala ere, aurten ez dutela egingo azaldu dute, ohar bidez: "Datorren urtean indar eta umore bikoitzarekin eta eztarriak sano itzuliko gara etxez etxe eta baserri baserri kantuan egitera. Bitartean, ondo zaindu!".

### Orri markagailuak

Gorbeialdeko Kuadrillaren XV. orri markagailu lehiaketako epaia eman ondoren, dagoeneko eskuragai daude orri markagailuak. Udaletxean edo liburutegian har daitezke. Hamalau orri markagailu egin dituzte; adinaren arabera, sei kategoriatan banatuta egin dute lehiaketa.

# Txarapeako etxeak bukatzeko lanak, hastear

Duela bederatzita urte amaitu gabe utzi ziren bi blokeen eraikuntza-lanak otsailean hasiko dituzte; prezio tasatuko 48 etxebizitza eta salmenta libreko 16 egingo dituzte, eta, ondo bidean, urtebeteko epean bukatuta izango dira

## Mirari Altube ARETXABALETAKO

Joan den azaroaren 13an hasi zituzten lehen lanak bukatu barik dauden Txarapea ibilbideko bi etxebizitza-blokeetan. Ingurua garbitu zuten orduan, hondakinak kendu eta 2012an erdibidean geratu zen eraikuntza-egoera egiaztatzen probak egin. Eraikitze lanei, ostera, otsailean ekingo diete, eta 64 etxebizitza egingo ditu WIP Aretxabaleta Shell SLU enpresak; 48 etxebizitza prezio tasatukoak izango dira eta hamasei, berriz, salmenta libreko duplexak.

## Udalak, "laguntzeko" jarrera

Pozik agertu dira udal ordezkariak bederatzita urte geldirik egon ondoren "berraktibatu" egin direlako Txarapeako lanak. "Gure helburua etxebizitza operazio hau desblokeatzea izan da", adierazi du Unai Elkoro alkateak, eta azpimarratu du horiek eraikitzen laguntzeko "erabateko jarrera" erakutsi dutela: "Udalak ahal izan duen guztian lagundu

du lanak berriz hasteko prozesua errazteko. 64 pisu berri izango ditu udalerriko etxebizitza parkeak, eta, horrela, Txarapeako urbanizazioa guztiz amaituta geratuko da".

## Tasatuak eta duplex libreak

Sustatzaileak Construcciones Amenabar SA enpresari esleitu dizkio lanak. Eta argitu dute aurretik eraikitakoen tipologia bera izango dutela. Pisu tasatuak kokatuko dira beheko, lehen eta bigarren solairuetan; horiek izango dituzte hiru logela, bi komun, garaje-plaza eta trastelekua, 175.000 eurotik gorako prezioarekin. Hirugarren solairuan eta teiltupean, ostera, duplex motako etxebizitzak

## AURREKOEN EZAUGARRI BERA IZANGO DITUZTE ETA 2022KO OTSAILERAKO BUKATZEA DA ASMOA

izango dira, honako ezaugarri hauekin: lau gela, hiru komun, garaje-plaza eta trastelekua; 258.000 eurotik gorako kostua dute horiek. Etxebizitza guztiek, gainera, terraza "zabalak" izango dituzte. Zortzi ataritan banatuko dira; lau atari bloke bakoitzean. Pisuak saltzeko ardura Aretxabaletako San Miguel Inmobiliariak izango du. Lanak, ostera, aurreikuspenen arabera, 2022ko otsailean amaituko dituzte.

## Oniritzia, osoko bilkuran

Udalbatzak hurrengo osoko bilkuran emango dio oniritzia Txarapeako azken bi bloke horien garapena arautuko duen hirigintza hitzarmena berritzeari.

2012an utzi zuen Bruesa SA Enpresa Taldeak sustapen hori osatu gabe, hartzekodunen konkurtsoan sartu ondoren. Txarapea ibilbideko urbanizazio osoak hamabi bloke ditu: 240 etxebizitza tasatuak dira, 100 libreak eta 100 babes ofizialekoak.



Erabiltzaile bat Ibarra kiroldegiko igerilekuan. IBARRA KIROLDEGIA

## Herrien itxierak bete-betean eragin dio Ibarra kiroldegia

2.419 erabiltzaileetatik 1.621 dira aretxabaletarrak eta gainerako 798ak, kanpokoak; hau da, %33

## M.A. ARETXABALETAKO

Jaurlaritzak joan den astean hartutako erabakien artean dago herrien itxiera perimetrala, eta horrek bete-betean eragin dio Ibarra kiroldegia. Izan ere, gaur egun dituen 2.419 erabiltzaileetatik 1.621 dira aretxabaletarrak eta gainerako 798ak, hau da, %33, kanpokoak.

Kanpotik joaten diren horiek kezkatuta agertu direla adierazi du Udaleko Kirol teknikari Asier Mujikak, eta dei asko jaso dituztela: "Herri batetik bestera pasatzeko baimenik egin dezakegun galdetu digute hainbatek.

Guk erantzun diegu kiroldegiko abonatu direla ziurtatzen duen agiria egin dezakegula, baina gehiago ez".

## Eremu gorriari "beldurra"

Egoera ez dela samurra iritzi dio Mujikak, baina are eta okerragoa izango dela eremu gorri pasatuz gero: "Beldur handia diogu horri. Izan ere, eskolakirola bertan behera geratuko litzateke, baita hainbat talderen entrenamenduak ere, eta jarduerak ere bai. Eta horrek, gero, bajak dakartza, beste ondorio batzuekin batera".

## GORA ETA BEHERA




## Larrino auzoko pilotaleku txikia, zikin

Larrino auzora pasean joandako herritar batek zikin topatu du bertako elizpean dagoen pilotaleku txikia. Ez dela "kontu berria" adierazi du, eta "egoera honek behartuta" auzoetara zein mendi inguruetara jotzen duten herritar guztiei garbi uzteko dei egin gura izan die.

## EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus

edo 688 69 00 07.



Amenabar eraikuntza enpresako kideak, Unai Elkoro alkatea eta WIP Aretxabaleta Shell SLUko ordezkaria. ANABEL DOMINGUEZ



Juanjo San Sebastian mendizalea, *Mendian hil, hirian hil* filmaren une batean. ARTEMAN KOMUNIKAZIOA

# Mendian gertatutako heriotzak hausnerkatagai

Otsaileko Arkupeko egitarauaren protagonista Iñaki Peña medikuak zuzendutako 'Mendian hil, hirian hil' dokumentala izango da; hileko lau egubakoitzetan eskainiko dute. Eguenean, oster, 'Koplariak' ikuskizuna izango da Korrontzi eta Amurizarekin

## Mirari Altube ARETXABALETA

Otsaileko gida gertu dauka Kultura Sailak, eta oraingoan, dokumental bat izango da protagonista Arkupen: *Mendian hil, hirian hil*. Lau emanaldi eskainiko dituzte, egubakoitzetan guztiak, 19:00etan (3 euro). Sarrerak astelehenetik egongo dira salgai.

## Cresporen senideen testigantza

Iñaki Peña medikuak zuzendu eta Arteman Komunikazioak ekoiztutako azken lana da. Heriotza eta dolua ditu hizpide eta *Aulki hutsak* eta *Suaminetik bakera* filmekin batera trilogia osatzera dator. Mendi Film Festival-en Euskarazko Film Onenaren saria jaso zuen, gainera, 2020ko abenduan.

Mendian gertatutako heriotza du oinarri, eta horren bueltako hausnarketa sustatzea helburu. "Gazteak izan ohi dira mendian hildakoak, bat-bateko heriotzak dira, traumatikoak. Hori onartu beharra dute, gehienetan, gurasoek eta anaia-arrebek", dio Peñak.

Hainbat testigantza jaso dituzte bertan: batetik, Felipe Uriarte eta Juanjo San Sebastian mendizale ezagunenak; eta, bestetik, heriotzak gertuan bizi izan dituzten hainbatena. Besteak beste, 2017an Pirinioetan hildako Mikel Crespo aretxabaletarraren senideena eta 2014an Cho Oyu mendian, Himalaian, bizia galdu zuten Xabier Ormazabal urretuarraren anaiarena.

## Korrontzi eta Hezurbeltzak

Musikak ere izango du lekua Arkupeko oholtzan. Santa Ageda bezperan, datorren egunean (19:00), *Koplariak* ikuskizuna eskainiko du Korrontzi taldeak, Xabier Amuriza bertsolari, idazle eta ikertzaileak lagun eginda.

## MIKEL CRESPOREN SENIDEEN TESTIGANTZA ETA BESTE HAINBATENA JASO DUTE FILMEAN

Hilaren 11n, oster, Hezurbeltzak proiektuaren txanda izango da (19:00). Jon Maia bertsolaria, Gorka Hermosa akordeoilaria eta *Pitti* gitarra-jolea dade horren atzean, eta *Poblado Tour* ikuskizuna eskaintzera etorriko dira. Migratzaileei eta gizarteak baztertutakoei egindako omenalditxo da, eta horretarako, poesia, kritika eta umorea erabiliko dituzte melodia ederrekin uztartuta.

## Patxin eta Potxin pailazoak

Neska-mutikoez pailazoan ikuskizuna izango dute hilaren 7an, domeka (17:00). Potxin eta Patxin pailazoek *Ingurumena zaindu* saioa eskainiko diete, horren garrantziaren gainean hausnartzeko. Otsailaren 28an, gainera, Behi Bi's taldea etorriko da -urtarrilean atzeratutakoa-, *Trabajos de interior* lanarekin (19:00).

Erakusketa aretoak ere lan berriak hartuko ditu. Oraingoan, Aretxabaletako Caritasek *Zu bezalako norbait* eskainiko du.

## Energia banatzen duten enpresei tasa ezartzea gura du EH Bilduk

Aurrekontsulta bat egitea proposatu dio Udal Gobernuari, eta urte bukaerarako ordenantza idaztea

### M.A. ARETXABALETA

Energia merkaturatzen duten enpresei zerga bat kobratzen diete udalek. Zerga hori udalerrian fakturatutako energiaren %1,5 da, eta gaur egun 80.000 euro inguru jasotzen dituena Aretxabaletako Udalak kontzeptu horregatik azaldu du EH Bilduk.

Energia banatzen duten enpresek -elektzitate, gasa, argindarra...-, oster, ez dute inolako tasarik ordaintzen, eta EH Bilduk horiei ere ezarri gura die: "Gure lurraldea zeharkatzen duten energia elektrikoaren eta gasaren lineen metro linealengatik kobratuko litzateke, hainbat faktore kontuan hartuta. Gure kasuan, linea ugari zeharkatzen dute Aretxabaleta". Hainbat udalerririk dagoeneko aplikatzen dutela tasa hori gaineratu dute, eta horien artean daudela Irun eta Gasteiz.

### Urtebete ordenantza zehazteko

Horren berri eman diote Udal Gobernuari, eta proposatu diote tasa horrek Udalarentzat ekarriko lukeen onuraren gaineko aurrekontsulta bat egitea: "Tramitazioa ondo egin behar da, kostu bat du, gainera, eta, horregatik, kopuruak merezi duen jakin gura dugu aurretik".

Ordenantza zehazteko txosten tekniko bat idatzi beharko du aurretik aditu batek: "Hori guztia egiteko urtebeteko epea aurreikusi dugu eta ordenantza berria urte bukaerarako gertu izatea gurako genuke, 2022an indarrean jartzeko". Tasa horrekin jasoko litzatekeen dirua "energia-subiranotasuna" lortzeko erabilteza proposatu dute.

Udal Gobernuak gaia aztertze-kotan geratu dela adierazi dute, eta gaineratu beste udal batzuetan adostasunarekin onartu dutela.

## Odol ateratzeak egingo dituzte otsaileko lau egunetan

Odola emateko aukera izango dute aretxabaletarrek otsaileko hiru astelehenetan; hona hemen egunak: 1, 8 eta 15. Autobusa Durana kalean izango da -Herriko Plaza barrenean-, arratsalde (16:45-20:00). Hilaren 11n, eguna, oster, Mondragon Unibertsitatearen Ikus-entzunezko fakultatera gerturatuko da autobusa, goiz partean (09:45-13:00).

## Santa Ageda egunik ez da ospatuko aurten, ezta Aratusterik ere

Santa Agedaren omenezko koplariak ez da entzungo aurten herriko kaleetan; Aretxabaleta Abesbatzako eta musika eskolako kideek jakinarazi dute ez direla irtengo kantuan. Kintoen festa ere bertan behera geratu da, Udaleko Kultura Sailak adierazi duenez. Gaineratu dute Aratusterik ere ez dela ospatuko aurten.

**M**obiliario  
**A**RENAZA

ALTZARIAK  
DISEINUA  
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA

Jou Díaz

Harakina

Durana 15  
Tel.: 943 79 71 69  
20550 ARETXABALETA

# Hiruatx: Ekuadorren eta Kolonbian lanean

Kolonbiako Pasto hiriko quillacinga etniako eta Ekuadorko emakume kitxuek hartzen dute parte Hiruatx elkarteak eta Mundukidek elkarlanean garatzen dituzten eta nekazaritza oinarri hartzen duten bi proiektuetan

**Jone Olabarria** ARETXABALETA

"Quillacinga etniako emakume nekazari indigenen bizi baldintzak hobetzea" du helburu Nariñoko departamenduan dagoen Pasto hiriburuan kokatutako proiektuak. Mundukiderek elkarlanean eta "aretxabaletar guztien laguntzarekin" garatutako proiektuak 59 emakumeri ematen die laguntza, horretarako ekoizpen agroekologikoak bermatuz, eta ostean, produktu horiek sukaldari elkarte baten bitartez zuzenki merkaturatuz.

Hiruatx elkarteak azaldutakoaren arabera, aurretik ere agroekologian saiakera egin zuten: "Ez zuen behar besteko fruiturik eman, besteak beste, merkaturatzea zaila izaten zelako. Horregatik, nekazarien eta erosleen arteko harremana sendotzea oso garrantzitsua da merkaturatze justua gertatu ahal izateko".

**Koronabirusaren eragina**

Asmoa jatetxeak eta nekazariak elkar-egagutza prozesu batean murgiltzea dela azaldu dute: "Etorbizunean jatetxeen aldetik produktuen eskaera antolatua eta nekazarien aldetik kalitatezko ekoizpena eta bidalketa zerbitzu egokia bermatuko duena".



Quillacinga etniako emakume nekazari bat, lanean, Nariñoko departamenduan. A.E.

COVID-19 gaitzak izandako eraginaren ondorioz, jatetxe eta sukaldari horiek bazkari asko etxeetara bidaltzen dituztela azaldu du elkarteak, eta aukera hori aprobetxatu nahi izan dute: "Sare hau aprobetxatuko litzateke barazkiak ere etxeetara helarazteko eta merkaturatzea handitzeko".

"Nekazaritzak saldu egin behar du, egoera edozein izanda ere. Kolonbian, pandemiaren egoera larrienean ere, nekazariak bazuten baimena saltzen jarraitzeko, eta, hortaz, alde horretatik, mantentzea lortu da. Jatetxeetan

zailagoa izan da dena. Edozelan ere, atzerapen handia eragin du proiektua martxan jartzeko orduan".

Pasto hirian ere aurretik lan egindakoa da Aretxabaletako Hiruatx elkarteak. Hain zuzen ere, aurreko urteetan, zabor birziklatzaileekin jardun du lanean Hiruatxek Kolonbiako Pasto hirian. Nariñoko birziklatzaileek eratutako Coemprender kooperatibaren baitan, orain bezala, Mundukiderek batera. Proiektu hori bukatutzat eman zuten 2019. urtearen amaieran.

gasti seniorraren aurkaria konfinatuta zegoenez, hori ere ez zen jokatu". Hala ere, herriko beste bi jokalariek jardun zuten, nahiz eta emaitza gazi-gozeekin izan: Danel Lanzos kadeteak irabazi egin zuen 18-22, Oñatin; eta Joxe Uribetxebarria gazteak galdu, 22-4, Lazkaon.

**Pilotari gutxi**

Entrenamendu saioak egiteko ez dutela arazorik azaldu du Errastik, Udalaren baimena daukatelako pilotalekua zabal-

## Herriko pilotariak lau eta erdiko txapelketa jokatzen dabilta

Gaur, egubakoitza, bi partidu jokatuko dituzte Iturrigorri pilotalekuan: bata Uribetxebarria eta bestea Zugastik

**J.O. BERGARA**

Joan den aste bukaeran ekin zioten eskuz banakako Gipuzkoako laur eta erdiko txapelketa, eta UDAko lau pilotarik dihardute nor baino nor gehiago bertan lehiatzen. UDAko

pilota saileko Juan Mari Errasti entrenatzaileak adierazi du "hala-moduz" hasi dutela txapelketa: "Ager Lanzos gaztearen aurkariak Beasaindik etorri behar zuen, baina, herria eremu gorrian zegoenez, ezin. Eta Zu-

## "Nariñoko ZIU ere beteta dago, gaur-gaurkoz"

**ASIER ELORZA**  
MUNDUKIDEN KOOPERANTEA

Bi urte daramatza Asier Elorza arrasatearrak Paston lanean. **Nola bizi izan duzue egoera Kolonbian?** Gogor jo duela esango nuke. Gaur-gaurkoz, Nariñoko departamenduko ospitaleko ZIU guztiz beteta dago. Hala ere, esan beharra dago konfinamendu neurriak askoz gogorragoak izan direla Kolonbian hemen baino. Ezin gara askorik fidatu Gobernuak ematen dituen datuekin.



MUNDUKIDE

**Zer egoera bizi dute proiektua garatzen duzuen komunitateen baitan?**

Quillacinga etnia berezia da; ez daukate hizkuntza propiorik, ezta *resguardoa* deritzona. Hau da, ez daukate lur propiorik, eta hori oso garrantzitsua da, baina, bestalde, entitate propio bat dute erabakiak hartzeko, *cabildo* deritzona. Kasu honetan, indigenismoa galduagoa daukatela esan daiteke.

**Ekuadorren, abiatu berri**

Kolonbiako proiektu horrez gainera, ordea, beste bat ere abiarazi nahi izan dute. Gipuzkoako Foru Aldundiko dirulaguntzetara aurkeztea erabaki zuten Hiruatx elkarteak, baita lortu ere. Sostengu horrekin, Ekuadorko Amazonian emakume kitxuen ahalduntze ekonomikoan ere eragin nahi dute: "Ekuadorko emakume indigenek ere izango dute gipuzkoarren laguntza, kakaoaren, *wayusa* ren eta platanoen ekoizpen katean, *chakra* sistema iraunkorra sustatuz".

**Aretxabaletarrei, eskerrak**

2020an pandemiak "gogor" jo diela azaldu du elkarteak, eta egoerak ere jardunean eragina izan duela zehaztu dute: "Aurten, ez gaituzue kalean aurkitu. Ezin

izan dugu aretxabaletarren aurrean gure proiektuen berri eman, ezin izan dugu Bidezko Merkataritzako azokarik egin, baina, egoera honetan ere, elkartasuna ezin da eten, premiak areagotu egin dira. Horregatik, lanean jarraitu dugu gogor".

Gogorarazi dute Hiruatx elkarte herritarren esku dagoela, eta edozein premia, kontsulta edo iradokizun izanez gero elkartearekin harremanetan jartzea eskatu dute, [hiruatx@yahoo.es](mailto:hiruatx@yahoo.es) helbidearen bitartez.

**"PANDEMIAREN LARRIENEAN ERE, BAZUTEN SALTZEKO BAIMENA NEKAZARIEK KOLONBIAN"**

**Gaur, bi partidu etxean**

Gaur, egubakoitza, bi partidu jokatuko dituzte Iturrigorri pilotalekuan, 18:30ean hasita: Uribetxebarria Oñatiko Ugarteren aurka; eta ondoren, Zugastik Iburguren legazpiarraren aurka. Lazkaon, ostera, jokatuko du Ager Lanzos, eta Danelek atsedean hartuko du. Neurri berriek ere zalantza sortu dute. "Herriz mugi gaitzkeen zalantza izan dugu, baina Federazioaren baimenarekin joan ahal izango gara", esan du Errastik.

# Iaz jaiotako lau umeko zuhaitz bat landatuko dute

2020an Eskoriatzan jaiotako haurren izenean mota ezberdinetako zuhaitzak landatuko dituzte, beste urte batez, ohiturari jarraituz. Aurten, baina, ez da haur bakoitzeko zuhaitz bat landatuko, lau umeko zuhaitz bat baizik

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Urteroko ohitura politari jarraituz, iaz jaiotako haurren izenean zuhaitzak landatuko dituzte Eskoriatzan. Izan ere, norberak landatutako zuhaitz bat izatea, zaintzea eta urte askoren ostean handitu egin dela ikustea begi onez ikusten dute urteroko parte hartzaileek.

Aurten, baina, egoerak baldintzatuta, berrikuntzak izango dira egitasmoan, baina kontuan izanda "parte-hartzailei" zuhaitz landaketa ekintza "asko gustatzen" zaiela, eta "egingarria" dela erabakita, zuhaitz landaketa aurrera eramatea erabaki dute antolatzaileek, neurri guztiak hartuta.



Arbiñosten egin zuten zuhaitz landaketa, iaz, euripean. IMANOL SORIANO

**Familia osoak batu barik**

2020an Eskoriatzan jaiotako haurrak hogeitaz izan direnez, gutxira bost zuhaitz sartuko dituzte Ibarraundi museo inguruan. Beste urte batzuetan, haur bakoitzeko bat landatu izan da, baina, egoerak hala behartuta eta pilaketak saihesteko, eta ekintza azkar bukatzeko asmoz, hala egitea erabaki dute. Horrekin batera, familia bakoitzeko pertsona bakarrak hartuko dela parte adierazi dute antolatzaileek. "Familian egiteko ekintza izan da urtero. Gustura

etortzen dira familian egitasmoa gauzatzera, baina aurten ezinezkoa da betiko moduan egitea", adierazi du Saioa Altzuak, Ibarraundi museoko langileak. "Iaz, Arbiñosten landatu genituen zuhaitzak, eta horien egoera ere izan gara ikusten. Izan ere, zuhaitzak landatzeaz batera, gero, zaindu egin behar dira... Ea aurtengoak indartsuak ateratzen diren...".

**Zuhaitz mota ezberdinak**

Urkia, elorri zuria eta beltza, gurbitza eta makatza izango dira

landatuko dituzten zuhaitz motak. Horrekin batera, gorosti pare bat ere sartuko dituztela adierazi dute antolatzaileek.

Hitzordua domekan 12:00etan dute, Ibarraundi museo parean. Izan ere, museoaren bueltan landatuko dituzte zuhaitz guztiak. Hala, bertan elkartu, eta, lehenbizi, zenbait argibide emango dizkiete Ibarraundiko langileek bertaratzen diren herritarrei. Eta gero, aitzurrak hartu eta lanean jarriko dira, zuhaitz bakoitza landatzeko leku egokia ezartzean.

## Derrigorrezko soldadutzaren aurkako borroka

Gaur, egubakoitza, 19:00etan, Lander Garrok zuzendutako 2 urte, 4 hilabete eta egun bat insumisoari buruzko dokumentala proiektatuko dute Zaldibar antzokian. 90 minutu irauten du ikus-entzunezkoak, eta bertara joan nahi duenak gonbidapena beharko du; horretarako, 650 49 51 66 zenbakira *whatsapp*-a bidali beharko da.

## Lidergoa utzi gura ez duen taldeak Durango du aurkari

Bihar, zapatua, Manuel Muñozen jokatu du Eskoriatza areto futbol taldeak, Durangoren aurka, 18:00etan

**I.B. ESKORIATZA**

Eskoriatza areto futbol taldea lider da Maila Nazionalean. Emaizta bikaina lortzen ari da aurtengo denboraldian, eta lidergoari eustea da taldearen helburu nagusia. Asteburuan etxean jokatu dute, zapatuan, 18:00etan, Manuel Muñoz kiroldegian, eta aurkaria Sasikoa Durango taldea izango da.

Taldeakideak gogoz daude harmailak beteta daudela berriz jokatzeko hasteko, baina zaleen presentzia barik ere sekulako garaipenak lor ditzaketela argi eta garbi utzi dute. Izan ere, joan den asteburuan, etxetik kanpo jokatu zuten partidua, eta 1-10 irabazi zuten, Scorpio Alkideba taldearen kontra.

**Maila mantentzea**

Entrenatzaile guztiek sarri esaten duten moduan, partiduz partidu joan behar da, eta horixe bera dio Iker Molinak, Eskoriatza areto futbol taldeko entrenatzaileak: "Aurtengo helburu nagusia maila mantentzea izan da, hori da hasiera-hasieratik buruan izan duguna. Hala ere, bi multzotan gaude banatuta ligako taldeak, eta, zein

ondo ari garen ikusita, ilusioz gaude. Errendimendua ez jaistean dagoela gako uste dut, eta hurrengo fasera gogor iristeko ahalik eta emaitza onenak lortu nahi ditugu".

**Gazteei aukerak ematea**

Bost garaipenekin eta hiru berdinketarekin, denboraldia borobila izaten ari da, baina taldekideen artean badituzte gorabeherak. Izan ere, Xabi Iñurriak taldea utzi du, Richard Hildagok luzerako lesioa du eta beste zenbait jokalarirekin ere lesio txikiekin ari dira jokatzeko. Hori dela eta, Bigarren Erregional Mailako gazteei aukerak ematen ari zaie Molina entrenatzaileak: "Bi edo hiru gazte izan dira gurekin jokatzeko, eta asteburuan ere izango dira. Ilusioz eta konfiantzaz ari dira, eta euren errendimendua ere paregabea izaten ari da".

**Durangarrak aurkari**

Durangarrei 3-5 irabazi zion Eskoriatzak azkenengo aldian, baina, "partidu zaila" izango dela dio Molinak: "Punteria finarekin aritzea komeni zaigu, ez baitigute erraz jarriko".

## GORA ETA BEHERA



IMANOL BELOKI

## Espaloiko zorua, altxatuta

Eduardo Gorosarri auzotik Gaztañadui kalerainoko espaloian zoru zati bat altxatua dago, eta oinezkoek estropezu egiteko arriskua dute.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) edo [688 69 00 07](tel:688690007).



# 5,5 milioi euroko aurrekontua onartu du Eskoriatzako udalbatzak

Inbertsioak egiteko 425.000 euroko mailegua eskatuta, 554.833 euro bideratuko dituzte inbertsioetara. Horrekin batera, Goiena Komunikazio Taldeari egindako %20ko murrizketa ere izan du hizpide udalbatzak 2021eko aurrekontua onartzean

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Eskoriatzako udalbatzak 2021erako aurrekontua onartu zuen martitzenean egindako osoko bilkuran. Azken agintaldietan urtea amaitu aurretik, abenduan, onartu izan dituzte aurrekontuak, baina egungo egoerari egoki erantzuteko urtarrean egitea erabaki dute.

Aurrekontuei heldu aurretik, baina, Eskoriatzako Elizateen Elkarteko zinegotzi berriaren kargu-hartzea izan zuten hizpide. Hain zuzen ere, Leire San Vicentek kargua hartu zuen, eta, horrez gain, Hirigintza, Mugikortasun eta Hirigintza eta Pertsonal Ogasuneko batzorde informatzaileetako kide berri ere izendatu zuten.

## "Aurrekontu orekatuak"

Bost milioi eta erdi -5.497,404- euroko aurrekontua onartu zuten udalbatzako kideek, alderdi jeltzalearen eta Eskoriatzako Elizateen Elkarteko aldeko botoekin; EH Bilduk, bestalde, ezezko botoa eman zuen. 2020an baino 350.507 euro gutxiago izango du aurtengo aurrekontuak -%13 gutxiago-, eta, Udalaren zorpetze maila zero denez, mailegu bat eskatuko dute inbertsioetarako; hain zuzen ere, 425.000 eurokoa.

"Askok kostatu zaigu aurrekontuak orekatzea. Iaztik bizitzen ari garen egoera eta krisi ekonomikoa dela-eta zaila egiten da diru-sarrerak egokitzea, eta gastuak ere handitu egiten dira, beharrak ere handitu egiten direlako. Hori horrela, aurrekontu orekatuak planteatu ditugula esango nuke", adierazi zuen Josu Ezkurdiak, EAJko bozeramaileak. Horrekin batera, gaineratu zuen diru-sarreraren arruntekin gastu arruntak eta



Eraikin publikoetan hobekuntzak egitea izango da inbertsio nagusietako bat. I.B.

garatuko duten COVID-19ari aurre egiteko plan berria horintuko dutela.

## COVID-19ari aurre egiteko plana

Guztira, 347.000 euro bideratuko dituzte COVID-19ak eragindako ondorioei aurre egiteko. Iaz, ekainean plan berezi bat onartu zuten, eta aurten, %26 gehiago sartuko dute plangintza horretan. Babes soziala indartzeko %51eko igoera proposatu dute; 90.811euro -%51,4ko igoera-; garapen ekonomikoa sustatzeko 227.000 euro -%1eko igoera- bideratuko dituzte: ostalaritza eta komertzio eta enpresa txikien dirulaguntzetara, 56.500 euro; erosketa bonuetara, 40.000 euro; inbertsio publikora, 86.096 euro; terrazen gaineko zerga barkatu egingo da; eta osasun eta higiene neurrietara, 29.205 euro -%46ko igoera-. Horrekin batera, *Eskoriatza bizirik* egitasmoaren bai-

**COVID-19AREN ONDORIOEI AURRE EGITEKO 347.000 EUROKO PARTIDA BAT BIDERATUKO DUTE**

tan, 251.000 euro bideratuko dituzte, herri bizitza eta ekimen kulturala zein kirola bultzatzeko aseguruetan; horietan, Eskoriatzako Udalak antolatutako ekimenetara 100.600 euro bideratuko dituzte eta herriko taldeek antolatzen dituztenetara 151.030 euro zuzenduko dituzte.

## Negoziaketari ezezkoa

EH Bilduk, bestalde, hamar proposamen egin zituen. Azpimarratzekoak, honako hauek: "Ostalaritzarentzat eta merkataritzarentzat dirulaguntza zuzenak proposatzen genituen, 30.000 euro zuzenean proportzionalki banatzea, beste dirulaguntza batzuekin bateragarriak izanda, eta, merkataritzari bideratuta, bonu kanpainarekin jarraitzea nahi genuen, baina txarren pasatzen ari diren familia horiei bideratutakoa izanda. Gero, irisgarritasunean, 30.000 euro proposatzen genituen, San Pedro eta Intxartxuetako zonetan egin beharreko lanak daudelako. Horrekin batera, Bidebarrietan hobekuntza proposatzen dute, eta guk bat egiten dugu, baina Gatz Bidearekin lotzea, eta bertan ere zenbait konponketa lan



## "Onartu ditugun aurrekontuak orekatuak direla uste dugu"

**JOSU EZKURDIA** EAJ-KO BOZERAMAILEA

"Iazko aurrekontuarekin alderatuta, murrizketa izan dugu, aurreikusita genuena baino gutxiago. Bereziki, foru funtsa jaitsi delako... Horrekin batera, mailegu bat eskatuko dugu, inbertsioetarako bideratuko duguna. Hala ere, pentsatzen dugu prestatu ditugun aurrekontuak orekatuak direla; diru sarrera arruntarekin gastu arruntak eta garatuko dugun COVID planerako ekintzak egiteko erabiliko dugulako, eta mailegua, berriz, inbertsioetarako. Ekainean, COVIDari aurre egiteko plan berezia onartu genuen, eta aurten, %26 gehiago sartu behar dugu plangintza honetan. Hiru atal nagusi ditu planak, batez ere: babes soziala indartzen duguna, garapen ekonomikora bideratutakoa - dirulaguntzak ostalarientzat, dendentzat, erosketa bonuak... - eta obra publikoa bultzatzera zuzendutakoa. Honekin batera, *Eskoriatza bizirik* ekimena izango dugu; 251.000 euro bideratuko ditugu, herri bizitza eta ekimen kulturala zein kirola bultzatzeko".

"Gure planteamenduaren negoziaketa ere saiatu gara egiten EH Bildurekin. Iaz, euren aldeko botoa lortzen saiatu ginen; ez genuen lortu, eta aurten ere ez. Alde biak bat gatz hainbat proiektu eta helbururekin, baina ez dugu lortzen euren aldeko botoa. Hala ere, pozik gaude, ikusten dugu eurak ere alde daudela gu bezala, eta horrek bide onetik goazela esan gura du...".



## "Ez gara eroso sentitzen euren aurrekontuei baiezko botoa ematen"

**ELUSKA IRAZU** EH BILDUKO BOZERAMAILEA

"Onartu diren aurrekontuak eurenak dira. Egia da bizitzen ari garen krisiak asko baldintzatzen dituela aurrekontuak, baina guk ezezkoa eman diegu. Proposatzen dituzten partida batzuekin ados gaude, laguntza sozialei dagokiena, trantsizio energetikorako proposatutakoa, urbanizaziokoa; Dorletako zubia bukatzea edo Bidebarrieta hobetzea... Hala ere, guk beste hainbat ekarpen egin genituen, eta horietako gutxi batzuk onartzearen truke baiezkoa emateko konpromisoa eman behar genuen, eta, egia esateko, horrekin ez geunden eroso. Izan ere, ekainean beste aurrekontu bat onartu zen, zenbait jaitziera onartuz. Esan ziguten jaitziera eragile edo erakundeekin hitz eginda zeudela, suposatzen zelako zenbait ekintza ezin zirela aurrera eraman, eta ekintza horiek gauzatu ahal zirenean diru hori bueltatu egingo zela. Baiezkoa eman genuen, baina prozesua ez dela horrela izan ikusi dugu; Goiena adibide".



## "Kargua hartu berri aurrekontuen balorazioa egitea ez da samurra"

**LEIRE SAN VICENTE** ELIZATEEN ELKARTEA

"Auzo-alkateekin batera lanean aritu naizen arren, aste honetako osoko bilkuran hartu berri dut zinegotzi kargua; beraz, ez da samurra balorazio zehatza egitea. Hala ere, aurrekontuei dagokionez, elizateei ematen dituzten partida bera da, eta, inbertsioetarako 96.000 euro bideratuko dituzte. Horrekin batera, aurten Foru Aldundiren eskutik Internet ez daukaten elizateetan sarea ezartzen hasiko dira. Beraz, elkartekideak gustura geratu gara aurrekontuekin, eta, nire kargu berriari dagokionez, apurka-apurka joan beharko dut, egiten ikasten".

egitea ere proposatzen genuen. Lehenengo sektorea bultzatzeko dirulaguntza bat eskatzen genuen, liburutegian ere jaitsiera egon da, eta, bukatzeko, Pauso Berriak 2017tik egoitzan dagoen programan jaitsierarik ez egotea eskatzen genuen", adierazi zuen Eluska Irazu EH Bilduko bozeramaileak.

#### Inbertsio nagusiak, maileguaz

425.000 euroko mailegua eskatuta, 554.833 euro bideratuko dituzte inbertsioetarako. "Diru kantitate hori eskatu dugu, aurreikusten dugulako dirulaguntzak ere jasoko ditugulako inbertsio hauek egiteagatik", adierazi zuen Ezkurdiak. "Azpimarratzekoak hauek izango dira: Irisgarritasun eta Mugikortasunenean, 100.000 eurotik gora bideratuko dituzte; besteak beste, Dorleta eta Huhezi arteko zubirako 48.000 euro eta Bidebarrietako pasealekua hobetzeko 20.000 euro. Elizateetara 100.000 euro inguru bideratuko dituzte; Apotzagan egin bezala, beste elizateetan argiteria publikoa hobetzeko. Gainera, Aldundiaren eskutik, Internet zenbait elizatetan integrazeko proiektua ere jarriko dute martxan. Azkenik, udal eraikineterako hobekuntzetan, 220.000 euro.

#### Murrizketak hizpide

Aurrekontuei ezezko botoa ematearen arrazoia ere argitu zuen EH Bilduk. Batetik, egindako ekarpen batzuk onartzearen trukean baieztatu botoa ematea ez zutelako garbi ikusten, eta, bestetik, ekaineko murrizketak elkarte eta eragileekin ez zirelako adostuak izan argudiatuta. Hala, Goiena Komunikazio Taldea ere jarri zuten adibide gisa. Izan ere, %20ko jaitsiera izango du.

Horren harira, honakoa adierazi zuen Nestor Aranek (EH Bildu): "Komunikazio talde bat ukitzen ari gara, eta horrek bere eragina dauka, batez ere kontsentsuaz ez denean egin. Udalak euren Errektore Kontseiluan gaude, eta Goienak murrizketaren berri azaroan izan du, eta guk urtarrilaren 9an. Konpromiso hori, lehenengo, bertan adierazi behar da, eta gero, talde politiko guztiok adostasuna izan behar dugu. Demokrazia prozesuaren ahultzeko zantzuak egon daitezke... Gainera, Eskoriatza izan da herri bakarra

jaitsiera egin duena, beste herriak ere egoera berean izanda. 2016an, %40ko jaitsiera izan zuen, 2020an ere bai, baita orain ere. Hirugarrenez jaitsiera dauka. Adostasun argiarekin egiten ez bada, oso arriskutsua da, eta ardura egiten gaitu".

Horren ildora, Josu Ezkurdiak adierazi zuen garbi dagoela ez zela ondo ulertu ekainean planteatutakoa: "Murrizketak egon behar zirela esan genuen, eta batzuek ulertu zuten eta beste batzuek, ez. Goienaren kasuan, daukagun dirua herriko taldeei

eta herriko beharretara bideratuko dugu. Eta, errespetu guztiaz esaten dut, Debagoieneko beste enpresa bat baino ez da. Izan ere, iturri askotatik diru asko jasotzen du; Eusko Jaurlaritzatik, Aldunditik..., guk baino diru askoz gehiago ematen diote. Ez da hainbeste minik egiteko, guk egindako 6.000 euroko beherakada hori. Eta, nahiago dugu diru hori ostalariei edo gure musika eskolari ematea, Goienari baino. Errespetu guztiaz esaten dut, eta argi utzi nahi dute guk ez dugu konpromiso bat ere apurtu".

## Goienaren kontrako erabakia Udalean

Eskoriatzako Udalak dirulaguntza %20 murriztu izanagatik, iritzia eman gura izan du Goienako Zuzendaritza Batzordeak. Zera dio: "Goienak ulertzen du egoera. Ulertzeaz gain, informatu ere egiten du eta horregatik da izendatua premia biziko ondasun. Informazioa eskubidea eta betebeharra da, gehiago pandemia baten erdian. Goienak ez du egun bakar bat ere huts egin bere zereginen. Hori ulertu dute Debagoieneko udal guztiak Eskoriatzakoak izan ezik. Eskoriatzan irakurriena, zabalduena eta, tartean, eskoriatzarrek sortua den hedabidea zigortu du Eskoriatzako Udalak.

Aurrekontuak ez dira izan orekatuak denondako. Erabaki politikoak hartzeko eskatzen zaie politikariei eta kaltetu dute Eskoriatzako Udala jabeakide den Goiena Komunikazio Taldea. Minez eta penaz entzun ditugu EAJko Josu Ezkurdiaren hitzak eta horregatik egin dugu publiko Goienaren iritzia: Goiena ez dela herrikoa esanda ez die errespetu handirik erakutsi proiektu komunikatibo eskaldunaren alde ordu asko eskaini duten eskoriatzarrei.

Ez gaude alderdi-jolas politikoetarako sortuak, komunikazioa dugu zeregin, eta komunikatzen jarraituko dugu ostalariekin, musika eskolarekin eta eskoriatzar guztiekin batera, babes beharra horiek denok dugula aldarrikatzeari utzi gabe".



## Dorleta eta Huhezi arteko pasabidea

Dorleta eta Huhezi artean oinezkoentzako zubia egiteko 48.000 euroko inbertsioa egingo du Eskoriatzako Udalak. 2019an, eremu horretako irisgarritasuna hobetzeko lanak egin zituzten, eta lehen fasean egin zuten espaloiri jarraipena emango diote orain.

# LEINTZ GATZAGA



Pilotalekuko arkupean, Labidea denda eta tabernako terraza hutsik. I.B.

## Oinarrizko zerbitzuak jasotzeko herritik irten beharrek

Azken neurri murriztaileek kalte ekonomiko handiak eragingo dituztela adierazi du Eugenio Otsoa alkateak

#### Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Eusko Jaurlaritzak hartutako neurri murriztaileek Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako udalerrri guztiei eragin diete, baina Gatzagan *handicap* bat dute, biztanleria baxua eta komertzio gutxi dituzten beste zenbait herritan moduan. Izan ere, Labideak denda eta taberna moduan funtzionatzen du, baina herritarren behar guztiak ez ditu asetzen.

#### Oinarrizko zerbitzuen beharra

Pandemia hasi zenetik zortzi kasu positibo baieztatu dituzte Gatzagan; azkena, urtarrilaren 10ean. Intzidentzia-tasa ere hutsen dagoen, baina neurri murriztaileak eurei ere ezarri dizkiete. Arazo nagusia erosketena dela adierazi du Eugenio Otsoa alkateak, eta, horrekin batera, kolpe ekonomiko handia jasango dutela bertako komertzioek ere

gaineratu gura izan du: "Erosketak egiteko Eskoriatzara edo Aretxabaletara jaitea derrigorrezkoa dugu. Ez dugu arazorik horretarako, ondo justifikatuta dagoelako; izan ere, herrian bertan, Labidean, zenbait elikagai ditugu, baina ez ditugu oinarrizko produktu guztiak eskuragai. Horrekin batera, gertuen dugun osasun etxea Eskoriatzan dago eta bertara joan behar izaten dugu, nahiz eta erizain bat martitzenero igotzen den Gatzagara sendaketak egitera".

#### Kalte ekonomiko handia

Gatz Museoari, Gaztainuzketa-ri, Arrate eta Gure Ametsa jateetxei asko eragin diela itxiera perimetralak adierazi du Otsoak: "Guztiak bezero barik daude, eta ekonomikoki izango duten eragina izugarria izango da, kosta egingo zaie egoerari buelta ematea".

## Ehiztariei ordainketen parte proportzionalak bueltako dizkiete

Ehiza denboraldia amaitzean, zapore gazi-gozaekin geratu direla ehiztariak adierazi du Juanito Bengoa Gatzagako Mendi zinegotziak: "Usoen denboraldia amaituta, oilagorrena hila-aren amaieran amaituko da. Data zehatzak ez dakit, baina bukatzean da. Horrekin batera, denboraldiaren %50 ezin izan da aprobetxatu, eta postuetako

ordainketak eginda zituztenei bueltatu egin behar izan diegu dirua. Oilagorrekoei ere bai; alboko herrietakoek, Eskoriatzakoek, ez dute arazorik izan, baina beste herrietako erabiltzaileei ere bueltatu egin behar izan zaie dirua".

Urte erregularra izan dela azpimarratuz, usotan aritzeko egun onak izan direla ere gaineratu du Bengoak, eta ehiza nagusirako, berriz, Federazioari denboraldia luzatzea eskatuko zaio- la, seguruenik.

# Pandemian jarrita arreta, inbertsioak mantentzeko "ezinbestean" zorpetuta

COVID-19ak baldintzatutako aurrekontuak izango dira 2021ekoak, eta, zaurgarrienak babestea bada ere lehentasuna, proiektu esanguratsu batzuk aurten abiatuko dira; bigarren urtez jarraian, EAJ eta PSE-EE abstenitu egin ziren osoko bilkurako bozketan

## Jokin Bereziartua BERGARA

25.119.000 euroko aurrekontua izango du Bergarako Udalak 2021erako, iazkoaren antzeko kopurua -25.251.152 euro-. Diru sarrerak nabarmen jaitsi direnez -Diputazioaren foru fondotik, esaterako, 1.600.000 euro gutxiago jasoko dira-, zorpetzea "ezinbesteko" ikusi du Udal Gobernuak, pandemiari aurre egiteko baliabide nahikoak mantendu eta inbertsio gaitasuna mantentzeko, besteak beste. Urtarrilaren 25eko osoko bilkuran behin-behineko izaeraz onartu zen 2021erako udal aurrekontua; COVID-19aren eraginez, modu mistoan egin zen.

## "Lanketa garaiz hasi dugu"

Erabateko adostasun politikorik ez zen izan, baina ezta kontrako botorik ere. Bigarren urtez jarraian, EH Bilduren Udal Gobernuaren proposamenaren aurrean EAJ eta alderdi sozialista abstenitu egin ziren; 2020an gertatu zen hori, atzera eginda azken aldiz 2002an onartu zirenean udal aurrekontu batzuk kontrako botorik gabe. Negoziatzen azken txanpan EAJren zein PSE-EEren emendakin batzuk onartu izanak saihestu zuen jeltzaleen eta sozialisten kontrako botoa.

Hori bera nabarmendu zuen Gorka Artola alkateak: "Garrantzitsua da kontrako botorik ez izatea. Aurten ere lanketa garaiz eta proposamen sendo batekin hasi genuen. EAJren eta PSE-EEren ekarpenak jaso eta baloratu ostean, gure proposamen txertatzen saiatu ginen, ahal izan dugu neurrian. Proposamen horietako asko aurretik Gobernuak jasotako proposamenak osatzea izan da". Horrekin batera, 2020ko ekainean

eskatutako 1.000.000 euroko mailegua txertatu dute 2021eko aurrekontuan, eta horregatik da aurrekontua abenduan eginga dako aurreikuspenen bano handiagoa: "2021eko aurrekontuan sar zedin ahalegina egin dugu azken momentura arte. Aldundiaren baiezkoa jaso ondoren, azken astean hainbat hobekuntza egin ahal izan dira. Honek ahalbidetu du proiektu gehiago sartu ahal izatea aurrekontu proiektuan, eta, ondorioz, bergararentzat aurrekontu hobea osatzea lortu dugu".

## Inbertsioetarako 3,2 milioi euro

Onartu berri diren aurrekontuetatik kopuru nagusia gastu korranteetara bideratu beharko du Udalak: 8.800.000 euro inguru. Horrez gain, pertsonaleko gastuak dira nagusi, eta 2021ean aurreikusten da 8,6 milioi euro bideratzea zeregin horretara. Inbertsioetarako 3,2 milioi euro inguru daude aurreikusita eta beste erakunde batzuetatik datozen dirulaguntzetan 2,4 milioi euro jasoko ditu Udalak. Eta diru irteera horiek orekatu ahal izateko, sarrera nagusiak izango dira, besteak beste, transferentzietatik eratorritako 10,4 milioi euro inguru eta zerga zuzenetatik jasotzea aurreikusten diren 5,2 milioi euro.

Inbertsiorako gaitasuna mantentzea izan da Udal Gobernuaren lehentasunetako bat, eta 2021ean 3,2 milioi euro izango ditu poltsa horretan; kopuru

**SARRERAK JAITSI ARREN, KREDITUEI ESKER UDALAK INBERTSIO GAITASUNA MANTENDUKO DU**

horretatik milioi bat euro bideratuko dira, bereziki, Zubieta eta, bigarren maila batean, Martokoa eraberritzera. Zubietaren eta Martokoaren ostean, inbertsioetako diru partida nagusiak proiektu hauetara bideratuko dira: bere egoera kaskarragatik parkea itxita duen Arrizuriaga jauregia egonkortzeko eta prozesu parte hartzaile bat bideratzeko 350.000 euro; Agorrosin Berrira begira lehen urratsak egiteko 250.000 euro eta Martinez de Iralako patioan karpa bat jartzeko 200.000 euro.

## Gizarte arloa eta ekonomia

Pandemia aurreko garaian, ohikoa zen gizarte zerbitzuen arloa bideratzea diru kopuru handien, eta joera hori are gehiago nabarmendu du COVID-19ak. Izan ere, 2020ko aurrekontuetan 2.153.000 euro bideratu ziren gizarte zerbitzuetara, eta 2021ean 2.394.000 bideratuko dira; hau da, 241.000 euroko igoera onartu dute. Eta, bestetik, pandemiak eragin duen odoluste ekonomikoa ahal den heinean geratzen saiatzeko, sustapen ekonomikorako partida ere handitu egingo da aurten; 495.000 euro bideratu ziren 2020ko aurrekontuetan eta 2021ean 590.000 eurora igo da; hots, 95.000 euro gehiago.

Bestalde, badira berriak diren partida aipagarri batzuk; esaterako, eraldaketa sozialerako dirulaguntzak -40.000 euro-; San Pedroko organoa errehabilitatzeko partida -40.000 euro-, Olasto dorrea fundazioarekin adostutako hitzarmena -20.000 euro- eta kultura sorkuntzarako beka bat sortzea -5.000 euro-.

**EAJren eta PSE-EEren ekarpenak** EAJk egindako ekarpenetatik honako hauek onartu ditu EH

## Beste hiru proiektu esanguratsu



Arrizuriaga jauregia, Mariaren Lagunditik aterata. ARGAZKIAK: JONE OLABARRIA

**Arrizuriaga: 350.000 euro** Oso egoera kaskarrean dagoen jauregia egonkortzeko lanetarako 300.000 euro bideratuko dira, eta beste 50.000 euro, prozesu parte hartzaile baterako; Arrizuriaga kultura ekipamendu moduan erabiltzea aurreikusten da.



Martinez de Iralako patioa, eguazten goizean.

**Martinez de Iralako karpa: 200.000 euro** Udalak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari egindako eskaerari esker Martinez de Iralako patioan karpa bat jartzeko inbertsioa aurten egingo dela espero dute. San Martin ikastetxeko karpa 2018an jarri zuten.



Agorrosin futbol zelaia: pandemia hasi zenetik, apenas jokatu da partidurik.

**Agorrosin Berria: 250.000 euro** Pandemiak eraginda BK Erek hitzarmena berri behar izan ostean, Udalak konpromisoa du aurten Agorrosin Berria hasteko. 2021ean, 250.000 euro bideratuko dituzte eta lanak, beranduenez, 2023ra arte atzera daitezke.





Zubietza kalea eraberritzera bideratuko du Udalak 2021eko inbertsioen barruan aurreikusita duen kopuru handiena. JONE OLABARRIA

Bilduk: Martokoa auzoa berriro urbanizatzeko, 250.000 euro; Bergarako jaiotza-tasa handitzeko azterketa egiteko, 10.000 euro; hileta zibiletarako gunea sortzeko azterketa egiteko, 10.000 euro, eta oraingo osoko bilkuren aretoa horretarako egokitzea; enplegu garapenaren transfereziaren partida handitu, 44.000 euro; eta Arrizuriagako proiektuari 50.000 euro gehitu.

PSE-EEk egindako ekarpenetatik, aldiz, honako hauek onartu ditu EH Bilduk: herriko erai-kinetan amiantoa kentzeko la-

netarako, 30.000 euro; fatxadak berritzeko, 40.000 euroko partida; egoerak ahalbidetzen duenean turismoa indartzeko, 10.000 euroko partida handitzea; euskal kultura erosteko partida berria sortzea, 10.000 euro; liburuak erosteko partida, 6.000 euro; eta eskola materiala herrian erosteko, 10.000 euroko partida.

**Amaieran, ETaren hilketa bati zita** Osoko bilkuraren amaieran, galderen eta eskaeren tartean, alderdi sozialistaren bozeramaile Alberto Alonsok gogora eka-

rrri zuen urtarrilaren 25ean 41 urte bete zirela ETak Luis Dominguez Jimenez bergararra "krudelki eta bidegabeki" erail zuenetik. Eskatu zuen, "omenaldi txiki gisa", urteurren hori aktan jasotzea, PSE-EE alderdiaren izenean. Horren ostean, Gorka Artola alkateak hartu zuen hitza, udalbatza osoaren izenean, eta Dominguez Jimenezen familiari samina adierazi zion: "Jakin badakigu bere alarguna duela aste batzuk zendu zela; gure samina adierazi nahi diogu familia osoari".

## Akordiorako borondatea agertu dute

2021erako aurrekontuak eztabaidatzeko bilkura ere modu mistoan egin zuten. EH Bilduko Nagore Iñurrategik, Ainhoa Letek eta Ekaitz Aranberrik; EAJko Elena Letek eta Maite Agirrek; eta PSE-EEko Alberto Alonsok era presentzialean jarraitu zuten bilkura eta gainerako ordezkariak etxetik jarraitu zuten. Baita Gorka Artola alkateak ere, lehen aldiz, gertuko baten sintomengatik konfinatzea erabaki zuelako.

**Ez dira politika egiteko garaiak** Pandemiak zuzenean eragin zuen aurrekontuen bueltako eztabaidan. Desadostasunak desadostasun, argi geratu zen adostasuna lortzeko borondatea



Astehenerako osoko bilkura erdipresentzialaren hasiera. GOIENA

izan dela Udal Gobernuaren zain oposizioaren partetik. Udalbatzaren aurrean nork bere balorazioa egiteko orduan, EH Bilduk, EAJk eta PSE-EEk adierazi zuten eskertu dutela

beste aldeak akordiora heltzeko erakutsi duen borondatea. COVID-19a eragiten ari den egoera zailaren aurrean politikariek ez egiteko borondatea ere agertu dute hiru alderdiek.



## "Oso egoera konplexuan lortu dugu aurrekontu orekatua onartzea"

NAGORE IÑURRATEGI EH BILDUREN BOZERAMAILEA

"Oso egoera konplexuan lortu dugu aurrekontu orekatua onartzea. Gizarte zerbitzuetan eta sustapen ekonomikoan jarri dugu arreta berezia eta arlo horietan partidak handitzea izan da gure nahia; osasun egoera larri honetan are gehiago, ahalegin berezia merezi zuten bi arlo dira. Bergararren osasun fisikoa lehen planoan jartzeaz gain, uste dugu inportantea dela herritarren osasun mentala ere zaintzea, eta, horregatik, adibidez, jaietarako partidak mantendu egin ditugu 2021eko sanmartzialei arte; ospatzeko aukerarik ez baldin badago, diru hori beste norabait bideratuko dugu. Gainera, kultura ekintzetarako partidak handitu egin ditugu, uste dugulako bergararrok bizipozerako premia ere badugula. Eta kirol instalazioetan ere izango dira nobedadeak aurten: Labegaraieta bukatu berri dugu eta laster hasiko gara Agorrosinekin.

Zubietza kalea berriro urbanizatzeko lanei aurten ekingo diegu eta, beste maila baten bada ere, Martokoa ere sartuko gara. Era berean, garrantzitsua da Arrizuriaga egonkortzeko lanak aurten hastea, eraikinerako kultura proiektua idaztearekin batera".



## "Pobreak eta landu gabekoak dira; EAJk ipini die iparrorratza"

ELENA LETE EAJ-REN BOZERAMAILEA

"Gure lanean eta ezagutzan oinarrituta, hamahiru emendakin aurkeztu genizkion Udal Gobernuaren aurrekontu proiektuari; San Joxepe eguneko zentroa egokitzeke eta Zubietza partzialki bada ere eraberritzeko konpromisoa lortu ditugu, adibidez. Ezin dugu ahaztu, baina, aurrekontu honek bi hutsune nabarmen dituela, eta hutsune horiek ezin genuen aldeko botorik eman, ezta gutxiago ere.

Batetik, orain zen ueña lur azpiko parkinga egiteko; proiektua mahai gainean zuen Udal Gobernuak eta duela urtebete pasa esan zuen mugikortasun plana garatzen zuenean erabakiko zela parkinga egin edo ez. Ez dugu mugikortasun planik eta ez dugu parkingarako proiekturik, eta parkinga behar du Bergarak. Eta, bestetik, ostalariek beharrezkoak dituzten dirulaguntza zuzenak ez dituzte txertatu aurrekontuan; hau da, EAJri esker diru gehiago bideratuko zaie, baina ez dira laguntza zuzenak, Diputazioetik datozenak direlako. Uste dugu Udalak laguntza zuzenak eman behar zizkiela ostalariei. Hala ere, aurrekontu proiektu pobrea eta landu gabekoa da; EAJk ipini dio iparrorratza EH Bilduren proposamenari".



## "Zuzenketa batzuk onartu arren, ez dira gure aurrekontuak"

ALBERTO ALONSO PSE-EE-REN BOZERAMAILEA

"Oso testuinguru gogorra bizi dugu, eta aurrekontu honek gehiengo politiko baten babesa bai, baina gehiengo sozial baten babesa ere eskatzen du. Zuzenketa batzuk onartu dizkigute; tartean, turismoa indartzeko, euskal kultura bultzatzeko eta eraikin publikoak desamiantatzeko; baina ez dira gure aurrekontuak. Anbizio handiagokoak izango ginateke aspektu batzuetan... Hori bai, pandemia hasi zenetik Gobernuaren lana ez oztopatzen saiatu gara, eta abstenitu egin gara. Bestalde, harritu egin gaitu liberatuek soldata igo izanak, gainerako funtzionarioen proportzio berean izan bada ere; garaiotan, klase politikoa eredu izan behar dela uste dugu".



Ramon Loiti, Ainhoa Larrañaga, Unai Asurmendi eta Garbiñe Elorza, prentsurrekoan, herritarren babesarekin. JONE OLABARRIA

# Angiozar "berpizteko", Toki Entitate Txiki izateko prozesua abiarazi dute

Bergarako Udaleko hainbat zerbitzu eta eskuduntza zuzenean bertatik kudeatzeko eskumena izatea ekarriko luke. Gipuzkoako 2/2003 Foru Arauak zehaztutakoaren arabera, baina, gutxienez, 500 biztanle behar dira, eta Angiozarren 300 dira

**Jone Olabarria** BERGARA

Angiozar Balarako Batzarrak eguaztenean egindako prentsurrekoan iragarri zuen "etorkizuneko erronkei erantzuteko urratsak" egiten hasiak direla. Bide horretan, bi prozesu ezberdin bereizi nahi izan dituzte, nahiz eta biak ere "elkarrekin lotuak" egon: Angiozar bera Tokiko Entitate Txiki izendatzea da gerora begirako prozesuan emandako lehen pausoa. Prozesuaren jendarteratzea da abian ipiniko duten bigarren prozesua.

## Eskumen gehiago

Tokiko Entitate Txiki estatus juridiko berri horrek "autogestiorako ahalmen handiagoa" emango lioke Angiozarri. Argi utzi nahi izan dute horrek ez lukeela ekarriko udalerrri batek dituen eskumen berberak izatea: "Ez da udalerrri bihurtzea, baina

entitate juridiko publiko bilakatu eta guk geuk gutxieneko eskuduntza batzuk Bergarako Udaletik deszentralizatzea ekarriko liguke".

2020ko uztailen martxan jarri, eta ordutik hona lanean aritu dira Angiozar Balarako Batzarrereko kideak. Zehaztu dutenez, Unai Asurmendik, Garbiñe Elorzak, Ainhoa Larrañagak eta Ramon Loitik osatu dute lantaldea: "Entitate txiki diren Ereñotzuren eta Itziarren harremanetan izan gara, baita prozesu horietan parte hartu duen abokatu taldearekin ere. Berga-

**"EZ DA UDALERRI BIHURTZEA, BAINA BERGARAKO UDALETIK DESZENTRALIZATZEA EKARRIKO LIGUKE"**

rako alderdi politiko nagusi diren EAJrekin eta EH Bildurekin ere elkartu gara".

## Foru Araua, "oztopo nagusi"

Helburua lortzeko lehen oztopoa Gipuzkoako 2/2003 Foru Araua dela azaldu dute. Arau horrek herrigune izateko gutxieneko 500 biztanleko kopurua ezartzen du, eta Angiozarren 300 pertsona daude errolatuta: "Foru Aldundiari, langa hori jaitsti eta 250ean kokatzea eskatu diogu. Kontziente izanda muga hori jaitzita zenbat auzo sartuko liratekeen horren baitan, beste baldintza bat izatea ere eskatu diogu Aldundiari: Angiozarren kasuan, auzo-alkatearen figura edota Angiozarrek duen hauteskunde sistema".

Bere helburua lortu eta Entitate Txiki izendapena lortuko balu, Gipuzkoako 89 udalerrien



Angiozarrerako sarrera, eskola atzean duela, atzo. I. Z.

## Auzoa, "minimotan" eta "erdi hilik"

"Azpiegiturak, gure ingurunea, gure bideak, eraikuntzak eta baita zerbitzuak ere oso minimotan daude. Alde horretatik, lan handia dago egiteko". Auzoa "erdi hilik" dagoela azaldu dute: "Hain errotuta egon diren auzolana eta inplikazioa gainbeheran daude".

artean, atzetik hasita, hamabigarrena litzateke Angiozar, biztanleriari erreparatuta. Gaur-gaurkoz, Itziar eta Ereñotzu dira, Gipuzkoan, Angiozarrek nahi duen estatus juridikoa duten bakarrak.

## Bideragarritasuna aztergai

Angiozarrek etorkizunean izan dezakeen bideragarritasuna aztertzeko Siadecori diagnosi bat eskatu diotela ere azaldu dute: "Bide bati ekingo diogu, eta, prozesu horretan, Angiozarren etorkizuneko bideragarritasuna aztertu nahi izan dugu. Kontu eta ondarearen ikuskaritza egingo dugu". Herritarren inplikazioaren bila, angiozartarrak "erosoen" sentitzen diren alorrean ekimenarekin bat egitera animatu dituzte.

## Batzar Nagusietara

Behin beste entitate txiki batzuen esperientzia ezagututa eta Udaleko ordezkariarekin batzartuta, Gipuzkoako Batzar Nagusietako alderdi politikoeekin ere partekatu nahi izan dute asmoa: "Elkarrekin-Podemos eta EH Bildu Angiozarrera etorri ziren. Berriz, PSOE eta EAJ bisitatzea gu joan ginen Batzar Nagusietara.

**"GEHIENGOAK BIDE HONI EKIN NAHIKO DIOLA USTE DUGU, BAINA GALDETZEA TOKATZEN DA ORAIN"**

PP izan da gurekin batzartu ez den alderdi bakarra".

Ostiralean, urtarrilak 22, iritsi ziren prozesuaren "puntu gorenera": "Ostiral hartan, Batzar Nagusietan agerraldi instituzionala izan genuen eta aukera izan genuen Angiozarren berri eman eta gure eskaerak egiteko; orain, itxoitea eta, beharbada, borrokatzea tokatzen zaigu".

## Saiakerak aurretik ere

Prozesua martxan jarrita eta beharrezko tramiteak eginda, "herriari galdetzeko unea" iritsi dela azpimarratu du Ainhoa Larrañagak: "Uste dugu gehien-goak nahiko diola bide honi ekin, baina herriari galdetu arte ez dakigu, eta hori da orain egitea tokatzen zaiguna".

1978an, hauteskundeak egin ziren Angiozarko batzarra eratzeko, eta ordutik hona batzarrak "ikaragarritzko lana" egin duela azaldu dute: "Ikusten genuen auzoaren eta Udalaren harremana, soilik Auzo alkatearen figura baliatuta, ez zela nahiko, eta egin zen bestelako saiakera bat ere. Fundazio moduko bat ere eratu genuen, estatus juridiko baten bila, baina, hala ere, ez zen nahikoa izan".

Gaur egun arte hiru diagnosi azterketa egin direla zehaztu dute, 1978an, 1990ean eta 2010ean, eta, bertatik irtendako hainbat proiektu gauzatu diren arren, "Angiozarren kohesiorako garrantzitsuenak direnak ez dira aurrera atera".

# "Ilustrazio garaiko abade bitxia izan zen Garitano"

**JUAN MADARIAGA ORBEA** HISTORIAN KATEDRADUNA ETA IDAZLEA

1762tik 1784ra Santa Marina elizako abade izan zen Rafael Garitano-Aldaeta, Bergara Ilustrazioaren plaza zen garaian; elizgizon "bitxiaren" ikerketak ikertu ditu Madariagak

**Jokin Bereziartua** BERGARA

*Una biblioteca bergaresa de la época ilustrada: la de don Rafael de Garitano-Aldaeta* liburuaren aurkezpena antolatu du Udalak biharko, urtarrilak 30, udaletxe-ko osoko bilkuren aretoan (12:00). Garitano-Aldaetaren bitartez XVIII. mendeko Bergara ezagutzeko aukera ematen du liburuak; betiere, Juan Madariaga egileak dioenez, "oso bitxia" izan zen pertsonaia ezezagun baten bidez. **Nor zen Rafael Garitano-Aldaeta? Eta zergatik da liburu baterako ematen duen pertsonaia?**

Bergarako Santa Marina elizako abadea izan zen, 1762tik 1784ra. 1736an jaio zen, eta 1784ko abenduan hil. Urte haiek izan ziren Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte-ko eta Errege Seminarioko urte oparoenak, Bergara Ilustrazioaren garaiko gune esanguratsuena zenean. Garitano abadea zen, eta aspektu batzuetan kontserbadorea, baina beste esparru batzuetan oso aurreratua zen bizi zuen garairako. **Zertan zen aurreratua, adibidez?** Nekazaritza-ikertzailea zen, eta hori oso bitxia zen garai hartako elizgizon batendako. 1764an sortutako Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak lantzen zituen arloen artean garrantzi handia zuen nekazaritzak; Garitanok



Juan Madariaga Orbea, Rafael Garitano-Aldaetaren gaineko liburuaren egilea. J.M.

ikerketa oso esanguratsu batzuk egin zituen patataren inguruan. Garai hartan, gizakiak ez zuen patatarik jaten, animalientzako elikagaia zen-eta orduan, baina Europar hasita zeuden ikerlari batzuk patataren gainean ikeritzen; horien artean, Antoine Parmentier ikerlari frantziarra nabarmendu beharra dago -patataren kimikari buruzko obra bat argitaratu zuen 1773an-. Gizakiarendako elikagai oso aproposa zela ondorioztatzen zuten ikerketa haiek, eta Garitanok berak patataren gaineko

esperimentu batzuk egin zituen Bergaran, gerora Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen *Extractos* izeneko buletinean argitaratu zena. Garitano bera patata jaten ere hasi zen; garizuman ez zen okela jaten, eta patatarekin orekatzen zuen elikadura. **Abade bat ikertzaile lanetan, eta haren lanak orduko buru modernoenen argitalpenetan. Oso bitxia, ala?** Oso. Ez zuen mediorik eta esperimentuak bere ortuan egiten zituen, Antoine Parmentierren eta bestelako ikertzaileen liburuak erositak. Hau da, ahalik eta

## Aurkezpenean eta udaletxean salgai

1991n *Historia social de Bergara en su época preindustrial* liburuak idatzi zuenean ezagutu zuen Madariagak Garitano-Aldaeta: "Liluratuta geratu nintzen. Oso erakargarriak eta interesgarriak diren ezaugarriak ditu, baina 1991n ezin izan nion gaiari heldu, beste ikerketa batzuetan ari nintzelako; ahal izan dudanean heldu diot, Garitanok merezi duelako". 30 bat orrialdeko "artikulutxo bat" izan behar zena 360 orrialde inguruko liburu mardul bihurtu da: "Beste artxibo batzuetan izan naiz, baina Bergarako Udala Artxiboa izan da nire oinarria; aipatzekoa da Udala Artxiboan digitalizatuta dagoela Santa Marina elizako fondoa. Gogoan dut hori ez zela horrela duela 30 urte eta Santa Marina elizan aritzen nintzela ikertzen; eskerrak Udala Artxiboak digitalizatu dituen...". Biharko aurkezpenean egongo dira salgai liburuak, eta, aurrerago, Udala arduratuko da salmentaz.



Liburuaren azala. BERGARAKO UDALA

gehien dokumentatu ostean bere kabuz garatu zituen nekazaritza arloko hainbat ikerketa; oso tipo aurreratua zen bere garairako. **Herri xumea geroago hasi zen patataren onurez jabetzen, ezta?**

Patataren kontsumoa soldadu frantsesen artean zabaltzen hasi zen gerra napoleonikoen hasieran (1808), sekulako goseteak eragin da. Geroago, gizarte osora zabaltzen hasi zen, I. Karlistaldiaren bueltan (1833-1840). Premiak eraginda zabaldu zen patataren kontsumoa, baina 30 urte lehenago Garitanok ikertua zuen patata ona zela gizakiarentzat. **Baina Garitano oharkabean pasatu da historian zehar, hein handi baten, zure lana heldu den arte.**

Garitano oso ezezaguna da oraindik Bergaran, eta are ezezagunagoa Euskal Herrian. Ez da, inondik inora, Xabier Maria de Munibe -Peñafloridako kondea-

moduko pertsonaien tankerakoa; bigarren lerroko pertsonaia da, baina bere ikerketak ezagun egin ziren *Extractos* izeneko idatzietan argitaratu zirelako.

**Liburuzale amorratua ere bazen...** Horixe da Garitano horren arraroa izatearen arrazoia, dokumentatzeko liburu pila bat zituela; 600 liburutik gora zituen. Baina, kopuruaz harago, bitxi-ena zena zen eta ez zituela bakarrik liburu erlijiosoak, liburu zientifiko asko ere bazituen, eta hori oso arraroa zen. Horiek eta beste hainbat bitxikeria jaso ditut liburuan.

**"BERE KABUZ IKERTU OSTEAN PATATA JATEN HASI ZEN; ANIMALIEI EMATEN ZITAIEN ELIKAGAIA ZEN"**

## Harrizkoak aldatzeko unea

Ipintza futbol zelaiko harrizko aulkiak aldatzeko lanetan ari dira Udaleko langileak. BKEko futbol sailak duela urtebete inguru egin zuten aulkiok aldatzeko eskaera, futbolearen aritu ohi diren neska-mutikoendako arriskutsua delako. Hurrengo asterako aldatuko dituzte. Ipintzako zelaia artifizial egin zutenean eraiki zituzten harrizko aulki horiek, duela hamabi bat urte.



BERGARA KIROL ELKARTEA

## OHARRAK

### 2020ko dirulaguntzak justifikatzeko epemuga

2020rako Udalaren dirulaguntza-programen deialdi irekira aurkeztutako elkarteek jasotako laguntzen justifikazioa aurkeztu beharko dute etzira; argibide gehiagorako, BAZera jo.

### Miguel Altuna Lanbide Heziketa: San Juan Bosco

San Juan Bosco ez dute ohi moduan ospatuko, baina gaur, ekintza batzuk egingo dituzte: berdegunea auzolanean txukunduko dute eta zuzendari izandakoek zuhaitzak landatuko dituzte (12:00).

### Erretiratuen eta pentsiodunen batzar irekia

Martitzenean izango da, otsailaren 2an, Irizar jauregian, 18:30ean. Hilaren 13rako deituta dagoen manifestazioa prestatzeko da.

# Aitor Arregi, futbolearen egindakoarekin "harro"

Eibarrekin igo zen Bigarren B Mailatik Lehenengo Mailara Aitor Arregi futbol jokalaria bergarra. Egun, Bigarren B Mailan dihardu, Amorebieta taldearekin. Bere kirol ibilbidearen erreposoa egin du, baita aurtengo denboraldirako asmoak zehaztu

**Jone Olabarria/Mireia Bikuña** BERGARA  
11 urte zituela hasi zen futbolearen Aitor Arregi, Athletic taldeko alebin mailan. Orduetik hona, hemeretzi urte pasatu dira, eta, tartean, Bigarren Mailara igotzea ere lortu zuen, Eibar taldearekin. Gaur egun, Amorebieta taldean dihardu, Bigarren B Mailan.

Bere kirol ibilbidearen nondik norakoez galdetuta, laburpena "luzea" dela aitortu du: "Asko disfrutatu dut, eta jarraitzen dut gozatzen. Gozatzeari uzten diodanean edo gorputzak nahikoa dela esaten didanean, orduan bukatuko da ibilbidea". Kirolari bizitzan urteen zama nabaritzen hasia dela ere aitortu du Arregik: "Gazteagoa zarenean, deskantsatu barik edo lesioekin, ahal den moduan baina aurrera egitea lortzen duzu. Orain, baina, gauzak bi aldiz pentsatu behar dira".

Bigarren Mailara igoera lortu osteko denboraldia ez zen "berreziki polita" izan bergararentzat: "Taldea mailan, bai; azkenean, bi igoera jarraian izan genituen. Nire kasuan, igoeraren lehen urtean, Bigarren B Mailan geundela, minutu dezente jokatu nituen, baina Bigarren Mailara igo ginenen ez nituen minutu asko izan".

## Aurtengoari begira

Une honetan lehen postuan dago Aitor Arregiren Amorebieta; hala ere, gauzak "ondo" egiten jarraitzearen garrantzia azpimarratu du: "Ondo hasi ginen eta ondo jarraitzen dugu. Kopan kanporaketa bat pasatu genuen, eta pena izan zen bigarrena ez gaintzea. Nik uste dut gehiago merezi genuela. Orain, helburua martxa honetan jarraitzea da".

COVID-19ak liga baldintzatu duela jakinda, baina egoerak aurrera egingo duen esperantzarekin, martxo inguruan du jarrita begirada Arregik: "Mar-



Aitor Arregi bergarra, Agorrosin futbol zelaiko harmailetan. GOIENA

## "FUTBOL ZELAIAN OSO LEHIAKORRAK GARA, JOKATZEKO MODU EZBERDINA DUGULA USTE DUT"

txo inguruan ikusiko da zeintzuek egon behar duten goian, zeintzuek erdialdean eta zeintzuek behean. Espero dezagun guk goialde horretan jarraitu ahal izatea".

Astean lautan entrenatzen dira, "normalean", gehi asteburuetako partidua. Hain zuzen, zehaztu du publiko barik entrenatzea "pena" dela: "Lehen jardunaldiak publikoarekin egin ahal izan genituen eta uste genuen, azkenean, libratu eta aurtengo denboraldia publikoarekin egitea posible izango zela. Partidu guztiak lagun artekoak direla dirudi orain; bagabiltza ohitzen, baina ez da polita horrela jokatzeko". Etxean jokatzeko dutenean soilik ez, kanpoan ere "hotzago" nabaritzen dituzte partidua, eta azpimarratu du zaleen babesa "lehenbailehen" berreskuratu gura dutela.

## Taldearen garrantzia

Aurten, "kasualitatez", taldeki guztiak euskaldunak direla azaldu du Arregik, eta, aitortu duenez, "kuadrilla bat bezala" dira: "Zelaiaren oso lehiakorrak gara, eta, beste taldeekin alderatuta, jokatzeko modu ezberdina dugula esango nuke. Indartsu garen alderdietan oso indartsuak gara, eta partidu guztiak edo gehienak gure jokamoldera ekartzen dakigu. Uste dut horregatik gabiltzala hain ondo".

Futbolari moduan egindako ibilbidean penaren batzuk badituela aitortu du: "Lehen Mailan inoiz ez dut jokatu, seguruena. Pena horrekin beti geratuko naiz, baina bueno...".

Futbolak "balio asko" eman dizkio Arregiri, "barneratuta" dituenak. "Urte onak" pasa ditu gazte bergararrak, talde ezberdinetan "esperientzia oso onak" izan dituela azpimarratu nahi izan du, eta, dioenez, "harro" dago gaur egun arte izandako ibilbide profesionalarekin: "Lagunak egin ditut leku guztietan, Espainian zehar ia edozein lekutara joan naiteke oporretan lagunei bisita eginda. Hori asko da niretzat".

## Otsailaren 7ra arte dago ikusgai pilota elkartearen erakusketa

'Toribio Jauregiren pilotako argazkiak' erakusketak 1915etik 1970era frontoian ateratakoak biltzen ditu

**J.O. BERGARA**

Joan den asteko egubakoitzean ireki zuten erakusketak 40 argazki batzen ditu Aroztegi aretoan. 2005ean Isabel Vidartek egindako lana baliatu du pilotazale eta argazkizale Iñigo Zaitegi bergararrak: "Azken bolada honetan, bogan jarri dira argazki zaharrez osatutako erakusketak, garaiak nola aldatu diren erakusten dutenak. Eta honako hau ere buelta horretan koka dezakegu".



Erakusketaren argazki bat. B.U.A.

## Gizartearen isla

1915etik 1970era arteko 40 bat argazki erakutsiko dituzte, Bergarako Udal Pilotalekuaren "urrezko urteetako harribitxi horiek" bergarar guztiei berriz erakusteko asmoz. Orduko gizartearen aisialdiaren barruan frontoia garrantzi handia zuen: "Sekulako jendetza elkartu ohi

zen munizipalean; Arrasatetik, esaterako, jende mordoia etortzen zen". Otsailaren 7ra arte egongo da ikusgai: martitzenetik egubakoitzera, 18:00etatik 20:30era; zapatuetan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00-20:30; eta domeketan, 12:00etatik 14:00etara.

## Sarreraren itzulketa, bergarar ez diren guztien eskura

Itxiera perimetralak erabakiak hartzea behartu du Bergarako Udaleko Kultura Saila, eta esan-guratsuen antolatuta dituen kultura ekitaldietarako Bergararik kanpokoek sarrera erositak dutenen kasuetan, sarrera horien itzulketa eskatzeko aukera emango dietela. Itzulketa hori eskatzeko, hain zuzen ere, mezua bidali beharko da *kultura@bergara.eus* helbide elektronikora.

*kultura@bergara.eus* helbide elektronikora.

Sarrerak erositakoan norberaren posta elektronikoa jasotako erosketa-konfirmazioaren mezua birbidali behar da, eta, horretaz gain, mezuan bertan sarrerak itzultzeko eskatu eta ondorengo informazioa eman beharko da: izen-abizenak, zein emanalditako sarrerak itzuli nahi diren eta zenbat sarrera diren. Itzulitako sarrera guztiak jarriko dira berriro ere salgai bergararentzat.

## Herriko kultur sortzaileekin mahai ingurua gaur

Bergarako Ikama ikasle mugimenduak antolatuta, herriko kultur sortzaileen egoera bistaratzeko asmotan mahai ingurua antolatu dute gaurko, hilak 29, 19:00etan, kartzela zaharrean. Bertan izango dira Alex Arteaga, Aritz Alustiza, Maitane Arteaga eta Aniotz Biru musikari bergararrak, baita Aroa Elortza idazlea ere.

## Bergarako Musika Eskolaren eskutik hainbat ikastaro

Horien baitan dira 1-3 urte arteko umeekin egiteko *Musika familiar* ikastaroa, *Zuzeneko oinarriko soinuztapena* izenekoa, eta hainbat musika instrumentu ikastekoak: fagota, kontrabaxua eta txalaparta. Instrumentuen ikastaroak otsailetik ekainera bitartekoak izango dira, astean behin. Izen ematea, otsailaren 7ra arte, 943 76 57 80 zenbakian.




## ELURRETAKO ARGAZKIEN GOIENA LEHIAKETA 2021

### SARI NAGUSIA

OÑATIKO SORALUZE JATETXEAREN ESKUTIK  
BI LAGUNENDAKO OTORDUA

### PUBLIKOAREN SARIA

INTERSPORT LORAMENDIK EMANDAKO  
MOTXILA ETA MENDIRAKO MAKILAK



ARAOTZ, OÑATI  
Iker Zubizarreta Iturbe



AZKOAGA AUZOA, ARAMAIO

Izar Elorza

Arrakasta handia izan du Goienak lehen aldiz antolatu duen Elurretako Argazkien Lehiaketak. Guztira, **647** jaso ditugu. Gainera, Publikoaren Saria aukeratzeko ia **500** boto eman dira.

**Horregatik guztiagatik,  
parte hartu duzuen guztiei eskerrik asko!**

ANTOLATZAILEA:

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:

**INTERSPORT**  
LORAMENDI



Argazki guztiak hemen:  
[goiena.eus/bereziak/  
elurretako-argazkien-  
lehiaketa-2021](https://goiena.eus/bereziak/elurretako-argazkien-lehiaketa-2021)



Antzuollarrak Herriko Plazan martitzen iluntzean. MAIDER ARREGI

## Egoera zaugarrian daudenei laguntza

Debagoieneko Mankomunitateak sustatutako gizarteratze eta laneratze sareari atxikimendua eman diote Antzuolako udal ordezkariak. Helburua da egoera ahulenean dauden herritarrei laneratze eta gizarteratze aukerak bideratzea

**Maidar Arregi** ANTZUOLA

Martitzenean egin zen Antzuolako urtarrileko ohiko osoko bilkura. Debagoieneko gizarteratze eta laneratze sareari aho batez eman zioten atxikimendua Udala ordezkatzan duten hiru alderdiek -EH Bildu, EAJ eta alderdi sozialista-. Sarearen helburua da elkarlanaren bidez arlo honetan eskualde-mailan jarduten duten eragileen gizarteratze eta laneratze-prozesuak hobetzea gizarte egoera ahulean dauden pertsonen gizarteratze eta laneratzea lortzeko.

Lan-merkatuan sartzeko edo enpleguari eusteko zailtasunak dituzten pertsonak laneratze esparru egonkorra eta iraunkorra ere bilatu gura du sareak. "Debagoien eta Debabarren mailan sortu da eta atxikimendua eman dute ere Jaurlearitzak eta Aldundiak. Eskualdeko Mankomunitatetik gizarteratze eta laneratze prozesuei indarra emateko beharra atzeman da; batez ere, inklusio egoeran dau-

denen artean. Ez da egitura juridiko berri bat sortu. Baina indarra eman nahi zaie prozesu horiei", azaldu du Josune Martinezek, Antzuolako Gizarte Ongizate zinegotziak.

Sareak, baina, ez die erabil-tzaileei zuzeneko arreta-zerbitzurik ematen. Haren lan-esparruan sortzen diren aukerei esker, esku hartzeko prozesuak hobetu, osatu eta integratzen dira, besteak beste, baina sarea osatzen duten eragileak arduratzen dira prozesu horiek gauzatzeaz.

**InklusioB programa**

Antzuolan, Gipuzkoako Foru Aldundiak Matia fundazioaren gidaritzapean iaz abiatu zuen lehenengoz, eta proba pilotu

**INKLUSIOB PROGRAMA BERRABIATUKO DU UDALAK, BAZTERKERIA EGOERAN DAUDENEI LAGUNTZEKO**

gisa, InklusioB programa. Helburua da inklusioan nahiz bazterkeria egoeran dauden antzuollarrak identifikatzea. Modu horretan, bazterkeria egoeran sentitzen den kolektiboari aho-tsa ematea eta herrira gerturaztea gura izan dute. Herritar talde bat hasia dago batzarrak egiten Matia fundazioako dinamizatzaileekin. Hala ere, pandemiak bete-bete harrapatu zituen iazko udaberrian, eta batzarrak etenda egon dira. "Gizarte larrialdi laguntzei dago-kienez, ez dugu igoerarik atzeman 2020an. Baina zain gaude, bada-kigulako eskaerak etorri daitezkeela. Bagabiltza InklusioB planaren bitartez herrian egoera zaugarrian daudenak identifikatzen ere. Nola iritsi eurengana aztertzen gabiltza, eta, herri-ira iristen direnen kasuan, bazterkeria egoeran ez erortzeko harrera plana egiten diegu". InklusioB egitasmoa berrekin eta emaitzak jakinarazteko asmoa du Udalak.



Uztalean batzarkide Marian Beitialarrangoitiak egindako aurkezpena. GOIENA

## EH Bilduk hamar urteko jarduna aztertuko du bihar herritarrekin

Urtarrilaren 30ean, zapatua, 09:30etik 12:00etara egingo du EH Bilduk kongresua, Torresoroa aretoan

**Maidar Arregi** ANTZUOLA

Hamar urte dira EH Bildu lehenengo hauteskundeetara aurkeztu zela. Orduetik hona egindako lanaren berri emango du zapatuan Antzuolako EH Bilduk: "Hamar urtean lan mardula egin dugu; batik bat, tokiko erakundeetako jardunean. Euskal Herriko independentisten eta ez-kertiarren erreferente gara. Bada, erreferentzia izatea ez da nahikoa, eta oinarri hori nola indartu eta independentziaren eta justizia sozialaren helburuak lortzeko zein bide eta estrategia jorratu erabakitzeke, kongresua

egingo dugu". Era berean, zuzendaritza karguetan ariko diren kideak aukeratu dituzte. "Udalaren jardunaren inguruan ere berba egingo dugu. Azken hiru agintaldietan izan dugun zorra ordaintzeko zama arinduta, aurrera begira jarrita gaude. Udal kudeaketarako garai gogorrek diren arren, hainbat lantalde ari da gai ezberdinen inguruan lanean, zinegotzi taldearen bultzatzen. Tarte zabala hartuko dugu ere herritarren kezkek, egonezina eta ekarpenak elkarbanatzeko jarduerara politiko indartsu bat garatzeko asmoz".



ANTZUOLAKO UDALA

## Utzitako ibilgailuak Basalden

Basalde auzoan bi ibilgailu daude aspaldian utzita: kamioi bat eta auto bat. Udalak utzitako ibilgailuen prozeduran sartuta ditu ibilgailuak eta biak hiri hondakin solido gisa tratatuko ditu. "Epaitegiak baimena ematen duenean, bitartean jabeen erreklamaziorik ez badago, ibilgailu biak hiri hondakin solido gisa tratatuko ditugu. Prozedura luzea izan ohi da".

# Herriko gaztetxoak ere hasi dira kirola egiten

Pandemiaren ondorioz horrenbeste denboran geldi egotera behartuta egon diren herriko gaztetxoek berriro dute kirola egiteko aukera. Hori bai, osasun neurriak bermatuta: seiko taldeetan, maskara jantzita eta, beti, burbuila-taldea errespetatuta

**Maidar Arregi** ANTZUOLA

Kirol gosez eta jokatzeko aukera noiz iritsiko irrikaz zeuden Antzuolako neska-mutikoak. Oso neurri zorrotzak betez gero kirola kultura bezain segurua izan daitekeela erakutsi gura dute. Hala, gehienez seiko taldeetan –beti taldekide berak–, maskara jantzita, distantziak mantenduz eta irribarre handiz abiatu dituzte entrenamenduak Olalde pilota elkarteko gaztetxoek herriko pilotalekuan.

Egoera bertsuan daude futbol eskolako gaztetxoak. Astelehenen hasi ziren –64 haur daude futbol eskolan–. "Guretzako osasuna da lehentasuna, eta, distantzia mantenduz, kontaktu gutxiko jokoak egiteko eskatzen diegu: baloiarekin tokeak, korrika... Preferenteak, kadeteak eta alebinak hasi dira entrenatzen. Ez, ordea, gazteak. Lehiaketarik ez dagoenez, euren esku uzten dugu erabakia", dio AKE-ko presidente Ibon Gezalagak.

**Eskola-kirola martxan da**

Pausoka guraso taldea arduratzen da Herri Eskolako ikasleen eskola-kirola antolatzeaz. Hala, elkarteko kideek, kirolak gaztetxoengan duen garrantzia aintzat hartuta, aurrera egitea erabaki dute: "Eskola-kirola hasi, hasiko



Olaldeko pilotari gazteak martitzeneko entrenamendu saioan. MAIDER ARREGI

## ANTZUOLAKO ESKOLA-KIROLA ETA KIROL ESKOLAK ABIAN DIRA, OSASUN NEURRI ZORROTZEKIN

da. Orain, izen-ematea zabalik dugu, eta ondoren, taldeak antolatzen hasiko gara. Entrenatzaileak gurasoak gara eta osatzen diren taldeen arabera antolatuko gara", azaldu du Pausokako Andoitz Aranburuk. Egoerara

egokitu eta gehienez seiko taldeetan antolatu beharko dute, beraz. Eskola-kirolean maskara erabiltzea nahitaezkoa da, bai aire zabaleko kirol-jardueretan, baita barruko esparruetan. Taldea beti pertsona berek osatu beharko dute.

Neurri horiek bertan behera geratuko dira COVID-19aren kasu positiboen azken hamalau egunetako intzidentzia-tasa metatua 100.000 biztanleko 500 baino gutxiagokoa duten udalerrietan: hau da, Antzuola zona gorria pasako balitz.

## Eskola-kirolaren onurak

Pausoka guraso taldeak orain dela bi aste eskola-kirolarekin aurrera egitea erabaki zuen. "Momentuan bizi dugun egoerara egokituko gara eta, ahal den bitartean, eskola-kirolarekin aurrera egingo dugu. Gaztetxoendako oso onuragarria da. Beharra zutela ikusi dugu, eskolako patioa ere itxita izan baitute. Mugimendua behar dute, bereziki, une honetan".



Eskolako gaztetxoak sokatiran. PAUSOKA



NIRE USTEZ

AMAIA RAMIREZ DE OKARIZ

## Eskemak

Esnatu. Ohean buelta bat eta beste eman. Eguneko aurreikuspenak egin. Eta zerrendatu. Memoriaz. Ongi. Eta altxatu. Baina aldatu dira lehen uste horiek. Oharkabean. Begiak itxi eta zabaldu. Aski izan da. Listo. Eskemak apurtuta.

Gertatu da. Eta bada eragina. Poza ala mina. A ala B. Dikotomiarik gabe. Ezetz. Ez da hori bakarrik. Mesedez. Baina gorputzaldia. Hori bai. Bada. Sentipena. Eta kezka. Ziurtasun falta. Negarra. Batzuetan, ezin. Galderak. Eta ulertzeko nahia.

Erantzunak. Irtenbide bat. Arren. Zer egin. Eta nola egin. Errefusatu. Edo ez. Agian, hobe onartu. Estutasuna. Pentsamenduak. Eta berriro. Burua bueltaka. Milisegundoka. Kaka. Ez. Oraindik ere arinago. Azkarregi. Badator. Hemen da. Kaosa. Laguntza.

Ez dakit ezer. Baina eskemak apurtu dira. Eta apurtuko dira.

Lasai. Gelditu. Deskantsatu. Arnastu. Aurrera. Besarkada bana.

## 61 herritarrek eman dute odola urteko lehen odol-ematean

Antzuolako odol-emaileen elkarteko ordezkariak pozik eta oso eskertuta daude. Joan den astean, 50 laguneko langa gainditu eta 61 antzuolarrek eman zuten odola. "70 emailek eman zuten izena, baina horietatik 61ek betetzen zituzten odola emateko baldintza guztiak. Gure aurreikuspenak gainditu egin, eta balorazioa oso ona da".

## Aste barruko ohiko elizkizunak bertan behera, oraingoz

Pandemiaren bilakaera ikusita eta Eusko Jaurlaritzaren osasun neurriak aintzat hartuta, aste barruko ohiko elizkizunak bertan behera uztea erabaki dute. Hala, martitzenetako, eguaztetako eta eguenetako ohiko mezak ez dira egingo. Parrokian domeketan 11:00etan egiten den elizkizuna, ordea, egingo da, baina %35eko edukierarekin.

## GORA ETA BEHERA



## Jarrera onartezina salatu nahi izan dute



Haurreskolak umeendako duen aisialdi-guneko barandak puskatu zituzten. Udalak berehala konpondu zituen arren, herritar batek salatu egin nahi du jarrera onartezin hori.



Kokoak, orain dela hiru urte, Eibarren. FELIPE LOIOLA - KEZKA DANTZA TALDEA

# Kokoak bueltan ekartzeko lanean

Goibeko Euskaltzaleen Topaguneak lan-ildo berrietan murgiltzeko asmoa agertu du, eta horien artean da Aratusteetako koko-eskea berreskuratzea. 2022ko Inauterietan begira daude, eta Oier Araolazaren hitzaldi bat antolatu dute otsailerako

**Larraitx Zeberio Lekuona** ELGETA Baliteke 2022ko Aratusteetan herrian aspaldi ikusi gabeko koko-eskea egitea Elgetan. Aurreko belaunaldietako elgetarrek utzitako lekukotzek erakusten dute koko janzten zela jendea herrian, eta koko-batzea edo koko-eskea ere egiten zutela baserri. Juan Erostarbe Olañetak, Juanita Beretxinaga Garitaonandiak eta Sebastian Atorrasagasti Aranak testigantza bana utzi zuten *Ahotsak.eus* egitasmotik egindako grabazioetan. Entzuteko moduan daude atari horretan bertan. "Testigantza horiek entzunda baieztatatu dugu Elgetan ere egiten zela koko-batzea, eta interesgarria iruditzen zaigu berreskuratze ahalegina egitea, baita ere belaunaldi berriei begira", azaldu du Goibeko elkarteak presidente Ainara Iribarrek.

Iaz ekainean bete zituen 25 urte Elgetako euskara elkarteak. "Ezin izan genuen urteurrena nahi moduan ospatu. COVID-19ak baldintzatu zituen gure asmoak, eta aurtengorako ditugunetan ere eragingo du, seguruen. Egoera nahasi hau baliatu nahi dugu elkarteak datozen urteetarako dituen lan-ildoak eguneratzeko, eta 2021eko lehenengo sei hilabeteetan lan-ildo horiek landu nahiko genituzke", azaldu du Iribarrek.

Lan-ildo horien artean daude, esaterako, Elgetan euskararen erabilera indartzeko ekimenak bultzatzea, euskarazko kalitatezko kultura ekintzak aurrera eramatea eta galtzen ari diren ohiturak errekuiperatzea eta indartzea. Atal horretan sartzen da Elgetako koko-batzea berreskuratze lehenengo urratsak egitea.

Goibeko elkarteak argi dute 2021eko Aratusteak ezingo direla urtero moduan ospatu, eta Elgetan egin ohi zen koko-eskea berreskuratze lanketan murgilduko dira, besteak beste, pandemiak jarduera nagusiak bertan behera uztera behartutako egoera honetan. Hala, 2022ko Aratusteei begira daude. Euskara elkarteak azaldu du asmoa dela koko-batzeari hasiera emateko gauza xumeren batekin hastea.

## Lehenengo, hitzaldi bat

Gehienendako berria den gaiaren inguruan janztea izango da lehenengo egitekoa. "Hitzaldi bat antolatu dugu, koko-batzea gai zentralizat duena. Eibarren 2008an berreskuratu zuten koko-eskea, eta, hogeitau urte baino gutxiagoan zein garapen izan duen ikusita, egoki ikusi dugu Oier



Juan Erostarbe Olañetaren lekukotza jasotzen duen bideoa. AHOTSAK.EUS

## Koko-batzearen inguruko lekukotzak

*Ahotsak.eus* atarian jasota daude Elgetako koko-dantzen inguruko hainbat testigantza. Berraondokoa baserrian jaiotako Juan Erostarbe Olañetak ematen ditu xehetasun gehien: "Gazteak ginela, pixka bat pintatu, hartu instrumenturen bat eta kantuan egiten genuen. Lapiko zaharrak ere hartzen genituen, jo eta zarata ateratzeko. Lagunak joaten ginen, zortzi-hamar bat. Praxak jantzi beharrean gona janzten genuen. Gauza zen pertsona aldatzea, eta jendeak barre egitea. Baserrietara joaten ginen eskean. Ematen zizkiguten intxaurrak, pikuak, sagarrak, arrautzak... Zegoena. Eta txanponak ere bai. Orduan, txakur handia izaten zen diru handia. Baserritarra oso emailea zen. Gero, afaria egiten genuen tabernan. Hori, orain, ez da egiten".

Barrenengua baserriko alaba Juanita Beretxinaga Garitaonandiak ere hitz egin zuen *Ahotsak*-erako Elgetako Aratusteei buruz. "Debekatuta ere egon ziren, baina Inauterietan mutilak ibiltzen ziren baserrietara soinuarekin joanda. Akordatzen naiz baserri batean berriki hildako bateren bat bazegoen etxe hartan errezatu egiten zela. Bestela, soinua jo eta zer edo zer ematen zitzaion".

Mendrakorta baserrian jaio eta Baztarrika baserrian bizi izandako Sebastian Atorrasagasti Aranak ere esanda utzi zuen: "Koko janzten ziren eta etxerik etxe dirua batzen ibiltzen ziren".

Araolaza Elgetara gonbidatzea. Besteak beste, antropologoa, Kezka dantza taldeko partaidea eta *Dantzan.eus* egitasmoko kidea da, eta jakintza handia du euskal Inauterietan inguruan".

Hitzaldi hori otsailaren 10erako iragarri dute. "Nahiko genuke lehenengo hitzordu horretara gaiarekin interesa duen herritar oro gerturatzea. Ez da soilik Goibeko elkarteak bazkideendako antolatutako hitzaldi bat. Koko-eskea ere ez, bestalde. Hala, neurtuko genuke ze interes maila dagoen herrian, eta nortzuk eta zenbat garen lanke-

ta honetan parte hartzeko prest gaudenak".

Zer eta nola egin erabakitze urratsak etorriko dira ondoren. "Koko-eskea egiteko beste lagun bagara? Zelakoak behar dute izan koko-jantziek? Eta musikak? Eta konpartsak? Pertsonaiek?...". Goibekok irailan hasi nahiko luke horri guztiari forma ematen. Dantzak ikasi behar badira dantzak ikasten, koplak abestu behar badira koplak ikasten... "Helburua da, gehienbat, herriko jendea eta, bereziki, gazteak inplikatzeko", azaldu dute.

## Festarik nazioartekoenetakoa

Munduko leku askotan ospatzen dira Inauterietan. Araolazaren ustez, festarik nazioartekoenetakoa da: "Tokian-tokian ere ezaugarri propioak ditu, eta hori ere oso polita da. Hau da, konturatzea nola festa bera ospatzen

**OIER ARAOLAZAK HITZALDIA EGINGO DU OTSAILAREN 10EAN ESPALDIA KAFE ANTZOKIAN, 19:30EAN**



## "Komunitatea egituratzeko eta batzeko gaitasuna du koko-eskeak"

OIER ARAOLAZA ANTROPOLOGOA ETA 'DANTZAN.EUS'-EKO KIDEA

Aratuste asteburuaren aurreko zapatuan egiten dute koko-eskea, Eibarren. 2008an berreskuratu zuten eta harrera bikaina izan du.

### Zer dira kokoak?

Kokoa Inauteria da, mozorroa. Tolosaldean eta Goierriin *txantxo* erabiltzen dute asko, Lantzen *txatxoak*, Sakanan *momoxarro* edo *mamoxarro*. Eta hemen, *kokoa*. Inguru honetan jendea ez zen mozorrotzen, koko janzen zen. Akaso, gaur egun herrietan ospatzen den Inauteriarekin alderatuta ospakizun ohikoago edo tradizionalago bati egiten dio erreferentzia kokoak.

### Bestelako ezaugarriak ditu? Zeintzuk?

Garrantzitsuenetako bat, komunitateari bereziki lotuta egindako ospakizuna dela. Koko-batzean, mozorroak edo kokoak etxe etxe ibiltzen dira, horietan bizi direnekin trukea eginez. Batzuek eramaten dute festa, alaitasuna eta emozioa eta beste batzuek ematen dute festazaleek festarako behar duten *gasolina* –edatekoa, jatekoa eta harrera—. Festa elkarrekin konpartitzeko une bat da.

### Moda bihurtu da, orain, halakoak

### berreskuratzea?

Zikloak direla esango nuke. Etengabe gertatzen ari den zerbait da. Ospakizun batzuk galdu edo utzi egiten dira, eta beste batzuk berreskuratu. Zergatik? Faktore askoren batura egoten da hor. Debekuak bai, baina baita ere gure herrien berrantolaketa urbanistikoa, bizimoduaren eta interesen aldaketak, kultura ere gauza batzuei beste batzuei baino garrantzi handiagoa ematea...

### Zer iruditzen zaizu Elgetan koko-eskea berreskuratzea?

Oso ideia polita iruditzen zait. Eibarren 2008an berreskuratu genuen koko-eskea. Hitzaldi bat egitera gonbidatu naute. Uste dut herri bat halako festa bat martxan jartzera doanean ikuspegi zabala izan behar duela jakiteko ze esparrutan ari den. Batez ere, hartu behar diren erabakiak ikuspegi ireki horretatik hartzeko.



OIER ARAOLAZA

den ia mundu osoan, baina festa ospatzeko modu desberdinak dauden, eta, ia-ia, herriz herri".

Ospatzeko modu asko, gainera, desagertzen joan dira, eta arrazoi eta gako ugari egon daitezke horren atzetan. "Euskal Inauterietan ezagunenak direnak ere une batean edo bestean berreskuratuak izan dira. Hau da, hainbat hamarkadatan ospatu gabe egon ondoren berregin ziren". Araolazak azaltzen du Lantzeko Inauteriak 60ko hamarkadan guztiz etenda eta desagertuta zeudela, Altsasuko Inauteriak 80ko hamarkadan

## "IA MUNDU OSOAN OSPATZEN DIRA INAUTERIAK, BAINA TOKIAN TOKIKO EZAUGARRIEKIN"

berreskuratu zirela, Lapurdiko Inauteriak ia erabat desagertuta egon zirela eta 80ko hamarkadatik aurrera hasi zirela berreskuratzen. "Eibarko kokodantzei 2008an ekin genien, eta, gaur egun, ematen du betidaniak dela; batez ere, gazteentzat. Eta egia da haientzat horrela dela; izan ere, beti ezagutu dute".

Etixerik etxe eskean joateko egin-moldea neguko festetan behin eta berriz errepikatzen den zerbait dela ere azpimarratzen du. "Zer dira, bestela, Arimen Gaua, Gabonetako kantariak –Olentzerorekin edo Olentzerorik gabe–, Santa eskea eta beste hainbat? Esan daiteke, beraz, neguko festetan badela behin eta berriz errepikatzen den festa egitura bat. Oso-oso lotuta dago urtarorekin eta komunitatearen kohesioarekin zein elkar batzearekin".



Pedro Ruiz, eguaztenez, hitzaldia egiten liburutegian. L.Z.L.

## Pedro Ruiz: "Ipuin kontalariak, gehienbat, irudi sortzaileak gara"

Irakurtzen ikasi duten umeei ere ipuinak kontatzen jarraitzeko gomendioa egin du Alabazan-eko kontalariak

L.Z.L. ELGETA

Ze alde dago ipuin bat kontatzearen eta irakurtzearen artean? Nola bihurtu esku artean dugun liburua ahoz kontatzeko ipuin? Halako galderari erantzuna ematen saiatu zen, eguaztenez, Alabazan taldeko Pedro Ruiz Elgetako liburutegian. Zortzi bat lagunen aurrean –guztiak emakumeak– egin zuen hitzaldia.

25 urte daramatza kontalari lanetan, eta desberdindu zituen ipuin kontalari saio bat egin behar duen kontalaria eta egunero bizpahiru ipuin kontatzen dituen irakaslea edo gurasoa.

"Nik bi hilabete ematen ditut ipuin bat prestatzen. Irakasle edo guraso batek ezin du halakorik egin". Kontatzera animatu zuen, eta azpimarratu zuen edonor izan daitekeela kontalari, egunero kontatzen direlako istorioak. "Liburuarekin kontatzea errazagoa izan daiteke, baina, ipuinak gureganatu eta gure bizi esperientziatik erantsen diegunean, magia berezia sortzen da. Ipuin kontalariak, azken finean, irudi sortzaileak gara, eta liburuek irudi horiek sortzeko aukera kentzen digute bai guri eta bai entzuleei".

## GORA ETA BEHERA



M.L.G.

## Kaleko eserlekua, moztuta

Irakurle batek aste honetan bidalitako argazki honetan, eliza ostean dagoen kaleko eserlekuetako bat dago. "Zerrarekin moztuta dago", azaldu du, harriduraz.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) edo 688 69 00 07.

## Hamahiru biztanle gehiago 2020an

lazko errolda datuen arabera, jaiotzen eta heriotzen arteko aldea ere positiboa izan zen

L.Z.L. ELGETA

2020ko errolda datuen arabera, hamahiru biztanle gehiagorekin amaitu zuen iazko urtea Elgetak. Udalak emandako datuen arabera, 2020ko urtarrilaren leian 1.131 biztanle zeuden erroldan izena emanda, eta Urtezahar egunean 1.144 ziren.

Jaiotzen eta heriotzen arteko aldea ere positiboa izan zen iaz. 2020ko urtarrilaren 1etik 2020ko abenduaren 31ra bitartean, hamalau haur jaio ziren Elgetan: zortzi mutil eta sei neska. Txanponaren beste aldean, heriotzak zortzi izan ziren: bost emakume eta hiru gizon hil ziren Elgetan 2020an.

### 2020ko langabezia datuak

Urte osoko argazki orokorra atera daiteke, baita ere, langabezia datuei dagokienez. 34 langaberekin eta %5,89ko langabezia tasarekin eman zitzaion hasiera 2020ari Elgetan, eta datu horiekin amaitu zen urtea. Tartean, zazpi hilabeteko goranzko joera jarraitua eta beste bost hilabeteko jaitsiera izan dira. Uztailean jo zen goia, 58 langaberekin eta %10,05eko tasarekin. Handik aurrera, beheranzko joera izan da, urte hasierako datuetara itzuli arte.

## OHARRAK

### Escolako telefonoa

Herri Eskolak jakinarazi du telefono finakoaren zenbakia aldatu egin dutela. Berria honako hau da: 943 89 91 36.

### Ipuinak liburutegian

Ipuinak, gaur, kontalari boluntario taldearen eskutik, HH-3ko eta HH-4ko umeendako. Saioa 17:15etik 18:00etara izango da.



# Ohiko elementuak dituzte Ingurumen Jardunaldiek

Hitzaldiak, filmak, zuhaitz azoka zein landaketak, irteera eta astelehenean kultura etxean zabalduko duten erakusketa antolatu ditu aurten ere Oñatiko Natur Eskolak, urteroko Ingurumen Jardunaldien barruan. Oharrak ere baditu, baina, egitarauak

## Oihana Elortza OÑATI

Aurten ere antolatu du Ingurumen Jardunaldiak ekimena Oñatiko Natur Eskolak, eta egungo egoera kontuan izanda osatu dute egitaraua, ohiko osagai guztiak dituen arren. Lehen bi hitzaldiak, gainera, birusari buruzkoak izango dira.

## Birusa, lehen bi saioetako gaia

Datorren astean, otsailaren 2an eta 3an, izango dira lehen bi hitzaldiak, eta COVID-19a izango da saio horien oinarrian dagoen gaia, hizlari bakoitzak testuinguru ezberdinaren bueltan jardungo duen arren. Martitzenean, esaterako, gaitz horrek ingurumenean izan duen eraginaz hitz egingo du Joserra Aihartza biologoak, eta eguaztenekoan, birusaren gainean modu dibulgatiboan azalpenak ematen dituen Ana Galarraga zientzialari ezaguna etorriko da. Gainerako hitzaldiak bestelako gaien ingurukoak izango dira: Euskal Herriko basoak eta eukaliptoak izango dira batean berba eta Euskal Herriaren historia geologikoaz hitz egingo dute bestean, dokumental bat ikusi ondoren.

## Bertan behera uzteko arriskua

Horiek guztiak kultura etxean egingo dituzte, baina normalean baino lehenago izango dira: 18:00etan. Hala ere, etxeratze agindua ordu horretara aurreratzen badute ekitaldiak bertan behera geldituko direla jakinarazi dute Natur Eskolako kideek. Eginez gero, berriz, hitzaldiak Udalak Youtube webgunean duen kanalera igoko dituztela adierazi dute; saioaren ostean igoko dituzte hitzaldiak sarera, ez dira zuzenean eskainiko. Bestalde, aretoetako edukierak lehen baino txikiagoak dira, egoeragatik, eta hitzaldietara joan gura duenak azkar samar joan beharko du, tokirik gabe gelditu ez dadin.



Iturri gorri inguruko basoak. GOIENA

## Kultura etxean izango diren hitzaldiak

### Otsailak 2

- 18:00 COVID-19, ingurumena eta Pandoraren kutxa. Hizlaria: Joxerra Aihartza.

### Otsailak 3

- 18:00 Birusak zer dira? Gizakiarekin zer harreman dute?. Hizlaria: Ana Galarraga.

### Otsailak 9

- 18:00 Pinutik eukaliptora? Euskal Herriko basogintzaren erronkak. Hizlaria: Arturo Eloseggi.

### Otsailak 10

- 18:00 Lurraren bidea dokumentala. Aurkezpena Jon Betanzos geologoak egingo du.

## Bisitarik ez erakusketan

Antolatzen dituzten ekitaldien artean erakusketa izan ohi da ikusgarrienetako bat. Hala ere, aurtengoa apalagoa izango da, ez ditu horrenbeste baliabide bisual izango, ez aurreko urteetako beste, behintzat. Panel informatiboak egongo dira erakusketa horretan, eta argazki handi bat. Landareak albaitaritzan eta osasunean zertarako eta nola erabili izan diren ikusi ahal izango da, besteak beste. Ikasleekin egin ohi duten bisita gidaturik ere ez dute egingo aurten, egoeragatik.

Natur Eskolakoek ohiko laguntzaileekin osatu dute aurtengo egitaraua ere. Hala nola zineklubean ingurumenari oso lotutako filmak edo dokumentalak eskainiko dituzte otsailko lehen bi egunetan. Bestalde, Aloñako Lagunak taldeko kideekin zuhaitz landatzea egingo dute Aloñako magalean, Unaimendin hitzordua jarrita.

Zuhaitz landatzeak eta azoka martxoan izango dira. Baita irteera ere, Arantzazu errekarren arroa ezagutzera. Horretarako, izena eman behar da aurrez: [natureskola@yahoo.es](mailto:natureskola@yahoo.es).

## Herrian dauden industria-erakinetatik %22,5 hutsik daude

Industria-pabiloi hutsen diagnostikoa egin du Udalak; edonork kontsulta dezake, udaletxera joanda

### O.E. OÑATI

Herrian dauden industria erakinen diagnostikoa egin du Oñatiko Udalak. 2018ko partaidetzako aurrekontuetan herriarrek agertu zuten kezka edo galderen artean atera zen pabiloi hutsen errealitatea ezagutzera, eta joan den urtean, 2020an, egin du Udalak horren diagnostika.

Egindako azterketa horren arabera, 142 industria-erakin daude, guztira, Oñatin, eta %22,5 hutsik dago. Irakurketa metro karratuei begira eginez gero, ehunekoa txikiagoa da: 587.938

metro karratu eraikietatik, 66.470 metro karratu daude hutsik; hau da, %11,30.

Datu horiek guztiak eta gehiagorik jaso ditu azterketak, eta datu base bat sortu dute emaitzak aztertuz eta kontsultarako baliabideak sortuz. Oñatiko mapan ere kokatu dituzte okupatuta eta hutsik dauden pabiloiak, baita eraiki gabe daudenak ere. Batutako informazio hori edonork kontsulta dezake, eta gura dituen bilaketak egin. Horretarako, udaletxera joan baino ez du egin behar.



EAJ

## Pintaketak salatu ditu EAJK

Oñatiko batzokian joan den astean egindako pintaketak salatu ditu Gipuzko Buru Batzarrak, Arrasaten egindakoeekin batera. Kaleratutako oharrean ekintza horiek arbuiaitu ditu EAJK. "Gure herrian erabat lekuz kanpo dago jokabide hori; izan ere, gure herriak bakean bizi nahi du eta gaitzetsi egiten du horrela jokatzeari".

## Ikastetxe inguruetan egokitzapenak egingo dituzte otsailetik

COVID-19 gaitzari aurre egiteko hartu beharreko prebentzio neurriak direla eta, egokitzapenak egin zituzten ikasturte hasieran herriko hiru ikastetxeetako espazio publikoetan, eskolako sarrera-irteeretan jendea ez dardindin pilatu. Udalak eta ikastetxeek elkarlanean hartutako neurriak izan ziren. Orain arteko emaitzak ikusi eta baloratuta, otsailetik

aurrera, ikasturtea bukatu bitarteko behin betiko egokitzapenak egingo dituzte.

Elkar Hezin, esaterako, itxitura berezi batzuk jarriko dituzte eta errepidea eskolako sarrera-irteeran bakarrik egongo da itxita. Urgain-Errekalden, 08:00etatik 17:00etara, eskola orduetan, egongo da debekatuta eraikin aurreko aparkalekuan aparkatzea. Txantxiku Ikastola aurreko aparkalekuak oinezkoendako eremu izaten jarraituko du aurrerantzean ere.

# Eskaera handiko saioak datoz Jabetze Eskolara

Emakumeek hala eskatuta, urtero izaten diren autodefentsa eta mendi orientazio ikastaroak hasiko dituzte otsailean, baita noka ikastaroaren beste saio bat ere, jendea kanpoan gelditu baitzen lehenengoan. Izen emateak zabalik daude

## Oihana Elortza OÑATI

Badator otsaila, eta hilabete horretan ikastaro berriak eskainiko ditu Jabetze Eskolak: autodefentsa ikastaroa otsailaren 6an hasiko da; noka ikastaroa hilaren 16an; eta 19an mendi orientaziokoa. "Autodefentsaren eta mendi orientazioaren gaineko eskolek arrakasta handia izaten dute, oso harrera ona izaten dute biek, eta errepikatu egiten ditugu urtero. Nokarena aurtengo eskaintzan sartu dugu lehendabiziko aldiz, eta gustukoa izan da: lehen ikastaroan kanpoan gelditu zen jendea, eta beste bat egingo dugu hilabete honetan hasita. Badaude plaza libreak oraindik, hala ere", dio Berdintasun teknikariak, Jone Arriolabengoak.

## Plaza kopuruak murriztu behar

Azaroan hasi eta ekainera bitartean, hamahiru ikastaro eta bost hitzaldi sorta antolatu dituzte emakumeendako, Jabetze Eskolaren baitan. "Urte arraroa izan da, denbora osoan egokitzen ibili behar izan dugu. Izen-emateak indartsu etorri ziren ikasturte hasieran, eta, apurka-apurka, gehitzen joan dira. Gaur-gaurkoz, 160 izen-emate inguru jaso ditugu. 2021a maldan gora hasi dela dirudi; hasteko ziren



Noka ikastaroan ibili diren ikasleak Beatriz Irizar irakaslearekin. ITZIAR BASTARRIKA

bi ikastaro bertan behera utzi behar izan dira talderik eratu ez dalako, baina espero dugu otsailean hasiko diren hauekin aurrera egitea. Aurten, ikastaro bakoitzeko plaza kopurua dezente murriztu behar izan dugu, eta, hori dela eta, ikastaro batzuetan jendea kanpoan gelditu da; aurreikusi dezakegu orientazio ikastaroan ere horrela izango dela. Balorazioa, baina, positiboa da; egon da jendea lehenengo aldiz etorri dena, ikastaroek, orokorrean, babes ona izan dute eta giro polita

sortu da". Aurten sortzekoa zen espazio egonkorra, baina, ez du aurrera egin, talderik eratu ez delako.

## Izen-ematea zabalik dago

Ikastaroetan izena emateko edo informazio gehiago jasotzeko, Udaleko Berdintasun Sailera idatzi behar da: [berdintasuna@onati.eus](mailto:berdintasuna@onati.eus). Hitzaldiei dagokienez, aste honetan egin dute azkena: *Wikiemakumeak* izan da gaia. Nerea Barjola, Irantzu Varela eta Irati Garcia hizlariak etorriko dira hurrengoetan.

## Bertan behera utzi du EH Bilduk biharko herri batzarra

II. kongresuari eta herri mailako plangintzari buruzko informazioa posta elektronikoz bidaliko diete interesatuei

### O.E. OÑATI

Bihar, zapatua, herri batzarra zen egitekoa Oñatiko EH Bildu, baina bertan behera utzi du, pandemiagatik. II. kongresuaren inguruko argibideak eta herri mailako plangintza aurkeztekoak ziren batzar horretan; orain, posta elektronikoz bidaliko dizkiete [elkarrekin.ehbildu.eus](http://elkarrekin.ehbildu.eus) plataforman izena emanda dauden guztiak. Prozesuan parte hartzeko interesa dutenek plataforma horretan eman dezakete izena, pandemia egoerak iraun bitartean hori izango da eta komunikaziorako erabiliko duten bide nagusia. Bertatik helaraziko dira egutegia, arautegia eta porentziak, adibidez. Dena dela, [onati@ehbildu.eus](mailto:onati@ehbildu.eus) helbidea ere eskura du edonork edozein galdera edo zalantzatarako.

Duela hamar urte heldu zen EH Bildu hauteskundeetara,



Martitzeneko prentsaurrekoan. T.M.

eta orduan zehaztutako norabidean sakontzen jarraitzea dela erronka aipatu zuen Mikel Biainek martitzenean: "Ezkerreko alternatiba gisa sendotzea, eskaintza politikoa eguneratzea eta komunitate politiko gisa hazten jarraitzea".

## Haurren garapenean helduek nola jokatu da hitzaldiaren gaia

*Helduek tokia haurren garapenean izeneko hitzaldia egingo du Nerea Mendizabalek otsailaren 8an. Guraso Eskolak antolatutako hitzaldia da, HHko eta LHko gurasoei gomendatutakoa, eta umearen garapenean helduek izan dezaketen eginkizuna izango da gaia. Otsailaren 3a aurretik eman behar da izena, mezua bidalita: [ainhoa@onati.es](mailto:ainhoa@onati.es).*

## Olakuako urmaelean dute elkarretaratzea pentsiodunek gaur

Pentsio duinak eskatzeko elkarretaratzea Olaku auzoan egingo dute gaur, egubakoitza, herriko pentsiodunek. Astelehenean plazan egiten dituzten kale agerraldiez gain, hileko azken egubakoitzetan Olakuako urmael ondoan egiten hasi ziren azaroan, eta gaur, hilak 29, egingo dute urtarrilekoa. Besteak bezala, 12:00etan izango da.



**Gualbi**  
aholkularitza

ZERGA, KONTABILITATE ETA  
LAN ARLOKO AHOLKULARITZA

ABOKATUAK  
KONTU IKUSKARIAK

*Bezero guztien beharrei erantzuteko prest!*



Euskadi Etorbidea, 6 (OÑATI) • 943 78 16 48 • [onati@gualbiasores.com](mailto:onati@gualbiasores.com) • [www.gualbiasores.com](http://www.gualbiasores.com)



Xabi Regueiro eta Maddi Azkorbebeitia, teletatik zintzilik, joan den astean gaztelekuan. M.A.

# Gaztelekuan dute aire-akrobazia egiteko tokia

Dantza, kirola eta oreka uztartzen ditu aire-akrobaziak, eta, beste jarduera batzuk adina hedatuta ez dagoen arren, Oñatin ere badago jendea horretan ari dena. Xabier Regueiro eta Maddi Azkorbebeitia dira horietako bi; gaztelekuan aritzen dira

## Oihana Elortza OÑATI

Duela lau-pabost urte hasi zen Xabier Regueiro oñatiarra aire-akrobazia egiten, eta berehala harrapatu zuen diziplina horrek: "Eskoriatzan hasi nintzen probatzen, Agurtzane Telleriarekin, eta asko gustatu zitzaidan. Lehen egunean goraino igo nintzen, eta sekulako sentazioa izan nuen. Horixe izan zen hasiera". Maddi Azkorbebeitia ere astean birritan joaten da gustukoa duen ariketa egitera: "Telarekin eta uztaiarekin ibiltzen naiz. Gimnasia txikitatik gustatu izan zait, baina ez nuen artistikoa egiteko modurik topatzen inguruan, Eskoriatzara joan arte".

## Ariketak eta ikuskizuna

Aire-akrobazia gero eta hedatuagoa dagoela dio Regueirok, Gure Zirkuan aire-akrobata lanetan jardun duen Agurtzane Telleria arrasatearrak ematen dituen kurtsoei esker: "Honetan ari diren ezagun guztiak Telleriaren bitartez ezagutu ditut,

gazteak zein nagusiak, baina oraindik zabaltzen ari den diziplina da". Gorputza eta arima batzen dituen jarduera da hau; dantza, kirola eta oreka uztartzen ditu. Regueirok azaldu duenez, eurek bi alde bereizten dituzte, ariketak eta ikuskizuna, eta ariketak egiten ibiltzen dira, gorputza lantzen eta ariketa konkretuak egiten. Musikarekin eta dantzarekin, gorputz espresioarekin, lotutako zatian gutxiago sakontzen dutela aitortu du, eta, "agian, profesionalagoa" dela gaineratu.

Fisikoaz gain, kontzentrazio mental handia eskatzen du aire-akrobaziak. "Ariketa bakoitzak bere pausoak ditu eta tentuz jarraitu behar dituzu pausoak,

**GORPUTZEAN  
ARAZORIK IZAN EZEAN  
EDONORK EGITEKO  
MODUKO JARDUERA  
DELA DIOTE**

ondorioak espero ez dituzunak izan daitezkeelako. Eta pauso horietan kontzentratuta egotea ezinbestekoa da. Indarra ere behar da, baina ez da dena, teknika oso garrantzitsua da; telak ere min egiten du ez baduzu ondo jartzen. Malgutasunak ere badu bere garrantzia". Azkorbebeitia ere bat dator horrekin: "Niri asko gustatzen zait goian egon eta gero jaitea. Baina goian denbora luzez egoteko indar handia behar da besoetan, eta hori ere landu behar da".

## Gaztelekuan elkartzen dira

Gorputzean arazorik izan ezean edonork egiteko moduko jarduera dela deritzo Regueirok. Egun, gaztelekuan dute aire-akrobazia egiteko tokia. "Oso eskertuta gaude Udalari. Ez da erraza horrelako altuera duen lokal bat izatea; sei metroraino igotzen gara, adibidez. Hemen, gainera, oinutsik ere ibil gaitzke, egokituta baitago, eta materiala ere badugu".



Kirol egokitua probatzen 2019ko eskola-kiroleko saio batean. GOIENA

## Eskola-kirola astelehenean hasiko dute, etorriko denari adi

Hiru ikastetxetako ia 400 neska-mutiko hasiko dira otsailaren 1ean, hamabi hezitzaillarekin batera

## O.E. OÑATI

Buruhausteak buruhauste, datorren astelehenean, otsailak 1, hasiko da eskola-kirola Oñatin. Ia 400 umek dute izena emanda, eta, azpiko taldeak eginda, hamabi begiraleren laguntzarekin ekingo diote ikasturteari. "Oraingo osasun egoera ez da guztiok nahi genukeena, baina gure esku dauden neurri guztiak hartuko ditugu eskola-kirola segurua izan dadin", diote arduradunek.

## Adi egoteko eskaera

Egungo egoera ezegonkorra dela eta, neurriak sarri aldatzen di-

tuzte, eta horietara egokitzen saiatuko dira koordinatzaileak. Horregatik, eskaera berezia egin diete umeen gurasoei: adi egoteko hemendik aurrera zabaldu edo emango dituzten oharrei: "Edozein momentutan aldaketaren bat egon daitezkeelako gure jardunean".

Ikasleek maskarak izango dituzte eskola-kiroleko saioetan, eskuetarako gela, eta erabilitako material guztia desinfektatu egingo dute. Gainera, ikastetxetan dituzten talde egonkorretan egingo dituzte saioak, sei ikasleko azpitaldeetan.



NIRE USTEZ

JOSU ZUBIA

## Txiste bat ematen du

Badaramatzat urteak agertoki gainean, han eta hemen. Sormen lanean ere gustura ibiltzen naiz. Nire onena ematen ere saiatzen naiz proiektu berriak bultzatzen. Leku horietan guztietan gai bera jorratzen dut: umorea. Errealitatearen eta erridikuluaren arteko esparru hori da jorratzea gustatzen zaidana; fikzioa, alegia. Txistea.

Poemetan, eleberrietan, ipuin kontalaritzan, zineman... egiten den bezala, txistean ere ideiak muturrera eramaten dira, kontraesanak agerian utzi, absurdoarekin jolastu... Eta azken helburua beti da barrea. Barre hori etor daiteke identifikatuta sentituzetik, ezinegona sentituzetik, auzo-lotsa sentituzetik... Barreak askatu egiten gaitu eta deserosoak diren hainbat gai mahai-gainean jartzeko baliatu daiteke, besteak beste. Baina beti esan izan didate kontuz ibiltzeko txistekin, iraingarriak izan daitezkeelako. Fikzioa iraingarria da, antza.

Fokua txistean jartzen dugu, eta ez eguneroko bizi dugun mundu erreal bezain iraingarri honetan.

# Ipuin kontaketa bidez, ahozkotasanari bultzada

Ahoz Ahoz 2021 Jaialdiaren baitan hiru ipuin kontaketa saio eskainiko dituzte Oñatin; haurrentzako bat eta helduentzako besteak. Otsailaren 18tik martxoaren 5era bitarte egingo dituzte saioak, eta, euskaldun artistez gain, nazioartekoak ere izango dira

## Maialen Santos OÑATI

Ahoz Aho Ahozkotasanaren Nazioarteko Jaialdia 2008a ezker antolatzen du Intujai Teatro taldeak. Azken urteetan Euskal Herriko herrietan zehar hedatu da hori, Ahoz Aho zabalik proposamenari esker, eta, hala, Oñatik ere jaso du jaialdi horretan parte hartzeko gonbidapena. Hori horrela, datozen asteetan hiru ipuin-kontaketa saioez gozatzeko aukera izango da udal liburutegian.

## Haurrendako eta helduendako

Otsailaren 18an, *Elekaren ipuin sorta* izeneko bi saio eskainiko dute Ipar Euskal Herriko etorritako Kattalin Sallaberryk eta Jokin Irungarayk, 6 urtetik gorako haurrei zuzenduta. Ordu erdiko bi saio egingo dituzte, 17:30ean eta 18:15ean hasita.

Helduentzako saioei dagokienez, otsailaren 26an, Soledad Felloza ipuin kontalari uruguaytarak *La vida es un cuento* saioa eskainiko du eta martxoaren 5ean, azkenik, Kolonbiatik etorritako Nicolas Buenaventurak *Maestra palabra* ipuina. Azken bi saio horietarako txartelak otsailaren 16tik aurrera eskuratu ahal izango dira [www.onati.eus](http://www.onati.eus) udal webgunean eta Txokolateixan.

Arantzazu Ibarrondo udal liburutegiko zuzendariak azaldu du urtean helduentzako ipuin kontaketa saio bat edo bi antolatu ohi dituztela; izan ere, "askok uste dutenaren kontrari, ipuin kontaketa ez dago soilik haurrei zuzenduta". Helduentzako saioetan parte hartzen duen publikoa "fidela" izaten da: "Programa honetan parte hartuta ere izango dugu istorioak entzuteko aukera, eta horretarako gogotsu gaude". Hala eta guztiz ere, osasun krisiaren eraginez, saioak liburutegiko erakusketa gelan egingo dituzte, eta edukiera mugatu egingo dute:



Kattalin Sallaberry eta Jokin Irungaray, saio batean. OÑATIKO UDALA

## HELDUENTZAKO SAIOETARAKO SARRERAK, HILAREN 16TIK AURRERA ESKURAGARRI

"Aztertzen ari gara zenbatentzako lekua izango dugun".

### Ahozkotasuna bultzatu guran

Intujai Teatro taldeko kide eta jaialdiko arduradun May Gorostiagak azaldu du ahozkotasuna bultzatzea eta ahotsa erabiltzen duten artistak "oholtzaratzea" dela Ahoz Ahoren helburua, eta nazioarteko jaialdia denez atzerriko artistak ere izaten dituztela: "Maisu handiak izaten dira horiek, eta, jakina, euskaldun artistak ere badaude egitarauan, %70 inguru dira". Are gehiago, adierazi du Euskal Herriari "maila handia" dagoela ipuin kontalari dagokienez. "Oñatiko herriari egin gura izan diogu jaialdian parte hartzeko gonbidapena, aspalditik duelako ipuin-narrazio agenda kultur programaren baitan", gaineratu du.

## Ostegun Kontalarietan aldaketak

Otsailetik aurrera, aldaketak egongo dira haurren liburutegian egiten den Ostegun Kontalariak ekimenean: apirilera bitartean, hilean bi saio egongo dira baten ordez. Horietako bat 4-5 urtekoentzat izango da eta bestea 6, urtetik gorakoentzat. Horietara joateko gonbidapenak izan behar dira, lehen bezala, baina horiek lortzeko zozketa egingo dute parte-hartzaileen artean. Hileko lehenengo astean –astelehenetik ostiralera– eman beharko da izena, 943 71 61 11 telefono zenbakira deituta, 688 73 28 26ra mezua bidalita edo [liburutegia@onati.eus](mailto:liburutegia@onati.eus) helbidera idatzita. Lehen asteko egubakoitzean egingo dute zozketa.

## "Mekanizazioa iritsi arte, teileria guztiak artisauak ziren"

JOSE RAMON ARRAZOLA URQUIAGA TEILAGILE OHIA  
'Las tejerías en la villa de Oñati' liburua idatzi berri du

### M.S. OÑATI

1501etik 1994ra bitartean Oñatin izan ziren 22 teileria jaso ditu idatzi berri duen liburuan.

### Nola otu zitzaizun ideia?

Hasieran, Olabarrieta auzoan egon zen teileriar buruz idazteko asmoa nuen, baina gero, konturatu nintzen herriko beste batzuei oso lotuta dagoela. Gainera, artxiboan asko ibilitakoa naiz, eta dokumentuei tiraka idatzi ahal izan dut.

### Lau mendetan teileria ugari egon ziren...

Hala da. Dokumentuetan azaltzen diren 22 teileria ikertu ditut, baina ziur naiz gehiago ere izan zirela; baserrietan, esaterako.

### Zergatik izan zuten hainbesteko indarra Oñatin?

Arrazoi ugari daude. Horietako bat da Oñati herri handia zela XVI. mendean. Komentuak egiten hasi ziren; eta teilak eta adreiluak behar ziren. Bidarretako komentuan, adibidez, 20.000 adreilu behar izan zituzten klaustroko zoruan jartzeko, eta oraindik mantentzen dira. Beste arrazoi bat izan daiteke beste toki batzuetan ez moduan Oñatin buztina dagoela, baina ez edonon.

### Olabarrietako teileria, arrazolatarrena, zure birraitonak sortu zuen...

1897an sortu zen, eta Oñatin eta Euskal Herriari ezagutu dugun azkena izan da. San Migel Txiki jaietatik iraileko sanmigeletara soilik egiten zen lan. Eta halaxe jardun zuten birraitonak, aitonak, aitak eta nik neuk ere.



Arrazola, liburua eta teila eskuetan. M.S.

### Eskuz egiten zenituzten teilak?

Hasieran, bai. Artisauak ziren teileriak, produkzioaren mekanizazioa iritsi zen arte, 1930ean.

### Nola egiten ziren?

Buztina urarekin nahastu eta masa bat egiten genuen; arbela ere nahasten genion. Gero, moldeetan sartzen genuen, adreilu egiteko. Azkenik, moldea kendu eta lehortzen uzten genuen.

### Oñatin hiru teileria mota egon ziren...

Bederatzi izan ziren herri-teileriak; herriaren jabetzakoak ziren, eta errentan jartzen zituzten. Lau auzo-teileria ere egon ziren, eta auzolanean eta Udalaren laguntzaz eramaten zuten jarduna aurrera. Azkenik, teileria pribatuak bederatzi izan ziren.

### Non eskuratu daiteke liburua?

679 17 85 62 telefono zenbakian nirekin harremanetan jarrita. Eta udal liburutegian ere utzi dut ale bat.

## Hiru antzezlanetarako sarrerak eskuragarri, bihartik aurrera

Otsaileko asteburuetan hiru antzezlanek gozatzeko aukera izango da Oñatin. Hilaren 6an, egubakoitza, Borobil Teatroa taldeak *Hansel eta Gretel* antzezlan eskainiko du, 17:00etan. Otsailaren 12an, egubakoitza, Huts Teatroaren eta Artedramaren elkarlanetik sortutako *Atzerrian lurra garratz* antzezlan eramango dute oholtzara.

19:00etan hasiko da. Azkenik, otsailaren 14an, *Mari eta gailera fabrika* ikuskizuna eskainiko du Eidabek, eta bi emanaldi antolatu dituzte: 16:30ean eta 18:00etan. Emanaldiak Santa Ana aretoan egingo dituzte.

Sarreraren alde aurreko salmenta bihar aktibatuko dute, 10:30ean, eta udal webgunean, leihatila digitalean eta Txokolateixan eskuratu ahal izango dira. *Atzerrian lurra garratz* ikusteko salneurria 10 euro da eta gainontzekoenak, 3,5 euro.



Fournier etxearekin elkarlanean Alavesek argitaratu dituen eskuko kartak, bailarako jokalariko historikoekin. GOIENA

# Alavesko zaleek gogoan dituzte

**FUTBOLA** Alavesek 100 urte bete zituen joan den zapatuan, eta, ospatzeko, talde babazorroak 39 jokalariko historikoenak batu ditu Fournier etxearekin elkarlanean egindako eskuko kartetan. Hain zuzen, Debagoieneko lau jokalariko daude tartean

**Xabier Urzelai** ARRASATE

Alaves futbol taldea 100. urtereneko ospakizunetan murgilduta dabilen honetan, lau debagoiendarrek protagonismoa hartu dute. Urri inguruan jarri ziren eurekin harremanetan, talde babazorroko zaleek klubetik pasa diren 39 jokalariko esanguratsuen artean aukeratu zituztela eta eskuko kartak egin behar zituztela eurekin. "Eta ze gauza polita! Ohorea izan da, egia esan", dio telefonoaren beste aldetik Bartzelonan lan egiten duen Josu Ugartek.

Ugarte izan zen Alavesko kapitain izateko ardura izan zuen azken debagoiendarra. 90eko hamarkadan jokatu zuen Ugartek talde arabarrean (1989-1993), eta lehenengo bi denboraldietan Mondrako beste jokalariko ohi bat izan zuen ondoan, Jose Mari Otadui Txosa. Hain zuzen, Gas-

teizko taldeko orduko zuzendaritzak taldea Hirugarren Mailatik Bigarren B mailara igotzeko helburuarekin fitxatu zituzten biak ala biak.

Eta horretan zeresan handia izan zuen beste arrasatear batek, Jesus Maria Aranbarrik. Izan ere, lehenago jokalariko izandako Aranbarri ordurako entrenatzaile laguntzaile lanetan zebilen Alavesen. "Nik beti esan ohi dut bihotza zatituta daukadala. Gaztetan Realarekin egin nuen debuta, eta Puertollanoko gola sartu izanagatik ezagutzen nauten Realeko zaleek". Izan ere, Aranbarrik debutaren egunean sartutako gol hark zabaldu zizkion Realari Lehenengo Mailako ateak. Eta, bost urtez Realean egon eta gero, Donostia utzi eta Gasteizera bidea egin zuen Garagarzako semeak. "Alaves Hirugarren Mailan zegoen orduan, eta Bi-

garren B mailara igotzea ahal izan genuen. Urte hartan, ligako goleatzaile nagusia izan nintzen; oso urte onak izan ziren haiek (1972-1978). Horregatik diot bihotza zatituta daukadala. Egun, derbietan, Anoetan jokatzen badute irabaz dezala Realak eta Mendizorrotzan jokatzen dutenean Alavesendako izan daitezela puntuak", dio, barre eginez.

**Beteranoena, Etxeandia**

Hiru protagonista horien aurretikoa da, baina, duela bi urte hil zen eta Aretxabaletan horren maitatua den Bixente Etxeandia. Alavesko *historikoetako* bat, 18 urterekin hasi zen futbolekoan. UDAn egin zituen lehen urratsak, 1949an, eta 1952ra arte ibili zen jokalariko bertan. Ondoren, urrezko garaiak bizi izan zituen Deportivo Alaves taldera egin zuen salto, eta bertan aritu zen, 1957ra

bitartean. 1954-55 denboraldian 22 gol sartu zituen Lehenengo Mailan. Horrez gainera, babazorroen taldean aritu zen sei denboraldietatik bitan gol gehien sartu zituen jokalariko izan zen, eta Alaves taldearen historian gol gehien sartu dituzten jokalariko artean dago Etxeandia. Hala, Granadara joan eta gero, Alavesera itzuli zen Etxeandia. Hala, aurrelari trebea Gasteizen ondo gogoan dute oraindik ere; kartetan biko kopa ordezkatzeko du aretxabaletarrak.

**'Txosa'-ren Elgoibarko bi golak**

Gasteizko taldean urte gutxien egin zituen jokalariko izan zen Txosa, baina arrastoa utzi zuen jokalariko funtsezkoa izan zen Hirugarren Mailatik Bigarren B Mailara igotzeko.

80ko hamarkada gogorra izan zen Gasteizko taldearendako. 1983an, taldea Bigarren B Mailara jaitsi zen, eta 1986an, nahiz eta sailkapenean bosgarren geratu, arazo ekonomikoengatik taldea Hirugarren Mailara jaitsiarazi zuen Federazioak. Alaves desagertzea zegoen, eta, 1989-90 denboraldian, enpresaburu talde batek kluba erosi zuen, berriro ere behetik gorako bidea hasteko. Baina ez zen horren erraza, Ugartek azaldu duenez: "Hainbat urtez Hirugarren Mailan egon eta gero, 1989an taldea ondo indartu zuten, klubeko jabeek dirua jarri zutelako. Baina futbol zelai bakoitzean sekulako egurra ematen ziguten, orduko futbola askoz ere gogorragoa zen fisikoki. Zelai guztiak jendez beteta egoten ziren, kategoriago oilarra ginen, eta guztiek gura zuten gure kontra irabazi".

Hala, Ugarteren eta Txosa-ren lehenengo urte hartan ez zuten helburua bete, baina bigarrenean bai. "Astorga etorri zen entrenatzaile lanetara, eta beste mentalitate batekin etorri zen. Ordura arte egurra jasotzen bagenuen, entrenatzaile berriak esan zigun ordutik aurrera gu ginela egurra banatu behar genuenak. Uste dut denboraldi hartan hamazazpi txartel hori atera zizkidatela... Kar, kar, kar".

Hala, bereziki denboraldi hartan egin zuen Txosa-k ekarpen galanta. "Bueno, golak sartzeko fitxatu ninduten ni, eta hori zen nire eginbeharra. Ez dut ondo gogoan, baina uste dut denboraldi hartan 18 sartu nituela.



Bixente Etxeandia.

Akordatzen naizena da fisikoki ez nengoela batere ondo, eta, hala ere, urte nahiko ona egin nuen". Klubaren historian, baina, Elgoibarren egindako golei esker sartu zen: "Orduan, Mintxetako futbol zelaia ez zen existitzen, Lerun zen Elgoibarko futbol zelaia, eta harmailetan jendetza zegoen. Bada, partidua hartan sartu nituen bi golei esker lortu genuen partidua irabaztea, eta matematikoki kategoriak igotzea. Uste dut gol haiengatik aukeratu nautela kartetan egoteko; kar, kar, kar".

**Harremana, hoztuta**

Aranbarri Gasteizen bizi da, eta haren seme Josu ere Alavesko jokalariko izan zen bigarren taldean. Horri esker, gertu izan du talde babazorroa, eta Txosa-k eta Ugartek aitortu dute nahiz eta oroitzapen ederrak izan gaur egun apenas dutela harremanik klubarekin: "Jokalariko artean

**"BIHOTZA BANATUTA IZAN DUT BETI REALAREN ETA ALAVESAREN ARTEAN"**

JESUS ARANBARRI, JOKALARI OHIA

**"TALDEKO KAPITAINA NINTZELAKO-EDO BETI TRATATU IZAN NAUTE ONDO GASTEIZEN"**

JOSU UGARTE, JOKALARI OHIA

**"ELGOIBARREN SARTUTAKO GOLEK ZERESANA IZAN DUTE AUKERATUA IZATEKO"**

J.M. OTADUI 'TXOSA', JOKALARI OHIA



Aranbarri, behean, ezkerretik bigarrena, 1975-1976 denboraldian.



Aranbarri entrenatzaile zela iritsi ziren Txosa eta Ugarte Alavesera (1988).



Txosa, behean, eskumatik bigarrena, 1990-1991 denboraldian.



Josu Ugarte, kapitain, goian, ezkerretik lehena, 1992-1993 denboraldian.



Asier Garitano. GOIENA

## FUTBOLA Leganesko entrenatzaile berria da Asier Garitano

Gehien maite duten tokian entrenatuko du ostera ere Asier Garitanok (Bergara, 1969), Leganesen oroitzapen ezin hobea utzi zuen bergararrak bost urtean talde madrildarra Bigarren B Mailatik Lehenengo Mailara arte igo ostean. Hala, Jose Luis Marti ordezkaturko du, taldea ostera ere maila gorenera igozteko helburuarekin.

bai, orduko taldekook Whatsapp talde bat dugu eta hor izaten dugu elkarren berri", dio Ugartek. "Baina lan kontuengatik nik urteak daramatzat kanpoan bizi izaten, eta birritan-edo egon naiz Mendizorrotzan Alaves ikusten".

Txosa, berriz, hori egiteko gogoz geratu zen duela hilabete batzuk: "Ez dut gogoan Realaren kontra edo Osasunaren kontra zen, baina kontua da derbi baterako gonbidatu nindutela, eta pandemia dela-eta ezin izan nintzen Mendizorrotzara joan; oraindik ez dut ikusi futbol ze-

lai berria zelan dagoen, eta badut gogoia, egia esan".

### Ezin jokalaria ohiak batu

COVID-19arengatik Deportivo Alavesek ezin izan ditu ekintza asko antolatu, eta egin dituztenak ere publiko barik izan dira. "Ondo egongo litzateke kartak hartzeko denak Gasteizen batu izan bagina, baina ezin izan dugu halakorik egin, eta gehienoi posta bidez bidali dizkigute kartak. Pena da 100. urteurrena baldintza hauetan egin behar izatea, baina ez dago besterik. Sikiera, gutaz akordatu dira eta

ez da gutxi, gure kasuan dagoneko 30 urte pasa direlako", dio Txosa-k.

Ez da gutxiagorako; karta horietan azaltzen diren jokalariek asko eta asko oso ezagunak dira. Maltari Espainiak sartutako 12-1 hartan azken gola sartu zuen Juan Señor (1978-1981), Jorge Valdano (1975-1979) eta Julio Salinas (1998-2000), eta baita Alavesen urrezko aroan protagonista izan ziren Astudillo (1999-20009), Karmona (1996-2003), Javi Moreno (1997-1998/1999-2001) eta Jordi Cruyff (2000-2003) jokalariek ere. "Ez dakit ohorea

gurea den, ala eurena", dio, barrezka, Txosa-k. "Bueno, gure sasoiak, futboleko jokatzeko gustatu egiten zitzaigun, eta, gainera, ordaindu egiten ziguten. Orduan ez ginen kontzientzia egindakoak; orain konturatzen zara klubarendako garrantzitsua izan zela". Josu Ugarte ere iritzi berekoa da: "Poztasun handiaz hartu dut kontu hau. Valdano-rekin harremana dut, eta bidali nion karta horien kontura mezua. Barre egin genuen. Taldeko kapitaina nintzelako-edo Gasteizen oso maitatua sentitu izan naiz beti".

## SASKIBALOI A Gipuzkoan Federazioak ez du liga berrekingo

Pandemiaren bilakaera eta Eusko Jaurlaritzak ezarritako azken araudia kontuan hartuta, Gipuzkoako Saskibaloiko Federazioak erabaki du lurraldeko lehiaketa guztiak mugarik gabe etetea -Euskadiko Federazioari ez dio eragiten horrek-. Edozelan ere, klubetako taldeak entrenatzen jarraitzea animatu ditu Federazioak.

# HALA BAZAN

GOIENA TELEBISTA

OTSAILAREN 5EAN, EGUBAKOITZEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN  
SANTA ESKEAN (DENBORALDI BERRIA)

goiena  
Zu hemen zaude.



# "Bekak konfiantza eman dit idazten jarraitzeko"

**ENKO BARBERENA MONDRAGON IDAZLEA**

Nobela beltz bat idatziko du, Baztango Udalak, (H)ilbeltza ekimenak eta Txalaparta argitaletxeak elkarlanean abiatu duten bosgarren (H)ilbeltza beka irabazi ondoren

**Aitziber Aranburuzabala** ARRASATE Urtebete izango du Eneko Barberenak nobela idazteko, eta, ondo bidean, 2022an argitaratuko du Txalapartak; horrez gain, 6.000 euro jasoko ditu, 3.000 laginaren irabazle izateagatik eta beste 3.000 lana bukatzen duen momentuan.

**Zorionak! Pozik? Espero zenuen beka lortzea?**

Ez nuen espero, ez, nahiz eta topikoa izan hori esatea. Idazle baten lana lan bakartia da, eta halako bekek konfiantza ematen dizute esku artean duzuna aurrera eramateko eta idazten jarraitzeko. Txalaparta moduko argitaletxe batek liburua ateratzea beti da oso pozgarria.

**Baduzu esperientzia halako sari-ketetan: Ondarroako Agustin Zubikarai beka irabazi zenuen, eta hala argitaratu Afrikanerrak. Esperientzia hori lagungarria izango zaizu?**

Beti laguntzen du lanaren tamaina gutxi gorabehera ebaluatzen. Egia da kasu honetan nire egoera pertsonala lasaia dela eta asti gehiago dudala imajinatu beharreko fikziozko mundu hori sortzeko. Herri bat edo pertsonaia batzuk asmatzeko beti eskatzen du esfortzua; pertsonaiak, esaterako, ahalik eta koherenteenak izan behar direlako edo euren inkoheren-



Eneko Barberena idazle arrasatearrak (H)ilbeltza beka jaso berri du. (H)ILBELTZA

## "AEZKOA IBARREKO HERRI BATEAN GERTATUKO DEN ISTRIPU BAT DA ABIAPUNTUA"

tzietan ere arrazoi bat egon behar delako horretarako. Aurreko esperientziak balioko dit jakiteko zeren aurrean egon ahal naizen. Horrez gainera, (H)ilbeltza ekimenekoek opartu dizkidan 26 nobela beltze-

kin osatutako bilduman ere badut zer ikusi eta ikasi.

**Genero beltzaren zalea zara? Zein idazle duzu gustuko?**

Egia esan, karinoz gogoratzen dut beti Jon Alonso, idazle iruindarra; Euskal Herrian kokatutako hainbat lan argitaratu ditu; eta karinoz diot, berari esker hasi nintzen-eta, orain dela hoge urte baino gehiago, idazten, Arrasaten antolatutako literatura tailer bati esker.

**Aurreratuko diguzu istorioa?**

Istripu bat gertatuko da Aezkoa ibarreko herri batean, eta men-

dizale batzuk erre egingo dira, baina herritar guztiak ez daude konbentzituratu benetan istripu bat izan denik, eta, hori gutxi ez, eta beste interes batzuk ere badira tartean. Hor kokatzen dut gertakaria ebaluatzerako joango den aseguru-etxe bateko peritua. Halako istorioetan gertatzen den moduan, katramilatzen joango da istorioa.

**Zer esan dizu epaimahaiak?**

Euren ustez, egiazkotasun zantzuak ditu istorioak, eta liburua egingarritzat jotzen dute, behin eta berriz azpimarratu didate-eta liburua argitaratzea dela euren helburua. Eskertzen dut esandako gauza onez gain euren ustez hobetu beharrekoak ere proposatu dituztelako.

**Lagin bat aurkeztu duzu; zein izango da orain lan prozesua?**

Hasteko, gurako nuke beste lan batzuk irakurri, beste istorio batzuetatik xurgatu; dokumentazio-lan apur egin eta elkarrizketa batzuk ere bai, ondo eza-gutzen ez ditudan ofizio batzuei buruz gehiago ikasteko. Lehen zirriborroa ahalik eta azkarren egin nahiko nuke gero; Stephen King-ek aholkatzen du hiru hilabete baino gehiago ez egiteko horretan, bestela istoriotik irten egiten zara eta. Eta hori egiteko gai banaiz, atsedean bat hartuko dut, eta ondoren, egindakoa zuzendu edo orraztuko dut.

**Urtebete duzu aurretik; luze edo motz aurreikusten duzu egingo zaizula?**

Kontuan hartuta honetaz gain bizi ere egin behar naizela bizitzak ekartzen dituen erronkei aurre eginda, motz, baina egia da halako lan batek ez badu epe mugarik aukera dagoela denboran asko luzatzeko, eta, alde horretatik, eskatuko didala gauza batzuk zirt edo zart egiteko.

## 28. Laburbiran parte hartzeko deialdia zabalik dago

Otsailaren 4a da izena emateko azken eguna; 'Irudienea.topagunea.eus' atarian egin behar da

**A. Aranburuzabala** ARRASATE

Euskaltzaleen Topaguneak abian du euskarazko film laburren Laburbira zirkuituan parte hartzeko 28. deialdia. Apirilaren 26tik maiatzaren 30era bitartean, ohi bezala, herririk herri egiteko asmoa dute.

Otsailaren 4a da lanak bidaltzeko azken eguna; euskaraz egindakoak izan behar dute, 2019tik hona ekoiztutakoak, fikziozkoak eta hoge minututik beherakoak. Parte hartzeko, *Irudienea.topagunea.eus* atarian eman behar da izena.

**Erakusleho ibiltaria**

Egoera berezia den arren, antolatzaileek ekimenarekin aurrera egitea erabaki dutela diote, euskarazko ikus-entzunezkoak bultzatzen jarraitzeko asmoa berretsita: "Euskal Herriko zine zuzendarien lanak ezagutarazteko ahalegina egin nahi dugu, euskaraz ekoizten jarraitu dezaten, eta horretarako erakusleho baliagarria da Laburbira zirkuitua, euskal ekoizpen berriak ikusleengana hurbiltzeko. Euskal Herriko eta kanpoko aretoetara eramango ditugu".

Iaz, 27 ikus-entzunezko jaso zituzten, eta horietatik bederatzita lan aukeratu.

## EUSKAL KULTURGINTZAREN TRANSMISIOA (EKT)

GOIENA TELEBISTA

OTSAILAREN 4AN, EGUENEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN

MAIALEN LUJANBIO, BERTSOLARIA (DENBORALDI BERRIA)

goiena  
Zu hemen zaude.







Larru Beltzak taldea: Imanol Ugarte, Iñaki Zubia, Naiara Urzelai, Lauren Ugarte eta Ander Korkostegi. AXIBER PALACIN

# Larru Beltzak taldearen estreinako lana, kalean

Gaur, egubakoitza, jarri dute salgai 'Nork epaituko du epailea' diskoa, eta Oñatiko, Arrasateko, Bergarako eta Eskoriatzako tabernetan izango da eskuragarri; salatzeke eta sentimenduak askatzeko asmoz egindako zortzi punk-rock kantu batu dituzte

**Aitziber Aranburuzabala** OÑATI  
Sospetchosos, Golpe de Estado, Banda Munizipala, Papalagi, Antihumano eta CC627 taldeetan ibili izan diren musikariak 2019an batu, eta hala sortu zuten Larru Beltzak. Hauek dira: Naiara Urzelai (ahotsa), Ander Korkostegi (gitarra-jolea), Imanol Ugarte (baxu-jolea), Iñaki Zubia (bateria-jolea) eta Lauren Ugarte (gitarra-jolea); baina taldeko kideetat zuten Jonan Osinaga, sare sozialetan eta bestelako lanetan laguntzen diena.

## "Nahi baino luzeago"

Atzetik zuten esperientziaren erakusle, segituan osatu zuten kantu zerrenda, eta hala joan ziren, urte bereko azaroan, Azkaraten dagoen Fran Perez teknikariaren Itxura estudioara, *Nork epaituko du epailea?* bildumaren lehen zatiak grabatzera. "Bateria doinuak bakarrik grabatu genituen han, eta martxo hasieran lokalean instrumentazio osoa. Gero, pandemiak ahalbidetu di-

gun neurrian, nire estudioan ahotsak, korduak eta bestelako konponketak egin ditugu; eta bukatzeko, Estanis Elortzaren (Doctor Master) estudioan masterizatu dugu", dio batera-joleak eta soinu teknikariak, eta zera gaineratu du abeslariak: "Gura baino luzeagoa izan da prozesua; gauden egoeran zaila da kontzertuak lotzea, eta, horregatik, dis-

koa borobiltzeko denbora hartu dugu. Gustura gaude emaitzarekin eta deseatzten gaude jendarean aurkezteko, baina horretarako ezinbestekoa dugu entsegu lokalera joateko aukera izatea, eta orain oso zaila da".

## Zortzi kantuko bilduma

Ander Korkostegik sortzen ditu kantu gehienak –Imanol Ugartek egindako bat ere bada diskoan–, eta lokalean borobiltzen dituzte elkarrekin gero. "Egunerokotasunean ditugun arazoak azalarazteko hitzak dira batzuk eta sentimendu pertsonalak adierazten dituztenak beste batzuk".

## Zaleak, "gogotsu"

Oñatin, Boga, Arrano, Ikatz eta Iturri tabernetan; Arrasaten, Iratin; Bergaran, Arranon; eta Eskoriatzan, berriz, Inkernun izango da salgai. "Diskoa jaso genuenean argazkia igo genuen sare sozialetara, eta harrituta eta pozik gaude jaso ditugun ehunka mezuekin".



'NORK EPAITUKO DU EPAILEA?' LARRU BELTZAK

- Estiloa Punk-rocka.
- Autoekoiztua
- Grabaketa Itxura eta Iñaki Zubia estudioetan; Doctor Master-en nahastu.

## Goiena Klubaren txokoa

### Goiena Klubeko urtarrileko sariak!

#### SPC Tableta

Parte hartzeko sariaren izena: Tableta



#### Sarrerak

Arrikruz kobak bisitatzeko, sarrerak. Parte hartzeko sariaren izena: Arrikruz



#### Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak. Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea



#### PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: kluba@goiena.eus WhatsApp: KLUBA "sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa. Informazioari: 075 15 1000. Irteerak bakoitzeko 1000 euroko diru-erantzukizuna izango du. Irteerak zozketaren ondoren egunero irteeratuak izango dira. Zozketaren ondoren, irteerak zozketaren ondoren egunero irteeratuak izango dira. Irteerak zozketaren ondoren egunero irteeratuak izango dira. Irteerak zozketaren ondoren egunero irteeratuak izango dira.

### Irabazi bi lagunendako otordua

#### ZAPORE JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkariako Otorduan atala eta hartu parte! Parte hartzeko azken eguna: Otsailak 2

943 25 05 05 kluba@goiena.eus

KLUBA „Jatetxea“ [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia.

### Irabazi bi lagunendako sarrerak

#### Arrasateko udalari esker

'Alpha' haur antzerkirako sarrerak ditugu. Arrasate | Amaia Antzokia | Otsailak 6 | 17:00etan

#### PARTE HARTZEKO:

E-postaz: kluba@goiena.eus WhatsApp: KLUBA "Antzerkia" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa. Informazioari: 075 15 1000. Irteerak bakoitzeko 1000 euroko diru-erantzukizuna izango du. Irteerak zozketaren ondoren egunero irteeratuak izango dira. Irteerak zozketaren ondoren egunero irteeratuak izango dira. Irteerak zozketaren ondoren egunero irteeratuak izango dira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



BAZKIDETZA KUOTA: 57€

Deltur: 943 25 05 05 • kluba@goiena.eus

goienakluba  
Euskara irabazle, denak irabazle!



## HILDAKOAK

- Begoña Pol Ibabe.** Aramaion, urtarrilaren 11n. 86 urte.
- Carmen Barrena Cortabarría.** Oñatin, urtarrilaren 11n. 93 urte.
- Antonia Ripa Lecea.** Arrasaten, urtarrilaren 13an. 90 urte.
- Pepi Castellano Sanz.** Arrasaten, urtarrilaren 13an. 99 urte.
- Nati Abasolo Gallastegi.** Aretxabaletan, urtarrilaren 14an. 67 urte.
- Blanca Aranbarri Riviere.** Arrasaten, urtarrilaren 15ean. 90 urte.
- Ines Igarza Iturrino.** Eskoriatzan, urtarrilaren 15ean. 86 urte.
- Francisco Delgado Nieto.** Oñatin, urtarrilaren 16an. 65 urte.
- Antonia Alberdi Ariznabarreta.** Oñatin, urtarrilaren 16an. 94 urte.
- Maria Urzelai Aiausti.** Oñatin, urtarrilaren 16an. 97 urte.
- Mercedes Zarraoa Altuna.** Arrasaten, urtarrilaren 18an. 90 urte.
- Luis Martínez Abarrategi.** Arrasaten, urtarrilaren 19an. 91 urte.
- Jose M. Mondragon Oñate.** Arrasaten, urtarrilaren 19an. 89 urte.
- Jexus Mari Etxeberria Guridi.** Oñatin, urtarrilaren 19an. 57 urte.
- Begoña Martiartu Ugalde.** Arrasaten, urtarrilaren 20an. 82 urte.
- Teresa Benito Jauregi.** Bergaran, urtarrilaren 21ean. 90 urte.
- Juan Murillo Hidalgo.** Arrasaten, urtarrilaren 23an. 83 urte.
- Jabier Uriarte Zamakola.** Oñatin, urtarrilaren 23an. 79 urte.
- Claudia Iglesias Elices.** Arrasaten, urtarrilaren 23an. 88 urte.
- M. Carmen Iburguren Belategi.** Aretxabaletan, 24an. 74 urte.
- Maria Luisa Gorrotxategi Lizarralde.** Bergaran, 25ean. 94 urte.
- Jose Luis Errasti Zugasti.** Aretxabaletan, urtarrilaren 26an. 80 urte.
- Paula Zubia Iñurrategi.** Eskoriatzan, urtarrilaren 26an. 96 urte.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ	
Egubakoitza, 29	ETXEBERRIA: Zarugalde kalea / 38 / 943 77 16 30
Zapatua, 30	ALBERTO AZKOAGA: Ferrerías kalea 1 / 943 79 15 15
Domeka, 31	M. FCA. AZKOAGA: Iturriotz 17 / 943 79 79 99
Astelehena, 1	FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26
Martitzena, 2	IRIZAR: Erquin 11 / 943 79 12 39
Eguaztena, 3	SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74
Eguena, 4	ESPAÑOL MORALES: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65
BERGARA EGUNEZ	
Egubakoitza, 29	ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63
Zapatua, 30	MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Domeka, 31	MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Astelehena, 1	URRITIKOITXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74
Martitzena, 2	ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Eguaztena, 3	OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Eguena, 4	ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63
OÑATI EGUNEZ BAKARRIK	
Egubakoitza, 29	ANDUAGA: San Lorentzo 3 / 943 78 21 16
Zapatua, 30	ANDUAGA: San Lorentzo 3 / 943 78 21 16
Domeka, 31	ANDUAGA: San Lorentzo 3 / 943 78 21 16
Astelehena, 1	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Martitzena, 2	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Eguaztena, 3	GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Eguena, 4	GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58

ARRASATE GAUEZ EGUNERO	
(22:00etatik 09:00etara)	2021eko abuztuaren 15era arte:
ETXEBERRIA: Zarugalde kalea 38	943 77 16 30

BERGARA GAUEZ EGUNERO	
(22:00etatik 09:00etara)	2021 osoan:
ZABALA: Barrenkalea 25	943 76 16 87

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:  
COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05  
edo [eskelak@goiena.eus](mailto:eskelak@goiena.eus)

► Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 200 € / Goiena Klubeko bazkideendako 180 €

► Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 165 € / Goiena Klubeko bazkideendako 145 €

**Goiena: irakurriena Debagoienean.**

## ASTE BARRUAN, BAITA ERE:

**ARRASATE** Goiena: Otolara Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.

**BERGARA** Jardun: Errotalde (kultura etxean). 943 76 08 19.

**OÑATI** Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.

**ELGETA** Ugari: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.

**ANTZUOLA** Itzar liburur-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.



## MEZA

Maria  
Urcelay Ayastuy

2021eko urtarrilaren 16an hil zen, 97 urte zituela.

Haren aldeko ondra meza zapatuan izango da, urtarrilak 30, 19:30ean, Oñatiko Agustindarren elizan.

Berataratuko zaretanoi alde zaurretik eskerrik asko. Oñatin, 2021eko urtarrilaren 29an.

## URTEURRENA

Maixabel  
Uriarte Biguri

Sabino Telleriaren alarguna

2020ko urtarrilaren 27an hil zen, 83 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza zapatuan izango da, urtarrilak 30, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokiari.

—  
*Irten zinenean,  
izar bat piztu zen  
Euskal Herriko zeruan.*

Elizkizunetara joango zaretanoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Oñatin, 2021eko urtarrilaren 29an.

## OROIGARRIA

Joxemari  
Ituarte Ugarte

'Baskun'

2021eko urtarrilaren 16an hil zen, Pont Saint Espritren (Frantzia), 65 urte zituela.

*Joxemari, gure aspaldiko lagun,  
urte askoan guregandik urrun,  
koadrilan faltan botatzen hindugun.  
Jatorra hintzen eta umoredun,  
hirekin bizitakoak gogora ditzagun,  
eta har ezak atsedena lasai, Baskun.*

Hire kuadrilla.  
Oñatin, 2021eko urtarrilaren 29an.

**Oroilore**  
Maitasunez bizi,  
maitasunez agurtu

*Gure artean agurtutako guztiei euren bidea aurkitzen lagundu diegu, orain arte bezala, eta guztiak izango dute agur berezia Oroiloren.*

*Gure eskerrik beroenak gudan izan duzuen konfiantzagatik eta maitasunagatik.*

**Ion, Mario, Iban eta Maribi**



BADESLEA

## TXUTXU-MUTXUAK



1



3



2



4

## Kontatu, kontatu!

Badaukazu ezkontzaren baten berririk? Edo eztei-ospakizunen batenik? Kintada egin duzue eta argazkia erakutsi nahi zenukete? Ibilaldi politen bat erakusteko baduzue? Bestelako ospakizunen bat? Kontaiguzu eta bidalguzu argazkia!

### Posta elektronikoa

Mezua bidali [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

### Ordezkaritzak

Zatoz Goienaren ordezkarietara (Otalora 31, Arrasate) edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Eguazteneko 12:00ak arte jasotakoak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

### 1. Pandemiari, kantuan, bertsotan

Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Jon Maia, Miren Amuriza eta Ane Zuazubiskar izan ziren bertsotan Bergaran. COVID-19a, pandemia eta kulturaren egoera izan zituzten hizpide.

### 2. San Bizente gogoan

Urtarrilaren 22an elkartu ziren Aretxabaletako Areantzako hainbat auzotar hango ermitan. Lekua garbitu, hagin landare bat landatu eta talde argazkia atera zuten.

### 3. Eten barik jolasean


Bergarako ludotekek ez dute etenik. Angiozarko, Oxirondoko eta Osintxuko txokoetan askotariko jolasak eta ekintzak egiten jarraitzen dute, Jardunen eskutik.

### 4. Ezkontza, gaur, Bergarako udaletxean

"Zorionak, Saioa Ugarteburu eta Iker Gonzalez! Egun polita pasa ezazue. Aurrerago ospatuko dugu. Besarkada erraldoi bana lagunen eta etxeoen partetik".

### 5. Triviñoren erakusketa Logroñon

Javier Triviño argazkilari arrasatearrak *Snapshot* erakusketa ipini du ikusgai Caja Rioja-Bankia Fundazioan. Argazki originalak deformatuz, irakurketa irekia iradoki gura du.



5

## ZORION AGURRAK



OTXANDIO  
**Ane Arejolaieba Carrasco**  
Otsailaren 1ean, 4 urte. Zorionak, prexioxa! Ondo-ondo pasatu eguna. Patxo potolo-potolo bat, Abxabaltatik.



ARETXABALETA  
**Nahia Berridi Errasti**  
Otsailaren 1ean, 6 urte. Zorionak, Nahia! Ederto ospatu eguna eta segi orain bezain alai eta bixi! Besarkada eta muxu handi bat etxeko danon partetik.



ARRASATE  
**Ibai Alonso Tena**  
Urtarrilaren 31n, urtebete. Zorionak etxeko txikiari! Segi hain alai izaten! Asko maite zaitugu. Patxo handi bat familiaren partetik.



BERGARA  
**Irati Larrea Perez**  
Urtarrilaren 31n, 6 urte. Zorionak Irati!! Ondo ospatu urtebetetze eguna eta segi beti bezain alai. Patxo bat familia guztiaren partetik.




OÑATI  
**Unax Egaña Umerez**  
Urtarrilaren 30ean, 10 urte. Zorionak, Unax. Jada 10 urte. Disfrutatu egunaz eta besarkada handi bat, familiakuen partetik. Maite zaitugu!



OÑATI  
**Maddi Bikuña Barbero**  
Urtarrilaren 29an, 6 urte. Zorionak, maitte! Jada sei urte; ze azkar pasaiten dan denboria. Merezki dauen moduan ospatuku! Patxo handi bat!



ARRASATE  
**Iargi Martin Arias**  
Urtarrilaren 29an, 11 urte. Zorionak, maittia! Oso ondo pasatu zure urtebetetzean eta zoriontsu izaten jarraitu. Laztan handi bat etxekoan partetik.



ESKORIATZA  
**Nora Vicente Ugarte**  
Urtarrilaren 29an, 7 urte. Zorionak, maitia. Egun ederra izan eta ederto ibili! Besarka estua eta muxu asko, amama Manoliaren partetik!



OÑATI  
**Unax Zubia**  
Urtarrilaren 29an, 10 urte. Zorionak eta muxu goxo-goxo bat etxekoan partetik!



OÑATI  
**Miren Lizarralde Guridi**  
Urtarrilaren 29an, urtebete. Zorionak eta urte on askotarako, Miren! Segi zaren mouko alaixa izaten. Patxo handi bat: Aiert, Eñaut eta etxeko danok.



ARETXABALETA  
**Anje Arriola Serrato**  
Urtarrilaren 28an, 13 urte. Zorionak, maitxi! Handi itxen zabitzela! Ederto pasatu zure eguna eta patxo handi bat, etxekuen partetik. Mua!



BERGARA  
**Julian Aiestui Elortza**  
Urtarrilaren 28an, 98 urte. Zorionak, Txantxi! Zenbaki ederra! Bihotz-bihotzez, etxekoan partetik.



ARETXABALETA  
**Ganix Gomez**  
Urtarrilaren 28an, 8 urte. Zorionak, Ganix! Jada zortzi urte! Segi gure bizitzak alaitzen eta bizitzari barre egiten! Zortzi musu eta belarri tirakada! Maite zaitugu!



OÑATI  
**Jakes Aramendi Perez**  
Urtarrilaren 27an, 5 urte. Zorionak, Jakes! Dagoeneko esku oso bat bete dozu! Jarraitu zaren bezain alai eta maitakor! Patxo erraldoi bat familia osoaren partetik eta besarka handi bat, maite zaituen Paulerena!



BERGARA  
**Eneko Gantxegi Gallastegi**  
Urtarrilaren 27an, 10 urte. Zorionak, Eneko! Etxeko guztien, eta bereziki, Oierren partetik. Muxu pilia, txapeldun.



BERGARA  
**Endika Urigoitia**  
Urtarrilaren 27an, 9 urte. Egun polita eta alai izan zure aita Lander, ama Ana, arreba Irati, lehengusina Luzia eta Eder, Karlos eta Luis aittitek, amama Enkarna eta beste senideen partetik.



ESKORIATZA  
**Iratxe Arrese Unamuno**  
Urtarrilaren 27an, 31 urte. Zorionak Maringo saltserienari! Egun ederra pasau!



ARETXABALETA  
**Joel Sanchez Cano**  
Urtarrilaren 26an, 7 urte. Zorionak, begi-urdin! Jarraitu dezazun gure bizitza alaitzen, egiten ari zaren bezala. Askoko maite zaitugu. Mila patxo!



BERGARA  
**Iker Murillo Pose**  
Urtarrilaren 25ean, 9 urte. Zorionak, txapeldun! Mila muxu, maittia!



OÑATI  
**Beñat Urkia Goenaga**  
Urtarrilaren 25ean, 4 urte. Zorionak, Beñat! Primeran pasatu zure egunean. Besarkada eta muxu potolo bat familiako guztion partetik.



ARRASATE  
**Adei Solis Hernandez**  
Urtarrilaren 24an, 4 urte. Zorionak familia danaren partetik! Lau urteko gurekin eta askoz gehixau izan daitkezela. Maite zaitugu.



ARRASATE  
**Maribel Muñoz Benitez**  
Urtarrilaren 24an, 44 urte. Zorionak, Maribel! Ondo ospatu zure eguna, *guapa!* Muxu asko 'Distrito 33'-ko bizilagunen partetik.




ARETXABALETA  
**Joanes Iriarte**  
Urtarrilaren 23an, 3 urte. Zorionak, Joanes. Ederto ospatu eguna. Muxu bat.



OÑATI  
**Hugo eta Chloe Elorza**  
Urtarrilaren 23an, 7 urte. Zorionak, bikote! Patxo erraldoia familiaren partetik! Ondo-ondo pasatu zuen eguna!



ARRASATE  
**Tiago Muño Cassani**  
Urtarrilaren 23an, 32 urte. Zorionak, Tiago! Ondo pasatu zure eguna, eta besarkada bat, 'Distrito 33'-ko lagun guztien partetik.



OÑATI  
**Leire Letona Zumalde**  
Urtarrilaren 23an, 7 urte. Zorionak, bihotza, zure urtebetetzean familia danaren partetik. Ondo pasatu eta disfrutatu.



ARRASATE  
**Hodei Ramos Trenado**  
Urtarrilaren 22an, 8 urte. Zorionak, txapeldun! Zortzi urte! Oso ondo pasatu zure eguna! Ilargiraino maite zaitugu! Patxo handi bat, familiaren partetik.




OÑATI  
**Ander Iciar Garcia**  
Urtarrilaren 22an, 10 urte. Zorionak, Ander! Ondo pasatu zure urtebetetze egunian eta muxu handi bat etxeko guztion partetik!



OÑATI  
**June Bruna Aiestui**  
Urtarrilaren 20an, 9 urte. Zorionak eta muxu handi bat etxekoan partetik.



ARRASATE  
**Galder Jauregui Herrera**  
Urtarrilaren 20an, 5 urte. Zorionak, gure txapeldun! Muxu erraldoia! Daviden, Anaren eta Mararen partetik!



ANTZUOLA  
**Iزارo Irizar Fernandez**  
Urtarrilaren 10ean, 8 urte. Zorionak! Etxeko txikiak ia zortzi urte! Zelako azkar pasatzen dan denbora. Anaren eta Mararen partetik. Muxu handi bat etxeko danon partetik.

# AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENENKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus



IMANOL SORIANO

## BERGARA Toribio Jauregiren erretratuak

Argazkilari bergararrak pilotari buruz egindako 40 erretratu ikusgai, Isabel Vidartek egindako lana oinarri hartuta, hilaren 7ra arte.  
*Asteburuan, Aroztegin, 12:00etatik 14:00etara.*

## EGUBAKOITZA 29

### OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak aldarrikatzeko elkartuko dira.  
*Olakuako urmaelaren ondoan, 12:00etan.*

### ESKORIATZA Buruarinak egiteko tailerra

Gaztetxoek eskuz egingo dituzte buruarinak, eredu bat hartuta. Bukatu ostean, etxera eramango dute.  
*Frontoian, 16:30ean.*

### ELGETA Ipuinen ordua

Haur Hezkuntzako 3. eta 4. mailetakoko neska-mutikoendako saioa, kontalari boluntarioen eskutik.  
*Liburutegian, 17:15ean.*

### ESKORIATZA 'Hi, selfie' argazki lehiaketa

8-12 urte arteko gaztetxoendako lehiaketa. Gaur egingo dute azken saioa.  
*Gaztelekuan, 17:00etan.*

### BERGARA 'Eguakoitzak gozatzen'

Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailetakoko neska-mutikoendako jokoak eta jolasak. Gaur, pista eta sukalde jolasak. Aurrez eman behar da izena: *bergarakoludoteka@gmail.com*.  
*Oxirondoko ludotekan, 17:30ean.*

### ESKORIATZA 'Bi urte, lau hilabete eta egun bat' dokumentala

Intsumisioari buruz Lander Garrok egindako dokumentala, soldadutzaren kontra borrokatu ziren sei pertsonaren testigantzekin. Debalde.  
*Zaldibarren, 19:00etan.*

### ARRASATE Erdigunean zuntz optikoa eskatzeko batzarra

Alde zaharreko hainbat akademia elkartu dira Udalarari proposamena egiteko. Eskaerarekin ados dauden herritarrek deitu dituzte batzarrera.  
*Kulturaten, 19:00etan.*

## ZAPATUA 30

### ANTZUOLA EH Bilduren batzar irekia

Alderdiaren kongresuaren eta Udaleko jardunaren inguruan egingo dute berba, besteak beste.  
*Torresoroan, 09:30ean.*

### ARRASATE Ipuin kontaketa tailerra Saroa Bikandirekin

Azken saioa egingo dute gaur.  
*Bibliotekan, 10:00etan.*

### BERGARA 'Una biblioteca bergaresa dela época ilustrada: la de don Rafael de Garitano-Aldaeta' liburuaren aurkezpena

Historian katedradun Juan Madariagak idatzi du, Bergarako Udalaritxan dagoen materialarekin.  
*Udaletxean, 12:00etan.*

### BERGARA 'Jabetza burgesetik harago' hitzaldia

Hitzaldietan, euskaratik gaztelaniarako itzulpena egingo da.  
*Zubitxako eskolan, 17:00etan.*

### ESKORIATZA Proposamen bilketa, gaztelekuan

Txanda bakoitzeko nerabeekin gustuko ekintzen proposamenak batuko dituzte.  
*Gaztelekuan, 17:00etan.*

### ARRASATE 'Sugarren mende' liburuaren aurkezpena

Asisko Urmeneta egileak parte hartuko du. Sorgin-ehizari buruzko azalpenak emango ditu, ikerketa zabaldu egin ostean. Edukiera mugatua.  
*Gaztetxean, 17:30ean.*

### BERGARA 'Losers' antzezlan

Jon Plazaola eta Aitziber Garmendia aktoreekin. Sarrerak, zortzi euro.  
*Seminarixoan, 19:00etan.*

## DOMEKA 31

### ESKORIATZA Zuhaitz Eguna

2020an jaiotako haurren izenean zuhaitzak landatuko dira: jaiotako lau umeko zuhaitz bat. Guztira, bost zuhaitz.  
*Ibarraundi museoa, 12:00etan.*

### BERGARA Toribio Jauregiren erretratuak

Argazkilari bergararrak pilotari buruz egindako 40 erretratu ikusgai,

Isabel Vidartek egindako lana oinarri hartuta, hilaren 7ra arte.  
*Aroztegin, 12:00etatik 14:00etara.*

### ARRASATE 'Familian jolasean'

Familiendako txokoa.  
*Okendoko ludotekan, 17:30ean.*

## ASTELEHENA 1

### ARRASATE 'Zer gertatzen ari da munduan urarekin?' hitzaldia

Iñaki Antiguadadek egingo du berba, Goienagusik gonbidatuta.  
*Kulturaten, 10:00etan.*

### ARRASATE Jabekuntza Eskola: izen-ematea

Gaurtik egubakoitzera arte eman daiteke izena, bide hauek erabiliz: Emakume Txokoaren bulegoan, 943-79 41 39 telefono zenbakian edo Whatsapp bidez 618 20 62 33 zenbakian.  
*Emakume Txokoan, 10:00etan.*

### OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko.  
*Foruen plazan, 12:00etan.*

### ANTZUOLA Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko.  
*Herriko Plazan, 12:00etan.*

### ARRASATE Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko.  
*Herriko Plazan, 12:00etan.*

### BERGARA Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko.  
*San Martin plazan, 12:00etan.*

### ARRASATE Android ikastaroa

Smartphoneak eta tabletak nola erabili, eta sistema eragileak dituen ezaugarriak zeintzuk diren ikasteko aukera.  
*KZgunean, 16:00etan.*

### ARETXABALETA Odol ematea

Odol premia aintzat hartuta, otsaileko lehen hiru astelehenetan odola emateko aukera izango dute herritarrek.  
*Durana kalean, 16:45ean.*

### OÑATI Idazketa lantegia

Joxe Mari Iturraldeak gidatuta egingo dituzte saioak, 17:00etan eta 18:30etan.  
*Liburutegia, 17:00etan.*

### OÑATI 'Jakinduria eta biodibertsitatea' erakusketa

Gaur inauguratuko dute, Natur Eskolaren Ingurumen Jardunaldien baitan. Ikusgai egongo da hilaren 24ra arte.  
*Kultura etxean, 18:30ean.*

## MARTITZENA 2

### OÑATI 'COVID-19a, ingurumena eta Pandoraren kutxa' hitzaldia

Joxerra Aihartzak egingo du berba, Ingurumen Jardunaldien baitan.  
*Kultura etxean, 18:00etan.*



ASISKO URMENETA

### ARRASATE 'Sugarren mende' liburuaren aurkezpena

Asisko Urmeneta egileak parte hartuko du. Sorgin-ehizari buruzko azalpenak emango ditu, ikerketa zabalera egin ostean. Edukiera mugatua.

**Bihar, zapatua, gaztetxean, 17:30ean.**



HODEI MAGOA

### ARETXABALETA 'Harritzearen abilezia' magia ikuskizuna

Hodei magoak bere azken lau ikuskizunetan egindako trukerik ikusgarrienak batu ditu. Ilusioa, publikoaren parte-hartzea eta sorpresak agindu ditu.

Sarrerak, hiru euro. Edukiera mugatua. **Etzi, domeka, Arkupen. 17:00etan.**

### OÑATI Noka ikastaroaren azken saioa

Ingo Xonau egitasmoko Beatriz Irizarrek noka balioan jartzeko ikastaroaren azken saioa egingo du. **Gaztelekuan, 18:00etan.**

### OÑATI Literatura solasaldia

Maria Fernanda Ampueroaren *Pelea de gallos* liburua oinarri hartutako saioa, Ane Zapaterok gidatuta. **Kultura etxeko erakusketa gelan, 18:30ean.**

### ARRASATE Ingelesezko literatura solasaldia

Sylvia Plath-ek idatzitako *The bell jar* liburuaren gaineko saioa egingo dute Olwen Mears-ek gidatuta. **Kulturaten, 19:00etan.**

### ARRASATE 'Mendian hil, hirian hil' dokumentala

Iñaki Peñak zuzendutako lana. Ostean, solasaldia. **Amaia antzokian, 19:00etan.**

## EGUAZTENA 3

### ARRASATE 'Orquesta Sinfónica. Grandes batutas III' hitzaldia

Zarauzko musika eskolako zuzendari Marina Letxundik egingo du berba, Goienagusik gonbidatuta. **Kulturaten, 10:00etan.**

### ARRASATE Sasoibide ibilaldia, mendira

Elkartzen direnen artean erabakiko dute nora joango diren. **Biteri plazan, 15:00etan.**

## ZINEMA

### ARRASATE

#### AMAIA

#### Perfumes

Zapatua, domeka eta astelehena: 19:00.

#### Los Croods: una nueva era

Zapatua eta domeka: 16:00.

### BERGARA

#### SEMINARIXOA

#### Nuestros mejores años

Domeka eta astelehena: 18:30.

#### Mi amigo pony

Domeka: 16:00.

### ONATI

#### KULTURA ETXEA

#### Manual de buena esposa

Egubakoitzetik astelehenera: 19:00.

#### Los Croods: una nueva era

Zapatua eta domeka: 16:30.

### GASTEIZ

#### FLORIDA

#### El jinete del dragon

Zapatua eta domeka: 12:00.

#### En guerra con mi abuelo

Zapatua eta domeka: 12:00.

#### La crónicas de Fabulandia

Zapatua eta domeka: 12:00.

#### Los Croods: una nueva era

Egubakoitza, eta astelehenera: 17:10.

#### Mi amigo pony

Zapatua eta domeka: 12:00.

#### El padre

Egubakoitzetik eguenera: 17:15.g

#### Mi amigo pony

Zapatua eta domeka: 12:00.

#### Deseando amar

Egubakoitzetik eguenera: 17:15.

#### Vacaciones contigo... y tu

### mujer

Egubakoitzetik eguenera: 19:20.

### Elfkings

Zapatua eta domeka: 12:00.

### 23 paseos

Egubakoitzetik eguenera: 16:50.

### El profesor persa

Egubakoitzetik eguenera: 17:00, 18:50.

### Hope

Egubakoitzetik eguenera: 18:50.

### Ane

Egunero, martitzena izan ezik: 17:15, 19:15. Martitzena: 17:00.

### Precious

Martitzena: 18:30.

### Ojala te mueras

Egubakoitza, eta astelehenera: 17:15, 19:15. Zapatua eta domeka: 12:00, 17:15, 19:15.

### Chungking express

Egubakoitzetik eguenera: 19:15.

### Mi niña

Egubakoitza, eta astelehenera: 17:00, 19:30. Zapatua eta domeka: 15:00, 17:00, 19:30.

### EIBAR

#### COLISEO

#### Vaciones contigo... y tu mujer

Egubakoitza eta zapatua: 16:00, 19:00. Astelehena: 19:00.

#### Manual de buena esposa

Egubakoitza eta zapatua: 16:00, 19:00. Astelehena: 19:00.

#### ANTZOKIA

#### El pequeño vampiro

Zapatua eta domeka: 16:00.

#### El profesor persa

Zapatua, domeka eta astelehena: 18:30.

### BERGARA Eguaztenetako azoka

Herriko baseritarren garaiko produktuak erosteko aukera egongo da azokan.

**Oxirondon, 18:00etan.**

### OÑATI 'Birusak zer dira? Gizakiarekin zein harreman dute?' hitzaldia

Zientzia Komunikatzaile Ana Galarragak egingo du berba, Ingurumen Jardunaldien baitan. **Kulturate etxean, 18:00etan.**

## EGUENA 4

### ARRASATE Sasoibide

Bi orduko ibilaldia egingo dute. Otsaileko lehena. **Biteri plazan, 10:00etan.**

### BERGARA Olatz Salvador

*Aho uhal* diskoa aurkeztuko du. Sarrerak, *Seminarioxoa.eus* atarian, zortzi eurotan. **Seminarioxoa, 19:00etan.**

### ARETXABALETA 'Koplariak' ikuskizuna

Korrontziren eta Xabier Amurizaren kolaborazioaren emaitza da izen bereko diskoa. Taldearen hamargarrena. Sarrerak, lau euro. **Arkupen, 19:00etan.**

### OÑATI 'Honeyland' pelikula

Stefanov eta Tamara Kotevska zuzendarien lana emango dute, zineklubean, Ingurumen Jardunaldien baitan. **Kultura etxean, 19:00etan.**

## EGUBAKOITZA 5

### ARETXABALETA 'Alguien como tú' erakusketa

Caritasek egindako bilduma ikusgai, gaurtik hilaren 28ra arte. **Arkupen, 11:00etan.**

### ARETXABALETA 'Mendian hil, hirian hil' dokumentala

Iñaki Peñak zuzendutako lana. Ostean, solasaldia. Sarrerak, hiru euro. **Arkupen, 19:00etan.**

## ZAPATUA 6

### ARRASATE 'Alpha' antzezlan, umeendako

Bere fantasien biktima den pertsona baten bizipen komikoak, Ganso & Cia taldearekin. Sarrerak, bost euro. **Amaia antzokian, 17:00etan.**

### OÑATI 'Hansel eta Gretel' antzezlan

Grim anaiek idatzitako izen bereko liburuan oinarritutako lana, Libe Aranburu, Kepa Errasti eta Asiera Oruesagasti aktoreekin. Sarrerak, 3,5 euro. **Santa Anan, 17:00etan.**

### BERGARA 'Erbia eta dortoka' antzezlan

Esopok idatzitako izen bereko liburuan oinarritutako lana, Ugutz Alegria eta Galder Perez aktoreekin. Sarrerak, lau euro. **Seminarioxoa, 17:00etan.**



AZKEN BERBA

AINTZANE OIARBIDE

## Zein da etsaia?

Berriz ere Gipuzkoako COVID-19aren mapan gorria gailentzen ari den honetan, ulergaitza egiten zait handik eta hemendik birusari aurre egiteko neurrien aurkako protestak ikustea. Zilegi dira aurkako iritziak, noski, nahiz eta argi utzi behar dugun COVID-19arekin jende asko hiltzen ari dela. Ezin dut onartu inolaz ere protesta horiek biolentziaz egitea. Ez al daukagu jada nahiko saltsa eta nahiko buruhauste pandemiarekin?

Are gutxiago ulertzen dut zenbait arduradun politikok istilu hauen inguruko deklarazio arduragabeak egitea, kontuan izanda arduradun horien esku dagoela, askotan, sua piztea ala itzaltzea. Esatea Udaltzaingoa edo Ertzaintza ez dela beste auzo batzuetara joaten, aberatsen auzoak direlakoan, edo esatea eredu polizial hau zaharkitua dagoela, hauei arketetako tapak, botilak eta harriak botatzen zaizkienean, guztion etsaia gutxiestea da.

Birusak ez du kategoria sozialez, auzoz edo kolore politikoz ulertzen, birusak denak kutsatu edo hiltzen ditu. Ikuspuntua beste leku batean jartzeak eguneroko ez kutsatzeko esfortzua egiten dutenekin eta gizarte osoarekin solidaritate eskasa erakusten du.

BUKATZEKO

# Aditz laguntzaileak eta trinkoak, esku-eskura

'Adizkinator' izeneko mugikorrerako aplikazioa garatu du Ander Herranz euskara irakasleak, aditzak menperatzen ez dituzten hitzunei bidea errazteko. Bailarako irakasleek jada probatu dute eta diote "oso praktikoa eta erabilerraza" dela

Xabi Gorostidi DEBAGOIENA

Aditz laguntzaileak eta trinkoak ez menderatzea ezin daiteke aurrerantzean euskaraz egitea ez ausartzeko aitzakia izan. Zergatik? Arazo horri irtenbidea emateko aplikazio bat sortu berri baitu Ander Herranz euskara irakasleak. Uribe Kostako AEKn egiten du lan, eta hone-la azaldu du zerk bultzatuta hasi zen aplikazioa sortzen: "Ikasleek taulen bidez ikasten dituzte aditzak. Baina asko dira, astunak dira, askotan ez ditugu eskura izaten... Aditzak bilatzeko prozesua arintzea da helburu nagusia, eta baita une oro eskura izateko erreminta bat sortzea".

Pozik dago orain arte lortutako emaitzekin: "Ongi edo gaizki, baina garrantzitsuena da euskaraz ikasten ari dena euskaraz egiten ausartu dadila. Aditzak ondo esateko zailtasunak izaten dituzte, eta blokeo une horiek gaintzen lagundu dezake aplikazioak. Egia esan, elkarrizketa baten erdian mugikorra ateratzea eta bilaketa egitea ez da oso naturala; baina, tira... ikasleei baliagarri egiten bazaie, ni pozik. Orain arte erabili dutenek esan didate oso



Saioa Irastortza eta Oskar Elizburu, Adizkinator aplikazioa erakusten. XABI GOROSTIDI

erabilgarri egin zaiela; beraz, feedback onak jaso ditut. Esan dezaket aplikazioa erabilgarria sortzea lortu dudala, eta ahaleginak merezi izan duela".

Uda partean hasi zen aplikazioa sortzen, eta horretan aritu da azken hilabeteetan. "Hasierako asmoa zen aditz laguntzaileak soilik sartzera, eta nahiko azkar egin nuen. Baina segituan

konturatu nintzen horrekin bakarrik ez zuela askorako balio izango. Beraz, aditz trinkoak sartzera erabaki nuen; ostean, hika erakoak ere... Eta horrek lan gehiago ekarri zuen".

## Funtzionamendu erraza

Aplikazioa Google Play Store-n deskargatu daiteke, doan, gainera; Apple etxeko gailuentza-

ko, berriz, ez dago eskuragarri, oraingoz. Behin deskargatuta, bi aukera dituzte erabiltzaileak: aditza jokatu edo adizkia bilatu. Hala, Euskaltzaindiak euskara baturako onartu dituen adizki laguntzaile eta trinko guztien modu neutroak ez ezik, hikako forma alokutiboak ere eskaintzen ditu aplikazioak.

## Irakasleen oniritzia

Bailarako bi euskara irakaslearen atea jo du GOIENAK, aplikazio berri horri buruz zein iritzi duten jakiteko, eta bie interesgarria iruditu zaie ikasleekin erabiltzeko.

"Egia esan, oso praktikoa iruditu zait. Oso azkarra da, oso eroso eta oso sinplea. Oso garrantzitsua da hori, batez ere, teknologia berrietara oso ohituta ez dauden horiek erabil dezaten. Aditzaren atzean dauden gakoak identifikatzeko balio du: nork, nori, aditz denborak... eta baita kontrakoa ere. Gakoak jakin bai baina aditza ez bada-kizu, segundo gutxiren kabuan zuk zeuk aurkitzeko bidea ematen dizu", adierazi du Arrasateko Udal Euskaltegiko irakasle Saioa Irastortzak.

"Aditza zein den bilatzea behalakoan egin ahal izatea abantaila bat da. Lehenaldia, nor-nork, subjuntiboa... forma batzuk menderatzea ez da erraza ikasleentzat, eta honek bide hori errazten die. Aditzen taulak paperezko euskarrian ematen dizkiegu gure ikasleei, eta ikuste hutsarekin beldurtu egiten dira, asko direlako; beraz, ikasleko beste euskarri bat dakar honek. Badaukat asmoa ikasleei gomendatzeko", adierazi du AEKko irakasle Oskar Elizburuk.

Zure negozioa ezagutzera eman nahi duzu?  
**Zatoz batu-banatura!**

- Banaketa **masiboa**.
- Banaketa **pertsonalizatua**.
- **Kartelak** ipini.
- **Autoz auto** banatzea.

**Batu Banatu:**  
zure publizitate-banaketa, neurririk!

**b + b**  
batu-banatu

www.batubanatu.eus  
943 08 10 50 / 688 69 00 07  
banaketak@batubanatu.eus